En el cuarto punto, instan a la Diputación a dejar una franja de 30 metros en las orillas de los arroyos y en las captaciones de agua para la plantación de vegetación autóctona. Yo podría estar de acuerdo en el caso de los terrenos de la Diputación, podría estar de acuerdo con impulsarlo en el caso de los/as particulares y las subvenciones están para eso en el caso de los/as particulares también. Sin embargo, hoy en día, si no me equivoco, está regulado según nuestras zonas: una franja de 10 metros, en unos casos; y una franja de 30 metros, en otros casos. Ustedes piden aquí 30 metros. Lo tendremos que estudiar, y también tendremos que consensuarlo. En algunos casos, deberá ser inferior a 10; y, en otros casos, superior a 30. La Diputación Foral de Bizkaia continuará dando pasos, pasos importantes, y también a corto y me dio plazo, no solo a largo plazo. ¡Aprobado!, la Diputación Foral de Bizkaia ha dado muchos pasos adecuados en la silvicultura, y los datos están ahí, a pesar de que algunos/as no quieran reconocerlo. Se están dando en este momento, y, a corto plazo, como he dicho, se van a dar pasos importantes, pero estudiando todos los puntos de vista, estudiando todos los puntos de vista, aplicando políticas adecuadas y escuchando a todas las partes y estudiando todo lo que dicen. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. En el turno de réplica, señora Arriola Alzola, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Muchas gracias a todos/as.

Creo que tenemos una cuenta en la partida, que consiste en que con los eucaliptos no se puede realizar una gestión sostenible. Eso es un oxímoron. Si creemos que con los eucaliptos se puede llevar a cabo una gestión sostenible, resulta imposible. Ese es el punto de partida.

A partir de ahí, ¿por qué no se cumple la Ley de Costas? ¿Por qué la Diputación Foral de Bizkaia no cumple una ley que se aprobó en 2014, donde el artículo 47 dice que a 100 metros de la costa debe haber vegetación autóctona? ¿Cuál es la razón? Quizá nos lo va a explicar Andrade o Jesús, estoy deseando escucharles.

Nosotros/as no decimos de ninguna manera que se penalice a los/as propietarios/as. Lo que queremos decir es que se lime la rentabilidad equiparándola a la situación del pino. Los/as propietarios/as y, Jesús, usted lo ha admitido y así es, hoy en día muy pocos/as o incluso casi nadie vive solo de los árboles, vive de la madera. Puede ser algo complementario. ¿Qué decimos? Si el pino daba una rentabilidad de 300 euros por hectárea y si el eucalipto da 500 euros, equipararlo al pino para al menos no promover la expansión del eucalipto. Eso es lo que decimos. No decimos que no se prohíban, ni nada parecido. Solo que se pongan en marcha otro tipo de políticas de promoción por parte de la Diputación Foral de Bizkaia. Señor Andrade, ha mencionado la situación de Galicia, y es cierto que allí han establecido una moratoria, pero ¿qué ha ocurrido? Como se ha avisado seis meses antes que habrá una moratoria, han estado cultivando eucaliptos día y noche, hasta que en todos los viveros se han agotado las plantas de eucalipto. Por tanto, bueno, aquí hay cuestiones de calado, la moratoria sería una opción, pero habría que pensar cómo hacerlo. La cuestión es ir acordándolo.

Aquí también se ha hablado de que sí hay subvenciones. Sí hay subvenciones, pero no hay para quienes se dedican a la “Naturatik Hurreko Basogintzea”, y voy a decir por qué. Se deben cultivar 1.100 árboles por hectárea para crear árboles productivos y madera de calidad. ¿Qué se considera en las ayudas? 600 árboles por hectárea. Eso proviene de esa normativa de Gipuzkoa, pero la normativa de Gipuzkoa se refiere a los bosques de conservación, no a los productivos. Por eso se han creado estas confusiones.

Por tanto, ¿qué ocurre? ¿Saben a quiénes se penaliza? Estos/as, quienes se dedican a una silvicultura cercana a la naturaleza, ya que lo que perciben es el 40%, el 40% de los costes de plantación. No el 95%. Esto lo tengo contrastado con la gente del sector, y bien contrastado con más de uno/a. Ni siquiera se subvenciona. Existen distintas maneras de llegar a ese bosque, y una es cultivarlo totalmente. En ese caso, hemos dicho que 1.100 árboles por hectárea. Otra es aprovechar lo que hay, si anteriormente ha habido pino, lo que tampoco se subvenciona tanto como tirarlo todo y cultivarlo totalmente. ¿Por qué? Porque se subvenciona 610 euros por hectárea y la otra se subvenciona 2.000 euros por hectárea. He ahí la diferencia.

Donde existe un bosque natural, y donde ese bosque es lo suficientemente maduro tampoco, donde puede ser aprovechado como bosque de conservación tampoco se subvenciona la tala selectiva, ya que se conceden 0 euros al desglose, pero no a la tala selectiva. Por tanto, se han hecho cosas, y es cierto que se le ha dado otro matiz en la última convocatoria de subvenciones, pero, a pesar de que haya algunas novedades, el modelo no ha cambiado, y lo que se ha hecho es, en mi opinión, y aún no lo he analizado con demasiada profundidad, pero me da la sensación que se ha copiado la convocatoria de Gipuzkoa en gran medida, que se ha incluido la innovación de los servicios de los ecosistemas, el pago por los servicios medioambientales, pero, por ejemplo, y ahí también se ha recogido lo de la edad de tala de 15 años o todo lo referente a esa cuestión, lo que supone una tomadura de pelo. Eso no es ninguna innovación, porque se trata del turno natural del eucalipto. ¿Qué dice Gipuzkoa en la

convocatoria? Dice que 25 años y un diámetro de 37,5 centímetros. ¿Qué dice Bizkaia? 15 años y un diámetro de 20 centímetros.

Es decir, se ha dado a entender, se ha dado a entender que las ayudas son más verdes, se ha dado a entender que se está haciendo algo, pero aquí creo, y en eso sí que estoy de acuerdo, que debemos debatirlo más y que debemos orientar un poco más la política forestal actual de la Diputación Foral de Bizkaia y que también hay que ofrecer alternativas para los bosques productivos, en relación al sector y en relación a la creación de empleo y en relación a la comercialización y en relación a la economía circular. El eucalipto no permite una economía circular. Si no, miren cuánta gente trabaja y para qué trabaja. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Arriola Alzola. Señor Fernández Medrano, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Talde popularreko Andrade jaunaren agerraldiaren atxakia erabiliko neuke, azaldu dauan kezka EAJko jentearen agerraldian be agertu dalako, hau da, zer jazoten dan enpresakaz, zer jazoten dan lanpostuakaz gaur hemen zuzendu dogun proposamenean. Esan dodanez, emoten eban hau goizerik gauera aldatzen zala, azkar-azkar egiten zala. Hori dala eta, esan gura dot goizerik gauera jan doguna eukaliptoaren agerpen basati baizen azkarra izan dala, hau da, gaurko ogia biharko gosea izan daitekean epe laburrerako neurria. Edozelan be, haragoxe begiratzen daben neurriak proponiduten doguzanean, ingurumenagaz ez eze ekonomiagaz be zerikusia daukien gaiei, hain zuzen be, begiratzen deutseen neurriak, geure gain hartzerik ez daukagula esaten jaku. Hau da, ekonomiaren zein ingurumenaren arloan arazoak sortzen dauzan egoera ikaragarria *de facto* hartu behar dogu geure gain, eta, epe luzerako gauzak proponiduten diranean, lasterregia da. Halanda ze, zentzun horretan, ezin dot diagnostiko hau ulertu.

Horrezaz ganera, Lekerikabeaskoaren esanetan, proposamena ez da behar baizen zabala, hau da, horra hor beste argudio bat: zabalegia danean, zabalegia dalako; eta laburregia danean, laburregia dalako. Ondo dago toki-autonomiaren gaia, erantzun beharreko zeozer da, errespetau beharreko zeozer da, baina Aldundiak basogintzearen arloan daukazan eskumen eskusiboak be hartu beharko doguz seriotasunez.

Ez neban gura, uste dodalako Laguntzei buruzko Foru Dekretuaren gaiari buruz eztabaidatuko dogula batzordean, baina, jakina, esan egin gura dot, horren inguruan emongo dogun erantzunak edo neurriek arloagaz zerikusirik badaukie, Alderdi Sozialistako batzarkideak ondo esan dauanez, %83, %85 dira baso pribaduak; eta ez hainbeste, publikoak. Ondo da, neurri honetan, zati bat eta bestea dagoz sartuta. Berezko mendi publikoetan, proponiduten dogun logika hori bizi da, eta, ganerakoetarako, mendi pribadu horreetan zer egiten dan zehazteko modu gehiago dagoz. Euretako bat laguntzen kontua-eta da. Niri, eta batzordean berba egingo dogu, ez jataz diru-kontuak ateraten mendiak, kontserbazinoko basoak eta bertoko basoak landatzeko. Eztabaidatu egingo dogu, baina, LGPko 15. neurriaren gaia be aitatu danez, hortxe be ez jataz kontuak ateraten. Bortxaz sartu da, 15. neurria bortxaz sartu da ingurumeneko gaiakaz, kontserbazinoko basoen gaiagaz, aurrekontu-zuzkidura berberagaz, zeozelan esatearren. Eztabaidatu egingo dogu.

Uste dot zentzunezko gauzak dirala. Agirikoa danez, Kostaldeei buruzko 2014ko Errege Dekretua bete behar dala adierazotea, Iratxek behar dan moduan defendidu dauan lez, eztabaidatik kanpo egon beharko litzatekean gaia da, Foru Gobernua ez da horri buruzko eztabaidan sartu. Bestetik, eukaliptoaren eta mozteko txanden gaian neurri murriztaileagoak hartzea be zentzunezkoa da. Orain, baldintza batzuk agertu dira ezelan be murriztaileak ez diran laguntzei buruzko dekretu barrian, eta ondo baino hobeto bat datoz

eukaliptoaren landatzeko eta mozteko logika produktibisteagaz. Ez dakit zein dan ekarpena landaketa horreek ez suspertzean. Uste dot 3 proposamen interesgarri dirala guk mozinoari eransten geuntsazanak. Ez dakit mozinoa asmo handiegikoa dan, oso asmo handikoa ez dan, baina ez dot uste hemen bakarriketea egiteko asmoaren emoitzea danik, nahi-ta beti hemen azkenean agerraldiak bakarriketak diran.

Uste dot honi buruz sakonago eztabaidatzen segiduteko eta bertoko basoetarako eta beste era bateko baso-eredurako kontuak ateraten diran ala ez berba egiteko aukerak eukiko doguzala Jasangarritasun Batzordean, eta hortxe segiduko dogu eztabaidan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Fernández. Señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Egia esan, ez da goizerik gauera sortu dan gaia, arazo honek 15 urte daroaz gitxienez. Eukaliptoaren arazoaren ez da oraintsuko arazo. Zugatz asko dabilz mozten, eta, izan be, laguntza barriak onartu dauzan dekretuan, zugatzaren mozketari buruz berba egiten da, eukaliptoz landatutako milaka hektarea zugatz mozten dabilzalako. Gure erlatxetik apur bat igaro baino ez dago geure mendietan ikusteko, ikusteko, hau da, ez da oraintsuko arazo. Eukaliptoak 10-15 urte behar dauz hazteko, eta beste mendi batzuetan dagozanak, gehienak, handiak dira. Egia da banda marroien ondorioz enpresari askok pinuaren arazoaren kendu dabena eta eukaliptora igaro dirana. Badago hori geldiarazotzerik.

Ni neu bat nator mozinoan foru-mendiei buruz zenkarrezan hausnarketakaz. Egia da Aldundiarenak diran foru-mendietan, ezelako baso-ustiapenaren eta mozkinen eragipean ez dagozala kontuan hartuta, bertoko zugatzaren araberrako ustiapena egin daitekeana, ingurumena babestu daitekeana. Horrezaz ganera, foru-pinuetan daukaguzan arazoak kendu daitekez, pinu-beldarra, berbarako, edo eukaliptoaren sortzen dabilen arazoak. Dana dala, uste dot foru-mendietan oinarritzakoa izan beharko litzatekeala eukalipto guztiak kentzea eta bertokoen ustiatzietara, bertoko zugatzetara igarotea.

Era berean, ados nago egurgintzako enpresei buruz egiten dozuzan hausnarketakaz: mendietan garatutako jarduketara, arraseko mozketara, hori egitean sorrarazoten diran ingurumeneko triskantzak. Tira, hori ez dator mozino honetan, baina erabat ados nago, baso-ustiatzietan bat bisitatu baino ez dagoalako zelako triskantzara egiten daben eta mendi horreetan egiten dan lana zer gitxi kontrolatan dan ikusteko.

Edozelan be, ez nator bat emoten diran urtenbideei buruzko azterketeagaz. Barriro dinot. Ez dot ulertzen zergaitik zigortzen dabezan jaubeak, zergaitik zergapetu gura dabezan. Ia-ia inor ez ei da egurretik bizi. Zeuk esan dozu. Jente asko bizi da egurretik, osterara. Beharginak albo batera itxita, uste dot baso-ustiatzietan jaube asko deabrutzen dabezala edo uste dot kale egin dogula. Oro har, mendien jaubeak ez dira jaube handiak, ez dira enpresari handiak, lurjaube handiak. Bere baserri tradizionala daukan jentea da, eta, bere mendiak atxikita euki dauzanez, ahal izan dauan moduan kudeatu dauz, landaketen bidez, eta dirua inbertidu beharra dago, 15 edo 20 urtean mozkinak eukiteko. Erabagi familiar gatx-gatxa danez, uste dot huts egiten dogula errentagarritasuna mugatu gura deutsegula dinotsegunean, euren zugatzetatik bizitzeko eskubidea daukielako, ostantzean honako hauxe izango dalako beste urtenbide bat: enpresari horreen seme-alabak hain epe luzerako diran inbersino horreetatik aldentzea eta gure basoak bertan behera ixtea.

Halanda ze, nire ustetan, errentagarritasuna errespetatu beharra dago eta eutsi egin beharra dago. Ganera, fiskalidatearen kontura ez bada, aldatzen behartzen

doguzalako, laguntzak emon beharko jakez, sail landatuak aldatu daiezan. Ez nator bat, oster, Euzko Alderdi Jeltzaleko kideak egindako azterketeagaz, bakarrizketari buruz berba egin dauanean. Uste dot EH Bilduk Podemosen zuzenketaz proponidutako neurriak neurriak dirala, horraitino. Hau da, eztabaida soziala ekarri gura zan, mozinoan adierazoten zan lez. Hementxe, Gernikako Batzarretako Ganberan, berba egin behar dogu eztabaida sozialei buruz, gizartearen eztabaidak ekarri behar doguz bertora, eztabaidatzeko. Gu geu ez gagoz ados egiten dozuezan proposamen batzuekaz, eta beste alderdi batzuk be ez dagoz ados, baina ados nago eztabaida hori honaxe ekarri behar dala eta hementxe berba egin behar dala esaten danean. Gu ez gatoz bat zuok egiten dozuezan ekimen batzuekaz, eta errespetu osoz dinotsut, eta zuok gure jarrera errespetau behar dozue. Dana dala, uste dot horixe dala bidea, bertora ekartea eta horri buruz berba egitea.

Niretzat ez da oso ulergarria, holako eztabaidak dagozana eta Ganberara ekarriko dirana jakinda, goizerik gauera, lehen esan dodanez, eraldaketarako proiektuak onartzea. Lehen aitatu doguzanak lako proiektuak; baso-ustiategietarako laguntza barriak, barbarako. Uste dot, ulertzen dot erabateko gehiengoa daukazueta eta gura dozuezan foru-araueak, babesak eta dirulaguntzak egin daikezueza, baina, nik, eztabaidea egon badagoana eta Ganbera honetan eztabaidea egongo zana jakinda, gitxienez ganerako alderdi politikoen eretxiak, ideak entzungo nebazan, babestu dan dekretu hori onartu dana baino hobea izan daiten. Nik neuk gehiengoak ulertzen dodaz, erabateko gehiengoaren araubidea, baina eztabaidea egin beharra dago Ganbera honetan, osoko batzarren aretoan, herriaren borondatearen ordezkari-organu handiena dala kontuan hartuta. Halanda ze, ondo etorri eztabaidea. Batzordeetan berbetan segiduko dogu, baina nik beste alderdi batzuen ekarpenei egindako kritika hori gaitzesten dot, izan badiralako, zuzenak edo ez, partekatuak edo ez, izan badiralako eta hementxe aztertu behar doguzalako. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Señor Ortiz Zaballa, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, de nuevo.

Hastearren, Euskal Sozialistok kezkatuta gagoz Bizkaiko basoakaitik? Bai. Kezkatuta gagoz eukaliptoaren hedapenagaitik? Bai. Hain zuzen be, horrexegaitik gagoz hemen, eta Aldundia hori ekiditeko neurri zehatzak hartzen dabil.

Dana dala, gaia testuingururatu behar dogu barriro, Bizkaiko basoen %85 esku pribaduetan dagozalako. Ondo da. Hortik aurrera, eukaliptoaren hedapena saihesteko asmotan Aldundi hau hartzen dabilen neurriak, neurri zehatzak, honako honeetxek dirala esan baino ez dogu, labur-labur aitatuako dodaz, oso erraza da: pinuen tala sanitarioa diruz ez laguntzea basoak eukaliptoaren bidez barritzeko. Mozteko gitxieneko epealdia 15 urtekoa da. Halanda ze, basoa bertoko espezieen bidez barritzeko inbersinoaren %95eraino laguntzen da diruz. Gero, esandakoa, Aldundiaren konpromisoa, 4 milioi euroko balioa daukien mendiak erosteko eta bertoko espezieen bidez barritzeko. Guretzat, barriro dinot, oso kezkarria da ingurumenaren eta egurgintzearen arteko oreka bilatzea. Funtsezkoa da horreen bien arteko oreka hori topetea.

Hortik aurrera, ulergarria danez, uste dot foro honetara ekarri behar doguzala eztabaida honeek. Eztabaidak onak dira, eta gu hortxe topauko gaituzu. Halanda be, ezezko botoa emon behar deusagu mozino honi, lehen esan deusudanez, zuok mozino honetan proponiduten dozuena Aldundi honek oraintxe bertan abian daukana dalako. Edozelan be, segidu egingo dogu. Hauxe, lehen esan deusudanez, hauxe eztabaida bizia da, zugatzak eurak

lez, eta eztabaidatzen segidu beharko dogu, danon artean hobetzen ahalegintzeko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. Para concluir con el debate, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Sí, muchas gracias.

En la primera parte, he comentado en qué podemos estar de acuerdo y dónde se deben buscar los consensos. En el segundo turno, creo que he escuchado cosas más adecuadas por parte de los grupos. Lo que no sirve es referirse a los incendios, referirse al informe de Elozegi, comentar lo que dice la legislación en relación con las zonas de servidumbre, soltarlo así, sin datos, pero tendremos la oportunidad de hablar de todo eso, y también me apetece hablar de eso.

Comparto las aportaciones, señor Andrade, las aportaciones planteadas por todos los grupos, pero ya he dicho que yo no comparto las medidas que se han señalado. Solicitan un debate, pero establecen unas medidas previamente. Para mí lo más importante en esta cuestión son la gestión y el equilibrio. Todos/as debemos obligarnos a realizar una gestión adecuada: los/as particulares, las empresas, los ayuntamientos, también la Diputación. Intentar encontrar un consenso con responsabilidad y sinceridad, dejando a un lado el mensaje apocalíptico. Algunos/as solo quieren sumergirse en el debate sobre los árboles que se han de cultivar. Dan vueltas en esa rotonda con un único punto de vista. A eso me refiero cuando hablo de monólogo o soliloquio, solo a eso. Bienvenido sea todo lo demás que se ha mencionado. En Bizkaia, concretamente, en Euskal Herria y en Bizkaia, no ha habido nunca tanta superficie forestal como la que tenemos ahora, y no ha habido nunca tanto bosque autóctono como el que tenemos ahora. Eso es una política forestal, aunque para algunos/as no sea la adecuada, pero lo que digo yo, “traigan otras políticas que se aplican en territorios de una tipología similar a la nuestra, y las analizaremos con gusto”.

Actualmente, se acaba de aprobar una línea de subvenciones, para ayudar a quienes ofrecen sus servicios. A nosotros/as nos ayudan los/as pequeños/as propietarios/as y quienes nos dan ese servicio, y esa línea tiene como objeto ayudarles. En Bizkaia, casi contamos con 60.000 hectáreas con la certificación de gestión forestal sostenible. De toda la Comunidad Autónoma, el 60% está certificado en Bizkaia, a los/as propietarios/as que quieran ofrecerlos, se les pagan los servicios ecosistémicos y psicoambientales, así como los servicios para hacer frente al cambio climático. ¿Siendo suficiente se les debe dar más? Se va a continuar en esa dirección. Cuando se aplica un modelo forestal, debemos continuar en esa dirección, y debemos impulsar una madera de calidad, pero una madera de calidad sin tener en cuenta este árbol o este árbol. Una madera de calidad en todos los sentidos.

Además, la Diputación Foral de Bizkaia manifestó que destinaría 4 millones a la compra de montes privados para su replantación. Yo creo que esa también es una medida plausible. Todo no puede ser senderismo y paisaje. Necesitamos madera, contamos con empresas potentes, se debe colaborar en el sector, tenemos una cultura de la madera y eso se nota, se debe impulsar el uso, se debe impulsar el uso de la madera, porque es sostenible y porque, si es autóctona, si es de kilómetro 0, es más sostenible.

Equilibrio y gestión. Eso es lo que he dicho. Equilibrio, haciendo bien las cosas: qué madera necesitamos, en primer lugar; cuánta madera necesitamos; dónde debemos cultivar esa madera; y cómo debemos gestionar las plantaciones. Eso es lo que debemos consensuar. Creo que lo demás se conseguirá cuando eso se acuerde. Ese es el reto, que no es

poco, pero estoy seguro que esta Diputación va a seguir dando pasos en esa dirección, y algunos/as estaremos ahí para ayudar. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lekerikabeaskoa. Una vez concluido el debate, cuando todos/as hayamos tomado asiento, someteremos a votación la moción. Como se ha comentado, se han aceptado las enmiendas, por lo que se votará la moción con las enmiendas incluidas.

Por tanto, ¿votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado es el siguiente:

Se han emitido 50 votos en total. Ha habido 16 votos a favor y 34 votos en contra. Por tanto, no se ha aprobado la moción. Punto cuarto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001617](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Medidas para garantizar de forma efectiva el derecho de la ciudadanía a elegir el medio a través del cual quiere relacionarse con la Hacienda Foral para la confección de la declaración de la renta.

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001617](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (29A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002340](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001617SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Errenta-aitorpena egiteko herritarrek Foru Ogasunagaz hartu-emonak zelan izango dituen aukeratzeko eskubidea modu eraginkorren bermatzeko neurriak

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001617SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (29A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002340](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Uste dot Ganbera honetan une askotan jorratu dogula 2020ko Errentearen kanpainearen gaia. Horren ondorioz, batez be zergadunak daukiezan zailtasunak Foru Ogasunak ezarri dauan eredu barriaren bidez errenta-autorpena aurkezteko orduan. Zailtasun horreen zati handi batek loturea dauka tresnak berak eukazan errakuntzakaz. Foru Aldundia errakuntza horreek konpontzen joan da, tira, eta, era berean, emoten dau seguruenik Lantikeko zuzendariaren burua be jausi dala. Halanda be, oraindakarren konpondu ez diran beste gai batzuk dagoz, eta, oraindakarren, egonezina sortzen dabe herritarren artean, hau da, Foru Aldundiak ez deutso erantzun aurrez aurreko arreteak jasoteko egiten dagozan eskaerari. Aurrez

aurreko arretearen eskaerea hortxe dago, eta, horrezaz ganera, praktikan, errealidadean dago oinarrituta, eta gai hori eztabaidatuezina dala uste dot eta Ogasuneko foru-diputaduak berak be ezin izan dauala guzurtau.

Hara, Kontrolerako Osoko Batzarrean Iruarrizaga jaunak honako datu honeek emon ebazan: 186.000 autorpen egozan aurkeztuta apirilaren 28an. Autorpen horreetatik, 20.000 telefonoz egin dira (%12). Autorpen horreen %88, ostera, webgunearen bidez egin dira. Zenbait unetan itandu dogu autorpen horreetatik, %88 horreetatik zenbat, horreetatik zenbat aurkeztu diran aholkularitza-enpresa baten laguntzaz, eta oraindokarren ez dogu horren inguruko erantzunik jaso, hori be badalako Aldundia emoten ez dagoan aurrez aurreko artea, eta herritarrek eurek bilatu behar dabe hori egin ahal izateko, ahal izateko modua.

Diputaduak be esan eban autorpen guztiak eta errentearen kasuan egin daitekezan prozesu guztiak bardin-bardin egin daitekezala telefonoz eta bulego batera joanda, webgunearen bidez edo aplikazioaren bidez. Hau da, aurton errenta-autorpena aurkezteko lehentasuneko modua, horixe, telefonoz edo modu telematikoa. Ganera, azkenean, jentek telefonoa lehentasunez erabili beste aukerarik ez dauka, nahi-ta jasotako dei guztiei erantzutea ezinezkoa izango zana jakin. Bizkaiko Foru Aldundiak aurrez aurreko arretarako jarten dauzan murrizketak eta eragozpenak be errealidadea dira, eta, atzo bertan, Elixabete Etxanobe diputaduak egiaztatu egin eban azkenean, hitzordu hori eskatzeko egin beharreko bidaldia azaldu ebanean.

Gaur, neurri batzuk proponiduten deusueguz, eta herritarrek Foru Ogasunagaz hartu-emonetan egoteko zer kanal erabili gura daben, hain zuzen be, aukeratu ahal izateko daukien eskubidea bermatzea daukie helburu. Zelan? Batetik, aurrez aurreko edo telefono bidezko arretarako lanak egiten dabezan profesionalen taldeak indartuta. Foru Aldundiak telefono bidezko arretarako zerbitzu ona benetan emon gura badau, behar beste behargin euki behar dauz kanal horren bidezko artea emoteko, eta, halanda be, gaur egun, oraindokarren badago deirik egunean bertan erantzuten ez danik, ez hasieran beste, baina erantzuten ez diran deiak dagoz oraindokarren.

Maiatzaren 17an, Etxanobe diputaduak emondako datuen arabera, oraindokarren 38.815 lagun dagoz behin be euren deiaren erantzunik jaso ez dabena deitu dabena guztietan. 38.815, bakar bat be egon beharko ez litzatekeanean. Ulertzeko modukoa da lehenengo astean ganez egotea, baina ezin dogu ulertu egoerak bere horretan segidutea kanpaina hasi zantetik hilebete eta erdi igaro danean.

Aurrez aurreko arretari jagokonez, behargin gehiago behar dira benetan dagoan eskaerari erantzuteko, eta, horrezaz ganera, Foru Aldundiak konpromiso irmea hartu behar dau herritarraz, aurrez aurreko artea bermatzeko erregutu barik edo telefonoz erantzuten deutseen agenteen irazkiak eta balorazioak gaintzeko beharra euki barik. Atzo, Etxanobe andeari entzun ostean, askoz be argiago geratu jakun guztia. Honako hauxe esan eban:

Batez be 3 kanalen bidez garatzen dan erdua da: telefonoa, webgunea eta APP mobikorra, eta, aurrez aurreko artea jaso gura badozu, erantzuten dabena profesionalen ebaluazioaren irazkiak gaintitu behar dira. Hara, herritarrek eskubidea eskatzen dabe, eta Foru Aldundiak bermatu egiten dau eta kitu. Ez dago beste erantzunik.

Beste elementu bat be proponiduten dogu, hau da, Foru Ogasunaren konpromiso hori praktikara eroatea. Proponidu egiten dogu Aldundiak beste kanal batzuen bidez emotea aurretiazko hitzordua eskatzeko aukerea, aurrez aurre, Foru Ogasunean bertan, eskualdeko arretarako edozein bulegotan edo Aldundiaren webgunearen bitartez, baina zergadun guztientzat eskuragarri dagoan benetako aukerea izan behar da, eta, gaur, hori ez da



oraindik jazo. Alde horretatik, aurrez aurreko eta telefono bidezko arretarako beharginak indartzeko prozesua lan publikoaren sorrerearen esparruan jazotea proposatzen dugu, Euskadiko beste lurralde batzuek orain arte egin daben lez. Izan be, ez zeunkie zailtasun handirik eukiko, orain dala gitxi Foru Aldundiak ekonomialarien eta administrarien lan-boltsak eguneratu dauzalako. Ganera, bertara jo daike premina hori estaltzeko.

Azkenik, giza talde batzuk eten digitalaren eta errenta-autorpena aurkezteko orduan praktikan daukiezan ondorioen inguruan erakusten ibili diran zailtasunei erantzuna emateko asmotan, proposatu egiten dugu Aldundiak herritarren arretarako bulegoetan atontzea aurrez aurreko laguntzarako eta aholkularitzarako zerbitzua, behar dabenen esku baliabide teknikoak, ordenagailuak, Internetarako konexinoa jarteko, baina teknologia barriak erabilteko eta errenta-autorpena egiteko orduan aholkularitzea ematen deuseen giza baliabideak be bai.

Ez dugu Aldundi asistentzialistatik euki gura, gauzak gure ordezt egiten dauzana, ez dugu ez ama ez aita gehiago behar, hori ez dalako foru-administrazioaren eginkizuna. Behar besteko baliabideak jarri laguntzeko. Behar besteko baliabideak jarri aholkularitza emateko eta gai dan gizartea eratzeko. Behar besteko baliabideak jorratu eta jarri eten digitala eta zerga-arloko jakintzearen etena desagerrarazoteko. Hauxe da gure proposamena. Oso neurri zehatzak, praktikoak eta erraz-erraz abian jarri daitezkeanak. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. El Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia presentó una enmienda, por lo que, en este momento, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Mahaikideok, batzarkideok, buenos días a todos/as. Egun on.

Itaunaren ondorioz sortutako mozinoa aurkezten jaku, baina mozinoan islatzen dan gai hau orain dala hilebete eta erdi hasi zan, ezta? Joan dan martiaren leian Batzar Nagusien webguneko albista batean islatzen dan izenburua dala eta hasi zan. Honako hauxe inoan:

“Foru Ogasunak errenta-autorpena egingo deuse bizkaitar guztiei”. Albistearen gorputzean bertan, honako hauxe ziurtatzen zan, eta berbaz berba aitatu dot: “Bizkaiak errentarako laguntza-zerbitzua hobetu dau”. Ganera, Ogasuneko eta Finantzarako foru-diputaduak berak adierazo egin eban eredu barri horrek Bizkaiko zergadunei ahal danik eta gehien lagundu gura deusela errenta-autorpena aurkezteko daukien betebeharra beteten.

“2020ko Errentea. Ogasunak 900.000 autorpen-proposamen egingo dauz milioi bat zergadunentzat”. Hori ia-ia hilebete geroago jazo zan, martiaren 6an. Batzar Nagusien webguneko sarrera barri bat da, eta ñabardura interesgarria erantsi da ordurako. Ez da berba egiten errenta-autorpenei buruz, autorpen-proposamenei buruz baino, eta hori askoz be erreala da. Bien bitartean, komunikazio-kanpainen euren eragina daukie. Udalbarri batzuetan, Bilbon, berbarako, errentearan kanpainari buruzko iragarkiak egozan eguna argitu zanean, eta honako hauxe zan eslogana:

“Barria, erraza, Bizkaiak persona guztientzako proposamena dauka”.

Tamalez, norberaren gorapamenetik harago, egun gitxitan danok uste genduana nabarmendu zan. Apirilaren hasierara goaz, eztabaida honen datara hurreratzen goaz. Komen artean esanda, teoriaran eginda egoan errenta-autorpenean sartzeko informazioari

buruzko mezu elektronikoak jaso ostean, bizkaitar askok ikusi ahal izan genduan errenta-autorpenaren zirriborroan okerreko datuak, okerreko zenbatespenak eta akatsen abar luze bat agertzen zirala. Halanda ze, agirikoa zan errentako proiektu handi hori ia-ia ezelako zerikusirik be ez eukana iragarritakoagaz. Tokiko komunikabideren batek horren inguruko txantxak be egiten ebazan, eta honako hauze inoan: “Bilbo ez da Kopenhage, baina danimarkarren erara egindako zerga-iraultzea ezusteko ames txar bihurtuko ete dan bildur dira bizkaitarrak”.

Holantxe izan da. Holantxe egin eban aurrera apirilak. Lehenengo egunetan, anabasa informatikoa izan zan nagusi, sistema kolapsau egin zan-eta. Erantzulerik? Igaro zan lehenengoa, IZENPE, barbarako. Zentzunbakokeria gorena izan zan, gutun guztiak etxeetara ailegau ziranean.

Mundu guztiari autorpen-proposamena bialtzeko teman, Foru Aldundiak hilda egozanei eta lurraldean bizi ez ziranei be bialdu eutsen gutuna.

Foru Aldundiak behin eta barriro inoan sistema telematiko barria ondo ebilela egun horreetan, nahi-ta unean uneko akatsak euki. Askok geure buruari itandu geuntsan une horreetan non geratu ziran eslogan horreek: barria, erraza... Egunez egun, egoerea txarrera joian, eta herritarrek gero eta haserreago egozan, agirikoa danez. Hori dala eta, Foru Aldundiak parkamena eskatu besterik ez eban euki, eta autorpenak berregin behar izan ebazan. 30.000 zergadunenak esan zan, azaldu euskuenez 12 eratako errore desbardinaren ondorioz sortutako akats sakonak egiaztatu ostean. Egoerea hain larria izan zanez, eta autortu egin beharra dago hori oso ondo dagoana, Ogasuneko foru-diputaduak herritarrei eskatu eutsen parkamena egindako akatsakaitik, eta berbaz berba aitatu dot: “kasu zehatzetan”, errentearen kanpainako sistema barrian, baina badakizue, “unean uneko akats hutsak”.

Hurrengo egunean, Bizkaiko ahaldun nagusiak emon behar izan eban arpegia, eta, barriro be, parkamena eskatu eutsen errentearen kanpainako eredu barriaren ondorioz buruhaustea euki ebezanei. Arabere gehiago, autortu be egin eban erraza izango zala esan ebena ez zana holan izan bizkaitar guztientzat.

Dana dala, dana ez zan hor amaitu. Zerga-arloko folletoi honen azken kapitulua orain dala egun gitxi bizi izan genduan Lantikeko zuzendaria kargutik kendu ebenean. Foru Gobernuak ukatu egiten dau kargutik kentzea errenta-sistema emoten dabilen arazoakaz zerikusia daukala. Egia esan, honetan, Foru Gobernuak zentzunduna da diskursoan, milaka eta milaka akats egotea Foru Aldundiarentzat unean uneko akatsak baino ez badira, azaldu egiten dalako Lantikeko zuzendaria kargutik kentzea halanbehar hutsa izatea.

Horren ondorioz, Foru Gobernuak jaun-androk, ez errurik bota ereduari, erabat hobetu daiteke-eta. Arazoa ez da eredu, eta atzo be esan neutsun batzordean, kudeaketea da. Segurtasun-falta handiko kanpaina izan da, eta oso akats handiaz abian jarritako ereduaren josturak edegi dauz, hausu dauz: ez zan erkatu, horixe bera jazo zan. Hondamendi-maila horren aurrean, horixe bera jazo dalako, guk proponidu egin dogu beharrezkoa dala urtenbide batzuk abian jartea. Egin zan azken Ogasun Batzordean egin genduan, eta euretako asko bat datoz gaur Elkarrekin Bizkaia taldeak proponiduten dauzanakaz. Aldatzeko zuzenketa parziala aurkeztu dogu. Eskertuko neuskizu erantzunen txandan zehaztuko bazeunsku zuretzat zentzunezkoak diran, ekarpen ontzat jotzen dozun. Jakina, aurrez aurreko arretea hobetu beharra dago. Zer esanik ez, jente gehiago kontratau beharra dago, nik neuk, uste dot, hasiera-hasieratik ondo ulertu neban erabagiagaz bateratzen dan botila-lepoa dagoalako. Atzo, Instituzionaleko foru-diputaduak bere erantzun-txandan ñabartu eban edo argitzen ahalegindu zan, baina, tira. Azkenean, aurrez aurreko eredurik ez egotea da asmoa, baina bizkaitarrek euki egin gura dabe, eta hortxe dago arazoa. Ganbera honetan, erabagi egin behar dogu Foru Gobernuak hartu dauan erabagia babesten dogun edo jenteari entzuten deusagun.

Hori dala eta, jenteak abagune hori eta aukera hori euki gura dau, eta, horretarako, personak kontratau behar dira. Ganera, oso preminazkoa dan gaia konpontzeko dagoan epealdia oso laburra danez, uste dogu lan pribadua be baimentzeko ñabardurea zentzunezkoa izan daitekeala testuinguru honetan.

Leku gehiago, gune gehiago ezarri behar dira, bankuko erakundeen bidez edo aurrez aurreko arretarako zerbitzu hori emon ahal izateko beste leku batzuk atonduta. Era berean, uste dogu errentearen kanpaina aurkezteko epealdia luzatu beharra dagoala. Dana dala, honako hauxe esango deust baten batek: “tira, ba, oraingoan hilebete gehiago daukazu, horraitino”. Bai, baina hilebete horretan daukaguzan akatsen ondorioz, ez da baliozkoa izan herritarrentzat, ez da baliozkoa izan zergadunentzat.

Baten batek be esan dau baten baino gehiagotan berba egin dogula gai honi buruz. Atzo be aitatu zan batzordean, eta beste hainbestetan berba egiten segidu beharko dogu, kanpaina ez dalako bagilaren amaierara arte amaituko. Gure eretziz, luzatu egin behar da, marjina handiagoa egon behar da eta hartu diran erabagi guztiak aztertu behar dira, baita bialdu diran zirriborroak be, oso garrantzitsua dan zeozer bermatzeko eta oso garrantzitsua dan zeozer berreskuratzeko: segurtasuna bermatzea eta instituzinoak, Bizkaiko Foru Aldundiak, bidean itxi dauan sinisgarritasuna jo eta ke berreskuratzen ahalegintzea.

Azken batean, Elkarrekin Bizkaia taldeak egindakoei erantsitako proposamen horreek egiten genduzanean, honako hauxe geunkan helburu: errenta-kanpaina hau salbetan ahalegintzea, zelan edo halan salbetea, sinisgarritasuna salbetea eta zergadun bizkaitarren segurtasun juridikoa ahal danik eta gehien salbetea, errentearen kanpaina salbetan ahalegintzea, eta, amaitzeaz nago, agirikoa dalako gure lurraldeko errealidade soziologikoa kontuan hartu barik egin dana. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikide jaun-androk, batzarkide jaun-androk. Bai, holantxe da, barriro be, eta, bestetik, beharrezkoak diran aldi guztietan, oso mediatikoa izan dan 2020ko errentearen kanpainearen garapenari buruzko erespideak daukaguz berbabide. Batetik, Elkarrekin Podemos taldeak, aurkeztutako mozinoa justifiketan daben aurrekarietan, aurkezteko modurako aldaketa handia, arretarako eredu barriak eta tresnako akatsak azaltzen dauz. Emon dauzan azalpen bietan, argi eta garbi geratu da nondik doan bere ideia.

Tira, ba, esan egingo deusuet ez dala aurkezteko modua bakarrik aldatu, formea aldatu dala eta eukia be aldatu dala. Autolikidazinarako erdua itxi da albo batera, eta, bertan, nik, zergadun moduan, euki badaukadazan datuak emoten dodaz, Ogasunak berak zergaduetan emon deustan informazioaren bidez, ganera. Datu horreen bidez, atalez atal, laukiz lauki beteten noa, eta, zeuon argota erabilita, esan behar dot, akatsak topetan dodaz, topetan nebazan. Egia esan, ez ziran akatsak. Egia esan, akatsak barik, nik neuk bete behar neban informazioa egon eitekean; berbarako, salerosketak edo etxebizitzako inbersinoak edo zaharbarrikuntzak edo alogeragaitiko kenkariak edo hipoteken amortizazioak be bai.

Gorabehera tekniko horreek egozan? Bai. Zuzendu egiten ziran? Bai. Gaur egun zuzendu diran lez. Izan be, onartu egin da zuzentzen joan dirala eta txertatzen eta tresna hori hobetzen eta, horrezaz ganera, erabiltzaileek eurek edo aholkularitzako zein zerga-arloko kudeaketako profesionalak be egindako iradokizunak kontuan hartzen.

Jakina, gauza horreek ez eben urteten zirkulu hurbilenetik, hau isilpean geratzen zan, ez ziran mediatikoak eta, horren ondorioz, ez ziran kaotikoak edo ez ziran ardurabakoak edo ez ziran bat-batekoak. Tira, ez ziran hiperbolera ailegetan. Hona hemen egoera: “neuk prestetan dot” eredutik “neuk jaten dot” eredura igaro gara, baina “neuk jaten dot” esan dot, ez “neuk irunsten dot”, hau ez dalako irunstea. Agirikoa danez, proposamena, ondo azaldu dozunez, ikusi egin daiteke, irakurri egin daiteke, kontsultau egin daiteke, bai telefonoz, bai webgunean, baita aurrez aurre be, holantxe egin ezkerro, eta, edozelan be, aldatu egin daiteke.

Nire autolikidazinoaren eredu horretatik, danontzat egindakora igaro gara, baina danontzat, ez bakarrik 2019. urtean errentearen proposamena gitxi gorabehera oro har jasoten eban %50 horrentzat, hain zuzen be. Ganera, egia esan, ika-mikea be sorrarazoten eban, jakina, baina ika-mika hori ez zan komunikabideetara ailegetan, baina ika-mikarik egon baegoan. Zergaitik? Batzuei eginda ailegetan jakelako; eta beste batzuei, ez. Eginda jasoten ez ebanak “niri zergaitik ez?” inoan, eta “ni zergaitik joan behar naz bankura errenta-autorpena egiten?”. Tira, hortxe gagoz.

Ereduari jagokonez, ezin dogu ukatu persona batzuek ez daukiena teknologiarik edo teknologiaz ondo moldatzen ez dirana edo eurentzat beste batzuentzat baizen erraza ez dana webgunea edo telefono bidezko aplikazioak erabiltea... Ogasunak, ostera, badauka arretarik. Gaur egun, oker ez banago, aurrez aurreko arretarako 10 bulego daukaz gitxienez, eta, bertan, badago, edozelan be aurretiazko hitzorduaren bidez, egia esan, aurretiazko hitzordua danetarako behar da gaur egun, aurretiazko hitzordua ez da inoiz desagertuko, eta badago bertara jotetik. Ez dot uste inori betoa jarri jakonik. Egia da badagoana zeozelako irazkia jarretik, baina ezarri daitekean irazkia garatu beharreko gaia zein dan itantzeko baino ez da. Badagoala hobetzerik? Bai, seguruenik, bai.

Joan dan hilaren 30ean, geure Ogasun Batzordean, zeozelako erantzunbeharra eskatzen genduan, kalibre lodiko barbarik erabili ez eitean; esate baterako, anabasea, kontrol faltea edo ardurabakokeria, administrazioek herritarren aurrean egindako lana deabruzteko. Ondo dago kritiketea, jakina, fiskalizetea, zer esanik ez, erantzunbeharrez jokatzeko dalako kontrol politikoa eta kritika politikoa. Halanda be, erantzunbeharrez jokatu ahal izatea be bada, egokia danean eta, orain bada egokia, administrazioaren jarduketeari balioa emotea. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Álvarez Castrejón. Señor López Odriozola, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Buenos días. Muchas gracias, señora Presidenta. Juntero/as, buenos días a todos/as.

Está claro que esta campaña de la renta está dando mucho de qué hablar. En general, la recaudación en la CAE, según las últimas noticias, ha aumentado un 10%, aunque este incremento requiere una lectura en profundidad. Porque también se debe tener en cuenta la precariedad causada por la situación que había el año pasado, al inicio de la pandemia, antes de sacar conclusiones demasiado precipitadas.

Sin embargo, esa noticia ha coincidido con los problemas que acarrea esta campaña de la renta, la moción que sometemos a debate en el día de hoy es un reflejo de ello, ha dado pie a esto.

En el día de hoy, el tema directo del debate no son los principios ordinarios: la generalidad, la capacidad económica, la progresividad, la falta de confiscación, la igualdad, la

función extrafiscal y la distribución equitativa de la carga fiscal, aunque sobre la mesa siempre tendremos acuerdos y desacuerdos.

En el día de hoy, el tema de debate son otros principios de la función pública, en esta moción derivada de una interpelación. Los principios de simplicidad, claridad y cercanía a la ciudadanía. Conceptualmente, estos principios no suponen una gran novedad, y, desde la perspectiva de la interpretación, deben ser unos principios de escasa complejidad. Sin embargo, el de la cercanía siempre crea debate, puesto que puede causar diversas consideraciones e incongruencias, según el caso.

Sinpletasun administratiboaren printzipioak nabarmendu egiten dau administrazino publikoentzat, eta, zentzun honetan, kasuan kasuko zerga-administrazinoarentzat derrigorrezkoa dala zergadunei behar besteko erraztasunak emotea euren zerga-betebeharrei aurre egiteko orduan. Batetik, abian jarritako metodoak egiaztautako konplexutasuna eta, bestetik, telefono-lineak ganezka egotea ez da erraztasunaren adibidea izan.

Argitasunaren printzipioari jagokonez, esan be ezin dogu egin sistema argia izan danik horren inguruko ulerkuntzeari begira, okerreko autorpenakaitik ez eze, herritarrak oso konplexua dala uste daben sistemeagaitik be badiralako kexu.

Egoera horreen, bien ondorioz, zergadun askorentzat tamalgarria bada be, ez da hirugarren printzipioa bete, eta, horren ondorioz, urruntasun-sentipena, ez hurbiltasunarena, sortu da Bizkaiko Foru Ogasunari jagokonez.

Por tanto, en este caso, hemos podido ver que en la campaña de este año no se ha podido cumplir ninguno de los tres. De hecho, como consecuencia del caos surgido, se ha pedido perdón a los/as contribuyentes de Bizkaia, por los problemas originados por el sistema de confección de la declaración de renta que la Diputación ha puesto en marcha este año. Ha sido una campaña plagada de errores. Ahora, no vamos a entrar en eso.

En cualquier caso, aunque pedir disculpas sea lo adecuado y conveniente, tal y como lo hicieron tanto el Diputado de Hacienda como el Diputado General el 27 y el 29 de abril, respectivamente, el propósito de enmienda hace creer en la propia petición. En este caso, consideramos esta moción como un propósito de enmienda. Cuando se pone en marcha un sistema como el que se ha puesto en marcha, se debe tener en cuenta si la ciudadanía está preparada para poner en marcha una iniciativa así.

- ¿Cuántas personas disponen de ordenador y/o Internet?
- Telemáticamente, ¿cuántas son capaces de llevar adelante la declaración de la renta?

En muchos casos, muchos/as ciudadanos/as tienen problemas para utilizar e instalar aplicaciones más comunes, y no confían demasiado en los sistemas no presenciales.

Las iniciativas del tipo “Konekta Zaitetz” del pasado, por ejemplo, sucedieron hace tiempo, y, además de no renovarse muchos ordenadores, tampoco se ha impulsado debidamente la alfabetización digital de la población.

Esta situación conlleva que los/as contribuyentes tengan que acudir a las asesorías especializadas, puesto que no tienen cita en las entidades financieras, tal y como sucedía en años anteriores. Lo que supone un coste para los/as declarantes.

Administrazino publikoetan sistema telematikoak abian jarri behar ez dirala esan gura dau horrek? Ez, ez dau hori esan gura. Dana dala, horretarako, aurretiazko probak

egin behar dira, herritar guztientzat abian jarri baino lehen. Proba teknikoak ez eze, erabilgarritasunari buruzkoak be egin behar dira, teknologien eta aplikazino digitalen erabileran profil desbardina daukien pertsonak osotutako laginean. Hau da, erabilerara eroso bilatzea. Holan, aurrez aurreko eta telefono bidezko arroteak ez leuke ganez egingo.

Autorpena egiten dauan jente gehiena natibo digitala ez danez, kanpainearen hasieratik jakinarazoten dagozanak lako egoerak jazoten dira.

El hecho de responder adecuadamente se ajusta a los puntos que trae esta moción:

Debe haber más personas para hacer frente a tantos problemas, y también se deben poner más recursos a disposición de las mismas. Estos recursos, además de ser de carácter técnico, también deben ser de carácter sanitario, sobre todo respecto a la atención presencial.

Estos deben ser de promoción pública, y también compartimos el segundo punto, puesto que el valor y la importancia de la función pública resultan fundamentales en esta cuestión.

A nuestro parecer, la presencialidad, respetando siempre las medidas sanitarias a adoptar y facilitando los medios para su cuidado y prevención, además de prestar ayuda a las personas que han tenido problemas en esta campaña de la renta, tanto por errores cometidos en las declaraciones como por la lejanía tecnológica, incrementaría la confianza en las instituciones públicas.

EH Bildu cree que esta moción, más allá de la autocrítica y las medidas propuestas, conlleva una mayor cercanía con la ciudadanía.

Para concluir, dicho lo dicho, EH Bildu va a votar a favor de esta moción. Muchas gracias por tomarse su tiempo para escuchar nuestra opinión.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. Señora Díaz Insausti, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as los/as apoderados/as.

El pasado día 6 de abril, comenzó la Campaña de la Renta de 2020, con la previsión de que concluyera el día 30 de junio.

Para empezar, nos parece importante recordar que este año se ha llevado a cabo un notable cambio en la Campaña de la Renta. Se ha modificado la Norma Foral del IRPF, donde de un modelo de autoliquidación, es decir, de ser la persona contribuyente la encargada de liquidar el impuesto, hemos pasado a un modelo de declaración en el que se libera a la persona contribuyente de esa obligación. Ahora, la única obligación de la persona contribuyente consiste en declarar los datos; y, la de la Hacienda Foral, realizar los cálculos correctos con esos datos.

Con eso, el objetivo de Hacienda consiste en ayudar a las personas contribuyentes a presentar la declaración debidamente, para realizarla de la manera más sencilla y cómoda.

Precisamente, en esta campaña, para la ciudadanía de Bizkaia, para que comprenda los cambios que se han realizado en los servicios de ayuda para la confección de la declaración de la renta, es imprescindible que tengan en cuenta este cambio de modelo.

Ha habido errores en la aplicación, y no se han ocultado por parte de Hacienda. Los ha reconocido públicamente, ha intentado solventarlos lo más rápido posible y ha manifestado que actuará de oficio, para que nadie resulte perjudicado.

A su vez, también quiero recordar que, tanto en la rueda de prensa como en el Pleno de Control, así como en la Comisión de Hacienda y Finanzas, el señor Diputado pidió disculpas por esos errores cometidos y por los inconvenientes causados.

Tal y como el señor Iruarrizaga expresó en el Pleno de Control, se han identificado 12 errores de cálculo. Para conocer el alcance de esos errores para, al menos, tener una idea aproximada, un dato: Hacienda ha enviado casi un millón de propuestas y solo ha habido 30.000 afectados/as.

Por otro lado, respecto a la atención, se ha reforzado la ayuda telefónica para esta campaña. En total, hay 290 personas en el Servicio de Ayuda. En total, el promedio de llamadas recibidas en un día, tomando como referencia el día 17 de mayo, es casi de 10.000, y, desde el comienzo de la campaña hasta el día 17 de mayo, hasta el día de ayer, se han recibido 298.658 atenciones telefónicas en total.

Por tanto, no es cierto que la campaña solo se puede realizar por Internet, también se puede hacer cualquier trámite por teléfono. Gracias a este nuevo modelo, precisamente, no es necesario acudir físicamente a una oficina, y, aunque parezca mentira, mucha gente ha agradecido esa facilidad.

Deiakaz lotutako beste datu bat. Egia da lehenengo asteetan hainbat eta hainbat dei sartu ziranez, ezin izan zirana danak unean bertan erantzun, baina, apurka-apurka, badoa erantzun bako dei horreen kopurua murrizten. Era berean, ezin konta ahala komunikazinoaren ondorioz lehenengo aste horreetan erantzunik jasoterik euki ez eben zergadun horreei guztiei deitzen hasi jake Aldundia, eta 3.703 dei egin dira daborduko.

Zergadunak era bateko eta besteko gaietarako arretea eskatzen dau, besteak beste: zergeari buruzko edo autorpeneko izapideren bati buruzko zalantzea kontsultetako, telefonoz erantzuten deusanak badaukalako gai horreek ezelako arazo barik argitzerik, edo bere autorpena egiaztetako, Internet bidez eskuratzeko aukerarik euki ez daualako. Orduan, telefonoz erantzuten deusanak etxera paperean bialtzea edo e-postaz bialtzea be eskaintzen deutso. Ostantzean, bere autorpenean agiriren bat eransteko be bai. Orduan, telefonoz erantzuten deusanak honako hauxe esango deutso: batetik, agiri hori eranstea beharrezkoa dan eta, holan bada, bide telematikoen bitartez bialtzerik ez badago, edozein foru-bulegotako erregistrora joan daitekean. Halanda be, baten batek telefonoz azaltzen jakona edo egin beharreko izapidea ulertzen ez badau, aurrez aurreko hitzordua eskaintzen jake Aldundiak bere etxetik hurbilen daukan bulegoan. Aurrez aurreko hitzordua behar izan daben guztiei ezelako arazo barik eskaini jake, eta hori holantxe izango da kanpainaren amaierara arte.

Beste datu bat. Batez beste, aurrez aurreko 85 arreta egiten dagoz eguneko. Danetara, maiatzaren 17rako, 2.557 laguni emon jake aurrez aurreko arretea. Ganera, 225 autorpen aurkeztu dira holan, aurrez aurre.

Maiatzaren 17an, 330.000 errenta-autorpen baino gehiago aurkeztu dira danetara, eta gehienak, ia-ia %89, webgunearen edo aplikazinoaren bidez aurkeztu dira; %11 baino gehixeago, telefonoz; eta %0,1 baino ez, aurrez aurre, Aldundiko bulegoetan; eta ez aurrez aurreko hitzordurik emoten ez dabilzalako. Aurreko kanpainako datuei erreparau ezkeru,

ikusi egiten da aurrez aurre aurkeztutako autorpenen ehunekoak ez dala 0,1 horretatik lar aldentzen.

2019ko errentako zergadunentzako arretea telematikoa izan zan erabat: Ogasunak egindako 437.000 arretetatik baino gehixeagotik, danetara, %90 egin ziran telefonoz; %7, Internet bidez; eta %3, bulegoetan. Likidazioa aurkezteko kanalei jagokenez, %55 onartu ziran, Ogasunaren proposamena onartzean; zergadunen %33k Internet bidez autolikidatu eben errentea; eta %11k banku-erakundeetara jo eben.

Horren guztiorren bidez, errentearen kanpaina honen errealitatea erkatu eta erakutsi gura dogu. Eredua aldatzeko, danok egokitu behar gara, zergadunok nahiz administrazioa.

Ogasunak azterketea eta etenbako hobekuntzea egiten dauz, eta igarritako eta zergadunek eurek jakinarazotako edozein hobekuntza-arlotan lan egiten dau horretarako. Ganera, diputaduak joan dan hilebeteko Kontrolerako Osoko Batzarrean baieztu eban lez, kanpaina amaitutakoan, azterketa sakona egingo da, ahuleziak zein indarrak zehazteko eta, holan, zerbitzua bera etorkizuneko kanpainetarako hobetzeko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, ekimenaren goiburua irakurriko deusuet, irakurri ez dozuela, ez dozuela uste dot-eta:

“Errenta-autorpena egiteko orduan herritarrek Foru Ogasunagaz zelan jarri gura daben hartu-emonetan erabagiteko daukien eskubidea benetan bermatzeko neurriak”.

Gure berbabidea ez da zuok guri autolikidazinetik autorpenera igaro behar dan edo akats asko egon diran azaltzea. Horri buruz berba egin dogu daborduko. Ni neu ez nabil akatsei buruz berba egiten, arretarako kanalei buruz nabilelako berbetan. Itauna erraza da: zuok behar besteko konpromisoa hartuko dozue herritarraz aurrez aurreko arretea eukiko dabena bermatzeko, holantxe eskatzen dabenean? Edo maila desbardineko ginkanadun protokoloa eukiko dozue oraindokarren eta, bertan, premina hori daukiena egiazta beharko dabe personek? Izan be, ez dau personeak baloretan, telefono bidez erantzuten dauan agenteak baloretan daualako. Hauxe baloretan dau: “tira, aurrez aurreko arretea eskatu dozu. Ondo da. Konforme. Ikusi daigun. Balorau egingo dot preminea behar baizen preminazkoa dan. Neure koordinatzaileari emongo deusat horren barri. Ea nire koordinatzaileak zelan baloretan dauan eskaera hori”.

Hori ez da aurrez aurreko arretea erraztea. Hori aurrez aurreko arretari oztopoak jartea da. Horixe daukagu berbabide: Aldundiak konpromiso argi baizen irmea hartu behar dau, herritarrek holantxe eskatzen badabe, aurrez aurreko arretea egongo dana bermatzeko. Ezin errazagoa da, horraitino.

Fernández andrea, parkatu, baina lehen ez dot astirik euki. Zuk aurkezten zenduan zuzenketari jagokonez, tira, lehenengo puntuari jagokonez, guretzat beharrezkoa da aurrez aurreko nahiz telefono bidezko arretarako beharginen taldea kontratazino publikoaren esparruan indartzea.



Gure eretxiz, ganera, azkar egin daiteke, Aldundiak lan-boltsa bana daukalako hori egin ahal izateko. Horrezaz ganera, beharginen lan-baldintzak bermatzeko modua be bada, eta, ganera, Zugaztelen azpikontratearen bidez euki dogun esperientziari erreparetan badeutsagu, gurago dogu egoera bera barriro ez errepliketea, baina, batez be, Aldundiak lan-baldintzen ganeko kontrola galdu daualako, persona horreek bizi daben egoerearen ganekoa. Ez, ez da kanporatu beharreko eginkizuna, ezta erantzunbeharra be, berezko eginkizuna dalako, Foru Aldundiarena berarena dala uste dogulako, bere dimentsino guztietan, errentearen kanpainari buruz berba egiten dogunean; eta, arretarako beharginei jagokenez, bardin-bardin.

Bestetik, zure bigarren zuzenketa, bai, kontuan hartuko geunke, uste dogulako zergadunek zailtasun asko euki dabezala eta oraindokarren be badaukiezala. Hori dala eta, guretzat beharrezkoa da aurkezpenarako epeak luzatzea. Halanda ze, zure proposamenaren bigarren zatia sartzea proponiduko neuskizu, holantxe egitea egoki ikusten badozue. Lehenengo puntua ez, ostera.

Amaitzeko, eskatu egin gura neuskizue herritarrakaz enpatizetako eta sensibilitate handixeagoa eukiteko. Niretzat oso kezagarria da Foru Aldundiak ezelako sensibilitaderik ez erakustea herritarren preminen eta eskaeren aurrean. Plataformek esan deusie. Erretiraduen era bateko eta besteko plataformak sarbideagaitik edo ezagutzeagaitik be eten digitalaren inguruan daukiezan zailtasunen barri emoten dabilz. Egunero bialdu dabez kexak, bialdu dabez, zergadunek Foru Ogasunari bialdu deusiez, eta uste dot merezidu dabela euren eskaerak kontuan hartzea eta Aldundiak erantzun argia emotea.

Ganera, nik neuk ez dakit hau zelan txertatzen dan erantzun-eredu honetan, zuok defendiduten ei dozuen gobernantza-ereduan, herritarrakandik hur eta hurbil dagoan Gobernu horretan. Nik neuk ez dot kolokan jarriko administrazioak digitalizazio-prozesu hori abian jarri behar dauanik. Ni neu horren alde nago, eta beharrezkoa dala uste dot. Dana dala, nire ustetan, beharrezkoa be bada digitalizazio-prozesu horren abiadea gure herritarren preminetara eta errealidadera egokitzea. Nire aldetik, besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Foru Gobernuari eusten deusien taldeen esanetan, kanpaina hau oso mediatikoa izan da, baita tamalgarria eta beste gauza gehiago be. Merezimentu hori ez da oposizioarena, Foru Gobernuaren merezimentua baino ez dalako. Horrezaz ganera, egin dan kudeaketaren ondorioz, hain zuzen be, komunikabideetan eta informazio-bideetan hainbat eta hainbat orrialde euki eta hainbat eta hainbat minutu bete dauzanez, badinotsut nik guk geuk gustuko geunkeala holako kalifikazioakaz bat egin dogun guztion merezimentua izatea, hau da, oposizio talde politikook, zerga-aholkulariak eta zergadunen giza taldea. Guzti-guztiak, nahi-ta oso giza talde desbardinak, era guztietakoak, oso heterogeneoak izan, bat datoz tribuna honetan adierazo dan horregaz, hau da, hiperbolea, larkeria. Horixe bera da Gobernu honi eusten deusien talde politikoeke egiten daben irakurketea.

Gaur, tribunan, barrikuntzea egon da errentearen kanpaina honegaz jazoten danari jagokenez, orain zergadunek ez dabelako, ez dogulako behar beste baloretan aurton autorpena egiteko emon deuskuen aukerea. Okerreko datuak bialtzen deuskuez, edo ez deuskue daturik bialtzen, geuk aldatu daiguzan edo sartu daiguzan, hain zuzen be. Edozelan be, horrezaz

ganera, badago beste bereizgarritasunik, inoiz baino proaktiboagoak izatea gura dozelako eta, horrezaz ganera, ezin dogulako ikusi guk geuk sartzen doguzan datu horien guztien behin betiko kalkulurako erabilten dan formula matematikoa.

Horra hor gaurko barrikuntzea tribuna honetan: edozer, ez autortzeko. Edozer, arazoa eredu ez dana ez autortzeko, erkatu barik egin dan kudeaketea dalako arazoa eta Bizkaiko zergadunak akuri moduan erabili dabezalako errenta-autorpena aurkezteko eredu barri honetan. Zuon esanetan, aurrez aurreko bidea zabalik dago herritar guztientzat. Tira, ba, zuok aurrez aurreko bidea erabili ahal izateko saialdia egin ez dozelako izango da. Izan be, hauxe dinozu: “ez, ez dot uste inori betoa jarri jakonik”. Tira, ez dot uste erabili beharreko terminoa horixe danik. Ahal danik eta eragozpen gehienak jarten dira, Bizkaiko zergadunek errenta-autorpena aurrez aurreko hitzorduaren bidez aurkezteko aukerarik euki ez daien.

Jakina, neuk baino lehen berba egin dauan taldeak be azaldu dau betoa ez dala, protokoloa baino. Izan be, horixe da zelan egiten dan azaltzeko modu diplomatikoena. Halanda ze, norberak deitu egiten dau, telefonoa hartzen dauan lehenengoak gure egoera aztertzen dau eta, gero, esan dan lez, erantzuten deuskun persona horren koordinatzaileak bigarren biderrez baloretan gaitu. Gero, irazki bi gitxi izango balira lez, hirugarren irazkia dago, eta, bertan, beste ebaluazino bat egiten da. Orduan, azkenean, azertu egiten da zergadun hori, bere zerga-arloko jakitateakaitik, bere autorpenaren zailtasunagaitik, aurrez aurreko hitzorduaren bidez egiteko onuraduna izan daitekean. Egon badagoala aurrez aurre egiteko konpromisorik? Badago holako aukerarik, baina praktikan benetan ez egitea da arazoa.

Niretzat oso harrigarria izan da Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak ganerako batzarkideok ez daukagun informazioa eukitea. Gero esango deuskuzu ganerakook, bardintasunez eta baldintza berberetan, non eskuratu daikeguzan zuk tribuna honetan emon dozuzan datu horreek guztiak. Dana dala, niretzat oso garrantzitsua izan dan bat aitatu dozu.

Horrezaz ganera, segurtasun osoz aitatu dozu, azterketa zehatzik mereziduko ez baleu lez. Zure esanetan, errenta-autorpenen %0,1 aurrez aurre aurkeztu dira. Datu hori bat dator aurreko ekitaldiei buruz daukazunagaz. Horixe bera esan dozu. Jenteak bankuetako bulegoetan egiten ebazan autorpenak zelakoak dira zuretzat: telematikoak edo aurrez aurrekoak? Izan be, bide hori trabau bada, kendu bada, agirikoa da zuk egin dozun erkaketa hori bat ez datorrena errenta-kanpainetan gauzak zelan jazo ziran islatzen dauan errealidadeagaz. Ez nabil aurreko urteari buruz berbetan, ezta aurrekoari buruz be, ezta aurrekoari buruz be, igaz be osasun-inguruabar berezi-berezia geunkalako. Hauxe esan dozu, “tira, akats batzuk izan dira...”. 30.000, hara bestea!, Bilbokoak. Zuk akats gitxi dirala uste badozu... Gitxienez, 30.000, guk dakigula, edo horixe da emon dan datua. Horixe da dakiguna. Dana dala, zure ustetan, 30.000 akats gitxi badira, horregaz be ez nago ados.

Atzo, beste batzuetan eta beste agerraldi batzuetan eskaini ez ziran informazino batzuk aurreratu zeunskuezan, baina datu bat ez dozue inondik inora emon. Oposizionokook, danok, jakin egin gura dogu Bizkaiko zenbat zergadunek aurkeztu daben errenta-autorpena zerga-aholkulariren baten bitartez.

Ea gaur eztabaida honetatik urteten dogunean oso garrantzitsua dan datu baten barri daukagun, bizkaitar askok bizi daben egoerearen adierazgarri da-eta. Beharbada, ez daukie zerga-arloko jakitaterik, ez daukie jakintza informatikorik, ez daukie Internetik, ez daukie ordenagailurik edo ez daukie seme-alabarik kudeaketa hori egiten lagundu ahal deutesnik, askorentzat ezinezkoa dala kontuan hartuta.

Elkarrekin Bizkaia taldeak gure zuzenketei buruz egin dauan balorazioa... Hara, guretzat honetan aurrera egitea da garrantzitsuena, eta ez gara maximoen jarreretara joango. Halanda ze, zuon proposamena babestuko dogu, zeuk aitatu dozun txertaketea kontuan

hartuta, uste dogulako gai hau interes orokorrekoa dala eta uste dogulako ikuspegi zabala euki behar dala bertan...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, vaya terminando, por favor.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Uste dot holantxe islatu beharra dagoala.

Amaitzeko, adierazo egin gura dot nire eretziz ez dala larkeria eredu honen ezarpena porrota izan dala esatea eta, zer esanik ez, berrikuspen sakona egin beharko dala. Edozelan be, berrikuspen hori baino lehen, erabagi asko hartu behar dira, bizkaitarrei segurtasun juridikoa bermatzeko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, buenos días de nuevo.

De Madariaga andrea, ez euki ezelako zalantzarik, erabateko enpatia erakusten deusdalako, deutsegulako zailtasunen bat euki daben guztiei, aurrez aurreko arretea edo hitzordua lortzeko orduan bidebakokeriaren bat jasan dabela uste badabe. Egoera horretan egon daitekezanek eta zailtasun handienak daukiezanek aurrez aurreko hitzorduak ahal danik eta eragozpen txikienaz eta erraztasun handienaz eskuratzeko aukerea eukitea da gure asmoa. Barriro dinot, onartuko deustazue, emon egiten dira. Hori bai, badago protokolo hori, irazki hori, dana dalako hori, zeuok gura dozuen lez, neuk be protokolutxua dala esan daiket, bertara zuzenean zergaitik joten daben jakiteko eta, beharbada, bidaia aurretzeko. Agian, persona batzuk pozaren pozez dagoz euren historia azaldu daikielako Ogasunean arretea emoten deusden personearen aurrean. Sinistu eidazue. Persona askok horixe egiten dabe, holantxe doaz, holantxe berba egiten deutse eukien ondasun-erkidego horri buruz edo anaiagaz eukien eta saltzea erabagi daben etxebizitza hareri buruz. Funtzionarioei azaltzen jakezan banakako probak. Ez da kasua, zailtasun hori euki daben personak egongo dira, eta, bertotik, geure enpatia handiena adierazoten deutsegu.

Bestetik, esan egin behar deusut gogoan euki behar dozula orain dala hilebete batzuk zuok ia-ia aurrekontu barik itxi zenduela Zugaztel, hau da, orain zenbateko ekonomikoetan ekarpen gehiago egin behar badira, aurrera, bada.

Tira, Fernández andrea, egiak zuri izenburu ona zapuztu ez deizula. Hau Washington Posten lehenengo orrialdean, ezta?, baina ezin hobeto joatzu. Nik ez dot datuei buruz berba egingo, benetan, ez dot datuei buruz berba egingo. Ez dot 330.000 autorpenei buruz berba egingo. Batzordean, hilaren 30ean, 143.000ri buruz berba egiten genduan, baina, gaur, 330.000ri buruz. Itzel!

Hobeto goazala? Ziur holantxe dana. Askoz hobeto goazala? Baita. 290 lagun dagozala arretan? Baita be. Baliabide guztiak gehienekoak dirala? Zalantza izpirik be ez euki. Ah! Hori bai, datuak esanda edo kontuan hartuta, goazen, bada, izenburuaren bila. Lorcaren esanetan, “zure maitetasunagaitik, min daukat aidean, bihotzean eta kapelan”. Oso polita zan, oso polit geratzen da, baina, jakina, baina ez zan egia, ez zan egia, hiperbolea baino

ez zalako. Figura erretoriko horren bidez, hain zuzen be, berbabide daukagunaren aldaketak, ezaugarriak edo bereizgarritasunak darabilguz. Hiperbolea, larkeria, tamalgarria, anabasea, kontrolik eza, ardurabakokeria.

Batzuetan, barriz, hiperbole horren orde z egiazko hiperbolea, kontuan hartzean, indarbako hiperbole hori, hiperbole hori larkeriaren forma xaloa da; esate baterako, era bateko eta besteko erakundeak, plataformak, persona asko. Sustatzeko modu eraginkorraren bila ailegetan gara horra, egia esan. Orain, barriro dinot, enpatia zailtasuna euki dabenakaz.

Halanda ze, ereduak hobera egingo dau aurkezpenerako ereduak hobetu behar dan neurrian, baina, zer esanik ez, uste dot eredu hau sendotu egingo dala. Administrazioak ahal danik eta gehien araztuko dau, agirikoa danez, eta, amaiera ailegetan danean, akatsak garbitzeko aukerea eukiko dogu danok. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señor López Odriozola, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Hilebete bitan, hilebete bitik beherako epean, “ondo dabil” eta “ez da akats larririk egongo” esatetik, akatsen unean unekotasunetik igaro gara akats horreek guztiak prentsaurrekoan autortzera. Lehen esan danez eta De Madariaga batzarkideak azaldu dauanez, erantzun bako 38.000 deiri baino gehiagori buruz gabilz berbetan. Era berean, azpikontratauta dagoan telefono bidezko arreteari buruz gabilz berbetan. %50 azpikontratauta dago. Hori dala eta, funtzino publikoa oso maminbakoa da hor. Oraindokarren badago herritarren arreta barriari buruzko kexarik.

Mozino honek ez dau hain zuzenean berba egiten sistemeari buruz, askoz be gehiago berba egiten dabil herritarren arreteari begira sistemeak jarri behar dauzan baliabideei buruz. Sistemea ondo ibili daiten, baliabideak euki behar dauz, sistema hau gustukoa izan nahiz izan ez. Proposamenen guztizkoa, martiaren 31n Bizkaiko Foru Aldundiko Prentsa Sailak eskainitako datuen arabera, 906.936 proposamenekoa izan da. Apirilean, apirilaren 27an, zehatz-mehatz, prentsaurrekoan eskainitako datuen arabera, euretako 76.868k zeozelako akatsak euki dabez, hau da, %8,47k. 12 eratako akatsak euki dabez, lehen aitatu diran 12 eratako akatsak. 12 eratako akatsak. Euretako baten bat badakigu zein dan, eta, tamalgarria da benetan: hildakoei bialdutako gutunak; zergadunak ez diranei bialdutako gutunak; ez daukanari bigarren abizena jarrea, 27.000ri, kasu honetan; jenteari autortzeko betebeharrak daukala jakinarazotea, ez daukanean, 29.000ri; autortzeko betebeharrak ez eukiela ez jakinarazotea, 19.000ri baino gehiagori. Eskaini jakuzan zenbakiak ia-ia bitu egiten dirala esaten gabilz.

Arazoa proposamenetik etorri da, eta bikotxa izan da. Batetik, bere sasoiari esan zan lez, 8.975 kalkulu-arau ezarri dira, eta 709 milioi datu baino gehiago erabili dira. Kalkulu-arau bakotzak 26 aldagai edo zati darabilz batez beste, eta arau konplexuenak 439 darabilz. Sistemea konplexua da, baina sistema guztiek, algoritmo guztiek akatsak euki daiekiz. Gure eretxiz, era bateko eta besteko biztanle-laginen bidez probak egin ez izana da arazo larriena, lehenengo txandan azaldu dan lez, proponidutako autorpenaren kudeaketan bertan eraginkorra zan ikusteko.

Horren guztiorren ondorioz, gero, tsunamia egon da, benetako tsunamia izan dalako: itaunak, galderak, telefono-deiak, herritarrek eskatutako arretea. Horrezaz ganera, euren autorpena modu telematikoan kudeatzean jenteari zailtasunak euki dauzala kontuan

hartzen badogu, ikusi egiten dogu kaltetuek sare sozialen, herritarren plataformen edo beste era bateko ekimenen bidez salatu dabela. Ganera, akatsak ez eze, erantzuteko atzerapena be salatu dabe.

Mozino honek horixe dauka berbabide: Aldundiak erantzuteko daukazan denporak laburtzea.

Al hilo de lo cual, no resulta insensato plantear debidamente también el final de la campaña, si vemos que los problemas se dilatan. Aún no ha terminado la campaña, la previsión es que finalice en junio, pero tendremos que ver si esta situación lo permite. Asimismo, no se deberían solo tener en cuenta las declaraciones que aún están pendientes, sino que también las que por falta de experiencia se han confeccionado, se han confeccionado telemáticamente como se ha podido, en caso de que existiera la posibilidad de corregirlas, también deberíamos facilitar esas correcciones. En muchos casos, se ha debido a la falta de experiencia. De cara a la campaña del año que viene, respecto a la tecnología digital, pruebas realizadas con el personal en torno a la ciudadanía de distintos perfiles de uso, para, antes de poner algo en marcha de forma generalizada, realizar un mayor control de los algoritmos que se utilizan para la confección de propuestas de declaración y evitar errores. Más recursos, sobre todo para afrontar ese tipo de situaciones, y, cuando hablamos de recursos, nos referimos a las personas. Situamos a las personas en el epicentro. EH Bildu tiende su mano a quien lo desee, para afrontar esos problemas, para hacer frente conjuntamente a esos problemas que están surgiendo este año. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. Para concluir con el debate, señora Díaz Insausti, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Lehenengo eta behin, bai, De Madariaga andrea, zure mozinoa irakurri dogu, bai, eta ez da egia kanpaina anabasea dana, ezta zergadunen artean segurtasun faltea sortzen dagoana be.

Aurreko agerraldian esan dodanez, egia da akatsak egozana, eta akats horreek ez dira ostendu, baina, garrantzitsuena, konpontzen joan diran akatsak dira, eta kanpaina kaotikoa dala esatea ez dator bat errealidadeagaz.

Datuek berez berba egiten dabe. Kanpainako une honetan, esan danez, 330.000 autorpen baino gehiago aurkeztu dira daborduko, eta gehienak Internet bidez edo aplikazioaren bidez aurkeztu dira. Ganera, aurrez aurrekoak Aldundiko bulegoetan egindakoak dirala esan beharra dago.

Esan danez, aurreko kanpainan Ogasunak likidazio-proposamena bialdu eutsen zergadunen %55i, eta, eredu barri honen bitartez, zergadun guztiei egin jake proposamen hori, baina, jakina, Ogasunak zergadun horreei buruz daukazan datuak kontuan hartu dira beti.

Hain zuzen be, horretxek justifiketan dau gaur egun bankuetako bulegoak beharrezkoak ez izatea. Bankuetako bulegoak Ogasunaren zirriborroa jasoten ez eben zergadunentzat egozan, baina aurton zergadunek, zergadun guztiek zirriborroa jasoten dabenez, orain zerbitzu hori ez da zentzuzkoa.

Izan be, igazko kanpainan, 315.000 autorpen baino gehiago aurkeztu ziran Renta Etxean zerbitzuaren bidez; 200.000 inguru, Internet bidez; eta 63.000, bankuetako

bulegoetan. Horrezaz ganera, epea luzatzea be aitatu da. Era berean, eredu-aldaketaren ondorioz be, kanpaina hilebete aurreratu danez, hilebete bat gehiago iraungo dau. Lehen, maiatzean hasten zan, eta bagilera arte irauten eban. Oraingoan, barriz, hilebete lehenago hasi da.

Kanpaina aurreratu danez, era berean, itzulketak be aurreratu dira, eta guretzat horixe bera da, hain zuzen be, 2020ko Errentearen kanpaina honetako datua. Maiatzaren 14rako, 213 milioi euro baino gehiago itzuli jakez 200.000 laguni baino gehiagori.

Aurrez aurreko hitzorduen gaiari jagokonez, askotan errepikau da, eta ozenago esan daiteke, baina ez argiago, aurrez aurreko arretea behar dauan zergadun bakar bat be ez dala geratuko aurrez aurreko hitzordu hori euki barik.

Herritarrek administrazioagaz zelan jarri gura daben hartu-emonetan erabagiteko daukiezan eskubideak be aitatu dira. Honako hauxe adierazoten da Administrazio Prozedureari buruzko Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren 2. puntuan, eta berbaz berba irakurriko dot: “hurrengo jarduketak eta prozedurak euren arautegi zehatzaren bidez arautuko dira; eta, era osogarrian, lege honetan xedatutakoaren bitartez”. Ganera, a) idatz-zatian aitatzen dira aduanetako zergen arloan tributuetan ezarri beharreko jarduketak eta prozedurak.

Halanda be, Ogasuna, Alderdi Sozialistako kideak aitatu dauanez, horren barri emon ez dan arren, alkarte batzuekatz batzartu da, Helduak alkarteagaz, berbarako, zer premia eta zailtasun daukiezan jakiteko eta, holan, zerbitzu hori hobetzeko.

Horrezaz ganera, esan dozuenez, harri eta zur gagoz oposizionoko talde batzuen koherentzia falteagaitik, batetik, jentearen arretea indartzeko eskatzen dabelako eta, bestetik, aurrekontuaren izapideetan zuzenketak aurkezten dabezalako Lantiken nahiz Zugaztelen kontu-sailak murrizteko, zeregin hori egiten dabenak diranean, hain zuzen be.

Zerga-arloko aholkulariei jagokenez, Aldundiak hasieratik landu dauz euren lana errazteko tresnak, eta, horretarako, aplikazioaren erabilerea hobetzen daben aldaketa-iradokizunak hartu dauz kontuan. Barriro dinot, nahi-ta jentaurrean jakinarazo ez diran, Ogasunak bilerak egin dauz zerga-arloko aholkulariakaz, Ekonomialarien Alkargoagaz, Abogaduen Alkargoagaz..., eta persona horreek euren iradokizunak azaldu deusiez Aldundiari. Ezarri ahal izan diranak ezarri egin dira, eta ezin izan diranak hurrengo kanpainarako kontuan hartuko dira, bada.

Zerga-arloko aholkularien munduari buruz zeozer dakianak badaki aholkulariak hiruhileko BEZaren aurkezpenean murgilduta dagozana apirilean eta, maiatzera arte, hil honetara arte, ez dirana sartzen, hau da, orduantxe hasten dirana errentearen kanpainan lan egiten edo bete-betean sartzen. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. Una vez concluido el debate, someteremos a votación la moción. La proponente ha aceptado la enmienda de adición presentada por parte del Partido Popular Bizkaia. Por tanto, someteremos así a votación la moción: la moción y la enmienda de adición del Partido Popular Bizkaia. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra?

El resultado es el siguiente:

Se han emitido 50 votos en total. Ha habido 18 votos a favor, 32 en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

Punto sexto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001622](#))

**Autor:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Asunto:** MOCIÓN derivada de la Interpelación sobre el Plan Estratégico del Transporte Público de Bizkaia 2018-2028.

**Documento**

**Principal:**

([R.E.11/E/2021/0001622](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (31A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002345](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001622SE](#))

**Egilea:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Gaia:** 2018-2028 aldirako Bizkaiko garraio publikoaren plan estrategikoaren itaunaren ondoriozko MOZIOA

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001622SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (31A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002345](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Secretario. Corresponde el turno al grupo proponente. Por tanto, señor Méndez Urigoitia, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Tal y como lo manifestamos en la interpelación presentada en el último Pleno de Control, el día 28 de abril, desde EH Bildu creemos que el Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia se debe explicar y analizar junto con la ciudadanía, los ayuntamientos, los/as agentes sociales, las empresas concesionarias y las personas trabajadoras del sector del transporte público.

En ese Pleno de Control, el Diputado de Transportes y Movilidad Sostenible dijo que ese Plan Estratégico sería analizado en el marco de la Autoridad de la Movilidad de Bizkaia. Concretamente, el Diputado Gómez Viar mencionó que se había aprobado por unanimidad la creación de un grupo de trabajo para el análisis y la reflexión sobre el informe recibido y que, una vez realizada esa labor, las conclusiones se explicarían de nuevo en la Autoridad de la Movilidad de Bizkaia.

En su intervención, el señor Gómez Viar también confirmó lo siguiente, y esta sería la transcripción en euskera, aunque él ha hablado en castellano: “egiten dan uean bertan egindako argazki finkoa da, eta, barbarako, bertan ez dira Covidaren ondorioak azaltzen, baina, ezelako zalantza barik, lantaldearen azken azterlanean agertuko dira”.

“Diagnostikoa ez eze, azterlangilearen ekarpenak, iradokizunak eta proposamenak be eskaintzen dauz txosten honek, eta ez Bizkaiko Foru Aldundiak ez Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzeak ez daukie eurakaz zetan ados egonik”.

Luego, esta frase, que, en mi opinión, sin lugar a dudas, es una de las mejores: “garrantzitsuena dana: eraginkortasun ekonomikoa ahaztu barik eraginkortasun soziala helburu daukan azterketea bermatzea”.

Eraginkortasun soziala. Tira, dana herriarentzat, baina herria barik?

¿La Diputación pretende realizar un estudio basado en la eficacia social, sin tener en cuenta a la sociedad?

En ese momento, se propuso realizar una reflexión sobre dicho estudio, y eso es lo que nosotros/as solicitamos hoy aquí: que se realice esa reflexión, pero una reflexión compartida. No solo en el ámbito institucional, sino que también dando su espacio a los/as agentes sociales, a las personas trabajadoras y a las personas usuarias.

Asimismo, el Diputado Gómez Viar manifestó que su Departamento no tenía ninguna obligación de difundir y analizar el Plan Estratégico con otros/as agentes, y expresó de nuevo lo siguiente: “nik ez dinotsuet zuoi zer egin behar dozuen, ez eiozue diputadu honi esan zer egin behar dauan. Ez da diputaduren zeregina Bizkaiko eragile sozial eta ekonomikoakaz partaidetzarako foroak sortzea”.

Bueno, el Plan Foral de Participación Ciudadana y Social de Bizkaia 2020-2023 recoge que se impulsará la implicación de la ciudadanía y los/as agentes del territorio, para encontrar las mejores soluciones para Bizkaia. Quizá, no se trate de una función o labor explícita del señor Diputado, pero sí creemos que lo es de la Diputación.

Así, en el apartado 5, punto primero, 1.1. Acciones, se estipula que se impulse y se ponga en valor la participación a la hora de elaborar los planes y estrategias forales. Además, recoge lo siguiente: “A la hora de elaborar los planes y estrategias forales, incrementar y sistematizar la participación ciudadana y social, y, asimismo, también subrayar que en esos procesos la participación supone un valor fundamental”.

A nuestro parecer, un plan estratégico, como en este caso, se enmarca dentro de este apartado, dentro de esta acción, y, por lo tanto, debe ser un objetivo de la Diputación Foral de Bizkaia tener en cuenta la opinión de la ciudadanía y los/as agentes, así como considerar la participación como un recurso relevante para la gobernanza de los planes y estrategias forales.

Ez dinogu zer egin behar dan, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023ko Foru Planak berak dinoana azaltzen gabilz. Izan be, Garraioetako diputaduak honako hauxe be esan eban bere agerraldiaren amaieran: “batzarkide-taldeek eta eragile sozial, sindikal eta ekonomiko guztiek erabat prest naukie”, plan honi buruz eztabaidatzeko.

Hara, ez dago modu hoberik Foru Planean azaltzen dana lako partaidetza-prozesuaren bidez egitea baino. Alternatiba ona dala uste dogu.

Por ello, hoy presentamos la siguiente moción:

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral a:

1. Que, en el marco del Plan Foral para la Participación Ciudadana y Social de Bizkaia 2020-2023, se lleve a cabo un proceso de participación sobre el Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia, donde al menos se recoja la extensión del plan, el análisis y la comunicación de los resultados.

2. Que se realice el proceso de participación con el mayor número posible de agentes. Es decir, la ciudadanía, los ayuntamientos, los/as agentes sociales, las empresas concesionarias y las personas trabajadoras del sector del transporte público.



Se menciona en el Plan Foral que el objetivo debe ser que la participación sea un instrumento dinamizador, que nos aporte nuevas soluciones, nuevos consensos y nuevas colaboraciones para avanzar en el desarrollo sostenible de Bizkaia. Todo eso se ajusta a la Agenda 2030 y a los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas, a los ODS de los que aquí se ha hablado largo y tendido.

Hoy, mediante esta moción de EH Bildu y mediante el debate y el análisis sobre el Plan Estratégico del Transporte Público, tenemos una oportunidad inmejorable, para poner en marcha estos propósitos e iniciativas. Una oportunidad de pasar de las palabras a los hechos. Ese es el objeto de nuestra propuesta, garantizar la participación de los/as agentes y la ciudadanía en el análisis de este proyecto estratégico. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Señor Andrade Aurrecochea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Barriro be, egun on danoi. Bat nator mozino honen proposamengileak egin dauzan hausnarketa gehienakaz, baina labur geratzen dala uste dot, eta, zati batean bat natorren arren, labur geratzen dala uste dot. Uste dot balioa emoten deusala Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023ko Foru Planari, nire ustetan erabateko porrota danean. Herritarren Partaidetzarako Foru Plan honen araberako partaidetza-prozesuak eta geure webgunea berrikusten badoguz, ikusi egingo dogu Aldundi honen partaidetza-prozesu gehienak erabateko porrota izan dirala danak, 9 lagun, 22 lagun joan diralako bertara, auzokideak edo alkarteak kontuan hartuta. Oro har, plan honen esparruan herritarren partaidetzarako talde horreetara joaten diran teknikarien kopurua, teknikarien kopurua handiagoa da, badinodanez, bertaratzen diran lagunen kopurua baino. Hori dala eta, egiaztatu egiten da sistema horrek porrot egin dauana.

Zorionez, herri txiki bateko zinegotzia naz, eta, neure herrian, ikusi egin dot, eta ez dot webgunean ikusi behar izan, Aldundiak nahikoa partaidetza-prozesu egin dauzala, baina ez batzarkide moduan, izan banaz-eta, ez zinegotzi moduan, izan be banaz-eta, ez auzokide moduan, inoiz ez dot jakin partaidetzarako prozesu horreek nire herrian egin diranik. Hau da, hara, badinotsuet, gauza interesgarriei buruz berba egiteko partaidetza-prozesua egitea eta, badinodanez, nik batzarkide, zinegotzi eta auzokide moduan nire herrian egin dala ez jakitea be! Jakina, gero, 9 lagun baino ez doaz.

Hori dala eta, Herritarren Partaidetzarako Foru Plan honi balioa emotea urri samarra dala uste dot. Bat nator diputadu jaunak emon ebazan azalpenakaz, bere agerraldian Garraioaren Plan Estrategikoa aurkeztu zanean. Oso gai gatxa dala, oso trinkoa, 400 orrialde ziralako. Emon egin euskun, lehenengo proposamena egin eban, entrega bat, eta azaldu egin euskun, horren barri euki gengian.

Ados nago, une hori ez zalako azalpena emoteko unea, baina agian oraintxe da unea. Baleiteke unea izatea, ez dogulako aztertzeke astirik euki, ez baterako, ez birako, ez lantaldeak sortzeke, proposamengileak esan dauanez, baina, bertan, Ganberan bertan gagozan alderdi politikook egon beharko gintzatekez, eta, gero, lantaldeak sortu beharko litzatekez, Plan Estrategikoari buruz berba egiteko. Era berean, Mobikortasun Jasangarriaren Agintaritzara be konbidatu gaikiez entzule moduan, berbeagaz, baina boto barik. Izan be, jakina, norberak sortuta dagozan erakunde publiko guztiak ikusten dauz, eta, guztietan, tamalez, egia da guk daukagun ordezkartzea urria dana, baina badaukagu ordezkartzairen bat, eta badakigu zeozer gure auzokideen zati batek uste dauanari buruz. Halanda ze, ez legoke txarto hori entzutea.

Gure eretxiz, lantalde hori sortu ezkeru, Mobikortasun Jasangarriaren Agintaritza horretan sartu gein tekezan, entzun deiguen eta ganerako alderdiei geure ideak azaltzeko, hauteskundeetako emoitzei esker alderdi politiko jakin batek daukalako monopolizata eta, gure ustetan, ganerako alderdi guztien aukerak entzun beharko litzatekezalako. Ganera, Garraioaren Plan Estrategiko honetako gauza askori buruz berba egin geinke. Ganetik aztertzean, konturatu egiten zara plan horretan oinarritzko informazioak falta dirala; esate baterako, Gernikako, Leioako, Sopelako, Basauriko, Etxebarriko uri-garraioetako erabiltzaileen kopurua, erabiltzaileei buruzko daturik ez datorrelako. Harritzekoa da, uriko eta herriko bertako garraioa sustatzea lerro garrantzitsua izan leitekeanean eta Aldundia uri arteko garraioaz arduratu leitekeanean. Datu horreek ez datoz. Edo itsasadarra kurutzatzen laguntzen deuskun itsasontziari buruzko daturik be ez dator.

Uste dot langai asko dagozala Bizkaiko mobikortasunerako garraioaren etorkizuna izango dan Plan Estrategiko horretan, eta, tamalez, oposizinoko taldeok bertatik kanpo geratuko gara. Dana dala, barriro dinot. Ez dot uste, uste dot mozino honetako proposamena labur geratzen dala eta bertan sartu beharko zala, edo aurrerago berba egingo dogu, hemendik aurrera honek zeresan ugari emongo dauala uste dodalako, oposizinoko taldeok Bizkaiko garraio publikoari buruzko eztabaidan parte hartzeko preminea. Halanda ze, abstenidu egingo gara. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Señor Lobato Pascual, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Buenos días, señora Presidenta.

2018-2028ko epealdirako Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoari jagokonez, txostenaren izenburua irakurrita bakarrik, 2021ean gagozan moduan egonda eta oinarrian plana 2018an betearazoteko pentsauta egoala ulertuta, konturatu egiten zara zeozer ez doala ondo, ezta? Bere egunean, kasuan kasuko batzordean be esan neban, eta barriro azpimarratu zan joan dan Kontrolerako Osoko Batzarrean.

Espazio-denporea kurboa dala eta 2018ra itzultzeko asmotan agian zizare-zuloak iraganera bidaiatzeko aukerea emon leikigula geure gain hartuta, Garraioaren Plan Estrategiko honetan ez dogu irakurri Aldundiak teknologia hori garatzea aurreikusita daukanik. Era berean, Garraioetako diputaduari be entzun ahal izan deusagu plana bera 2018. urteko argazki finakoaren arabera egiten dala, eta, danok dakigunez eta ulertzen dogunez, gaur egun jasaten gagozan pandemia gainditu ostean geratuko jakun egoerea nahikoa desbardina izango da, plan honetako alderdi batzuk barriro zehazteko.

Hori guztiori dala eta, beste batzuetan be esan danez, instituzino honetako kide moduan uste dogu gure betebeharra dala alkondarako mangak altzetea eta ahal danik eta ondoen lan egitea, etorkizunari begira beti, Bizkaiko herritarren preminakaz eta, agirikoa danez, gure inguruneagaz be bat datorren garraio-estrategia eskaini ahal izateko. Hori guztiori dala eta, adierazo dodan guztiagaitik, uste dogu ekimen hau zentzuzkoa dala, hau da, plana bera herritarrekaz partekatzea. Seguruenik, batu egiten dau, eta asko, kendu edo atzeratu beharrean.

Garraioetako diputaduak Kontrolerako azken Osoko Batzarrean azpimarratu ebanez, martiaren amaieran plana aurkezteko egin zan batzordean azaldu jakun Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzearen azken bileran proponidu ebala jasotako azterlana aztertzeke, arakatzeko eta hausnartzeko lantaldea sortzea, eta, lan hori egindakoan, talde horrek ondorioak azalduko deusaz Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzeari berari. Hortik aurrera, zer erabagi hartu behar diran balorau beharko litzateke, agirikoa danez.

Holan entzunda, gutako askorentzat herren baino herrenago geratu zan ebazpenerako proponidutako estrategia. Gure ustetan, garraiobidearen eta, horren ondorioz, bizkaitarren bizimoduaren etorkizuna hain modu erabagigarrian zehazten daben plan horreek beste era bateko ibilbidea euki beharko leukie. Geldialdi gehiago egin beharko leukiez, beste ahots batzuk entzun beharko leukiez, seguruenik ikuspegi desbardinak eskaini leikiezalako, plan honetan azaltzen diran erronkei askoz be modu eraginkorrangoan aurre egiteko. Ganera, jakin badakigu, berbarako, Txartel Bakarraren aldeko Foroak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu deusana plan honen inguruko partaidetza-prozesua egin daijala, eta, gure eretxiz, erabat beharrezkoa da, agirikoa danez.

Gobernuari eusten deusien taldeek aurrerapausua emon eben zentzun horretan, orain dala egun batzuk ekimen bat erregistrau ebelako, Araudiaren 53. artikulua arabera azterketa-batzordearen eraketea proponiduteko. Artikulu horren 3. idatz-zatian, argi eta garbi adierazoten da eratu leitekean batzordeari aditu moduan aholkularitzea emongo leuskioen personak ezarri ahal izango dirala. Nahi-ta hori batzordean bertan eztabaidatuko litzatekean zeozer izan, eratzea onartzen bada, uste dot bateratu egin daikiegula gaur eztabaidara dakarrien ekimenaren bigarren puntuan proponiduten danagaz. 2. puntuan bidezketasunez, ganera, partaidetza-prozesua asmo handikoa dala asmetan bada be, uste dogu Bizkaiko garraio publikoaren arloan urteak lanean daroezan hainbat eragile sozialek, alkartek, plataformak... be parte hartu beharko leukiela aditu moduan batzorde horretan.

Ekimenaren lehenengo puntuari jagokonez, azaldu egin gura neban neure taldean, Elkarrekin Podemos-Izquierda Unidan, erabat ados gagozala geure instituzinoak partaidetzazko demokraziaren bidez indartzeko prozesuagaz. Behin eta barrero eta eten barik esan dogu, baina batez be azken hileotan. Proposamen horreek, oster, ezerezean geratu dira, eta, horretarako, askotan alegau da 4 urtean behin egiten diran hauteskundeetako botoen abala nahikoa eta lar dala Gobernuaren ekintza guztiak zilegi izateko.

Gauzak ez dira holan, baina ez nire taldeak holako prozesuak eskatzeko amorrualdia euki ebalako oposizinoan, Raúl Méndezek azaldu dauanez, Bizkaiko Foru Aldundiak berak 2020. urtetik 2023. urtera garatu beharreko Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plan zoragarria egin ebalako baino. Plan hori oso ondo maketauta egoan, eta, bertan, oso interesgarriak diran ekintza batzuk aitatzen dira, horreen arabera hain bidezkoa eta ahaltsua dan tresna hau egituratzeko eta, holan, planak zein instituzinoak sendotzeko; esate baterako, batzuek deabrututako partaidetzazko demokrazia.

Oraindokarren egin ez badozue, irakurtea gomendatzen deusuet. Bizkaiko Foru Aldundiak berak, eta ezin da beste era batera izan euren izaerea kontuan hartuta, bere eukia definidu dauan partaidetza-prozesuaren arabera zehaztu dauzan ekimenez betetako 44 orrialde dira. Irakurri eizue, benetan. Ez da oposizinoko taldeen lapiko zitaletan prestatuko agiria, Bizkaiko Foru Aldundiak berak egindako agiria da. Agiri horretan, oso gauza interesgarriak esaten dira. Batzuk Méndez jaunak azaldu deusuez bere agerraldian, baina Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023ko Plana zehazten dabe. Hain zuzen be, zehaztu egiten dau beste aurrerapausu bat emon gura dauala Bizkaiko Foru Aldundiak partaidetzeagaz daukan konpromiso horretan, partaidetza hori persona guztiakana ailegau daiten eta partaidetzarako eremuak zein tresnak gure lurraldeko taldeetatik, giza taldeetatik eta eskualdeetatik hur egon daitezkan, beti-beti helburua partaidetzea tresna dinamizatzailea izan behar dala eta Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiteko urtenbide barriak, adostasun barriak eta alkarlan barriak eskaini behar dauzala kontuan hartuta. Era berean, adierazo egiten deusku partaidetzea funtsezko tresna dala Bizkaiko gobernanzarako, bizkaitarren jakitateen, erespideen eta esperientzien adierazgarri dan aberastasun osoa kontuan hartzean, Bizkairako balio publikoa sortzen dauan tresna dalako partaidetzea. Ez dinot nik, Bizkaiko Foru Aldundiak berak dino.

Gure eretxiz kontuan hartu beharko litzatekezan proposamen asko eta asko dagoz. Garraio Publikoaren Plan Estrategiko hau analisiak eta gomendioak eskaintzen dabean 460 orrialde baino gehiago dan zeozer bihurtzeko aukerea daukagu. Herritarrakaz partekatzeo aukerea daukagu, ideak eta proposamenak eskaini daiezan eta hurrengo hamarkadan sailaren giltzarria dan lan-agiria izan daiten.

Besterik ez, neure lehenengo agerraldi honetan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. Señor Jerónimo Moreno, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días. Muchas gracias, señora Presidenta. Egun on batzarkide guztioi eta sareen bidez segiduten gaituzuenoi eta Osoko Batzar hau egitea eta jentaurrean zabaltzea lortzen dozuen profesionaloi.

Gaur, EH Bildu taldeak proponidutako itaunaren ondorioz sortutako mozinoa daukagu eztabaidagai, eta, Bizkaiko Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023ko Foru Planaren esparruan, Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoari buruz eztabaidatzeko prozesua eratzea dauka helburu. Itaunean, diputaduak, Viar jaunak, nabarmendu gura dodazan alderdi batzuk argitu eutsuzan. Aldundia bere lana egiten egoala eta, bere aldetik, Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzan bertan, lantaldea sortzen dagoala Eusko Jaurlaritzeagaz, Aldundiagaz eta udalakaz. Emon jakun txostena lan-agiria dala eta hainbat eta hainbat zehaztapen tekniko eskaintzen dauzala. Zuok dakizue, oso lan luzea da, eta beste ikuspegi batzuetatik osotzea merezidu dau, beste ikuspuntu batzuk be eskaini ahal izateko, arlo politikotik, arlo sozialetik, enpresen arlotik, sindikatuen arlotik, etab., etab., etab.

Edozelan be, berak, Gobernu moduan, diputadu jaunak inoanez, lanen zati bat egin behar dau, ateraten diran ondorioak egiteko eta aberasteko. Horrezaz ganera, ez dakit aierua edo mandatua bota euskun, Ganbera honetako alderdi politikoeak be euren ideak eta euren lanak eta esperientziak eskaini daiezan. Aldundiari eusten deusagun talde politikook baietz uste dogu, azterketa-batzordea edegi beharra dagoala eta, ganera, ahal danik eta gehien emon behar jakola. Adierazo egin gura dot, nahi-ta badakizun eta nik baino lehen berba egin dauanak aitatu dauan, proposamen bat dagoala eskatuta. Bertan, horren inguruko partaidetza-prozesua edegiko dogu, baina, horrezaz ganera, partaidetzea handiagoa eta sakonagoa izatea proponiduten dogu zuk proponidutakoaren aldean. Halanda ze, mozino hau be erretirau beharko zeunke eta Foru Gobernuari eusten deusagun taldeok erregistrau dogun ekimenagaz bat egin.

Horixe dinot, laster holantxe onartu ezkerko Batzar Nagusietatik sortuko dan Bizkaiko Garraioaren 2018-2028ko Plan Estrategikoaren lan-agiriaren azterketarako batzordea sortzeko egin dogun eskaereak askoz be maila handiagoa eukiko daualako, Ganbera legegile hau, alegia. Araudiak eta gure ordenamentuak eskaintzen deuskuezan era bateko eta besteko formulak euki doguz aztergai, berbabide daukaguna lako lan-agiria aztertzeo, eztabaidatzeko, jakinarazoteko eta osotzeko, bosturteko batzuetan, hamarkada batzuetan agian, garraioaren etorkizunean zeresan handia eukiko dauala kontuan hartuta. Batzuk dagoz. Zuok proponidutakoa, eta Gobernuaren menpe egongo litzatekeana, proponidu egiten daualako Batzar Nagusiak izatea Aldundiko Gobernuari eskatzen deusienak eta, horren ondorioz, Aldundiko Gobernu izatea prozesu hori kudeatzen dauana.

Itaunean esan eutsun diputadu jaunak, Gómez Viar jaunak, eta ni neu beragaz bat nator erabat. Betearazleak badauka, eta bere lana egiten dabil, eta legegileak, Ganbera honetakook, geurea egin behar dogu. Benetan dinotsut, gure proposamena asmo handiagokoa dala partaidetzeari begira eta agirian ateraten diran ondorioen maileari begira.

Dana dala, arabere gehiago, gaur eguneko Araudiaren 41.1. artikuluan zehaztutako formula erabili geinkean, kasu honetan Garraioa eta Mobikortasun Jasangarria Sustatzeko Saileko batzordetik bertatik sortzen dala kontuan hartuta, baina ez. Arabere urrunago joan gura izan dogu eta, Podemoseko jaunak ondo aitatu dauanez, indarreko Araudiaren 53. artikuluan zehaztutakoa erabili, Ganbera honetatik datorrela kontuan hartuta. Izan be, partaidetzea emongo deutse talde politiko guztiei, eta barriro dinot, guztiei, Alderdi Popularreko jaunak inoanez, eta eurek, aldi berean, interesgarriztat jotako adituen edo eragile sozialen laguntza euki ahal izango dabe, euren proposamenak, euren ideak, euren ikuspegiak zehazteko.

Mozino honetan egiten dozun proposamenak Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana darabil, esan dodanez, nahi-ta babestu ez zenduan eta oso erabilgarria ez zala esan zenduan. Zure taldeak garrantzibakoa zala be esan ebala uste dot. Guretzat bada tresna erabilgarria, eta Herritarren Partaidetzarako Plan ona da, baina uste dogu gai honetan egokiagoa dala geuk proponidu doguna, hau da, eta barriro dinot, Batzar Nagusiei buruzko indarreko Araudiaren 53. artikulua araberako proponidu dogun modua.

Izan be, berbabide daukagun gaia lan-agiri konplexu baizen luzea da, eta argazki finkoa da, barriro dinot, argazki finkoa, diputadu jaunak esan eban lez, egin zaneke unean, eta ezin lagungarriagoa izango da hurrengo 10 urteetarako ez eze, beharbada seguruenik luzaroagorako be izango dan plangintzea egiteko orduan. Halanda be, gure eretziz, ez dauz oso garrantzitsuak diran faktoreak kontuan hartzen, azken aspaldion jazo diranak, pandemia, berbarako. Horixe be aitatzen zan, eta, orain, epealdi luzeagorako garraio publikoaren ikuspegia be hartzen da kontuan, erespide tekniko eta ekonomikoak ez eze, erespide sozial eta politikoak be badaukazana. Solaskide guztiok egin beharko doguz ekarpenak, erabilgarritzat jotzen doguzanek eta parte hartu gura dabeneke, baina Gobernuak edo Gobernuari eusten deusagun taldeok uste doguzanek ez eze, baita eurek be, jakina, Ganbera honetako generako alderdiek uste dabezaneke be bai.

Hori dala eta, lehenengo agerraldi hau amaitzeko, mozino hau gaitzesteko eskatu gura dot, holako ezaugarriak daukazan azterlan batek behar dauzan preminak oso-osorik kontuan hartzen ez dauzala uste dodalako. Bigarren agerraldian, taldeek egindako generako proposamenei erantzungo deutset. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Señor Lerma Mentxaka, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Tira, Euskal Herria Bilduk aurkeztutako mozinoa. Bertan, Foru Aldundiari eskatzen jako 2020-2023ko epealdirako Bizkaiko Partaidetzarako Planaren esparruan Garraio Publikoaren Plan Estrategikoaren inguruko partaidetza-prozesua egin daijala, gitxienez, gitxienez bertan horren emoitzen hedapena, azterketea eta jakinarazpena jorratu daitezana, 2020-2023ko epealdirako Bizkaiko Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Plan horren lerro estrategikoen eta ekintzen banakapenaren barruan berariaz aitatzen dalako, EH Bilduko ordezkariak azaldu dauan lez, hain zuzen be, partaidetza soziala handitu eta sistematizau behar dala foru-arloko planak eta estrategiak egiteko orduan. Horretarako, ulertu egiten da Garraio Publikoaren Plan Estrategikoak izaera hori euki daikeala, Foru Aldundiaren estrategia edo plan horreen barruan kokatuta egon daitekeala.

En primer lugar, lo primero que me gustaría decir es que nosotros/as no estamos de acuerdo y que vamos a votar en contra de la moción que se ha presentado. Nire

eretziz, 3 idea dira garrantzitsuak edo hiru errazoiengaitik uste dogu aurkeztutako mozinoa urria dala. Azkenari jagokonez, nik baino lehenago berba egin dauanak, Alderdi Sozialistako ordezkariak, luzaroan berba egin dau, baina nik gauza gehigarri bi eta aurretiazko gauza bi proponiduten dodaz. Lehenengo eta behin, gure eretziz, ez da egia edo, gitxienez, ez da erabat egia, ezta hurrik emon be, Bizkairako Garraio Publikoaren Plan Estrategikoa Foru Aldundiaren beraren plana dana edo Foru Aldundiarena bakarrik dan plana dana. Nire eretziz, ez da hainbeste akatsa, ez da hainbeste akatsa, mozinoaren ondorioa baino, mozinoa aurkezten danean, munduko asmo onena daukala kontuan hartuta, hau da, aurrera egiten segidutea eta herritarrei zein era bateko eta besteko eragile sozialei partaidetzea emotea.

Halanda be, orain eskura daukagun agiria, eta uste dot barriro esan beharra dagoala eta, beharbada, egokia da barriro esatea, ez da Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoa, garraio publikoarena. Plana zehaztu barik dago, aztertu barik eta onartu barik. Egon leitekean plana be ez da Foru Aldundiarena, zentzun hertsian. Beste kontu bat, ostera, Foru Aldundian euki daikean eragina da, ezelako zalantza barik, administrazioan garraio publikoko operadore moduan erantzunbeharra daukien instituzinoetako dala kontuan hartuta; eta, kasu zehatz honetan, Bizkaibuseko zerbitzuan. Dana dala, Garraioko Mobikortasunaren Agintaritzearen plana dala esan geinke, lehen esan dan lez, eta berak zehaztu beharko dau Bizkairako Garraio Publikoaren Plan Estrategikoa. Plan horrek operadoreetan dauka eragina, eta, euren artean, administrazio desbardinak dagoz: Foru Aldundia, besteak beste. Beste batzuk be badagoz; Euskotren, berbarako. Ganera, azpiegituretako arduradunetan be badauka eraginik.

Garraioetako diputaduak hori itaunean azaldu dauanez, ez dogu argi ikusten eta ez dogu ulertzen Aldundiaren estrategiatzat eta plantzat hartu behar izatea, Aldundiaren partaidetzea daukan plantzat baino, horren eraginpean egongo dala kontuan hartuta.

Herritarren partaidetzea bilatu beharrari jagokonez, nik neuk baietz uste dot, ezelako zalantza barik. Ezelako zalantza barik, bidezkoa da herritarren eta era bateko zein besteko eragile sozialen partaidetzea bilatzea. Horren ondorioz, ez dogu aurkako botoa emoten herritarren partaidetzea bilatu gura dalako, lehen azaldu danagaitik baino. Izan be, ez dogu uste herritarren partaidetza hori bideratzeko modua, modu onena danik Partaidetzarako Foru Planaren esparruan garatzea Bizkaiko garraio publikoko estrategia honen inguruko partaidetza-prozesua. Gaur egun, ez, behintzat, gaur egun gagozan fasean. Hori Garraioko Mobikortasunaren Agintaritzearen beraren esparruan egin leiteke. Urratsak emoten doguzan neurrian, ikusiko dogu zer egin behar dan.

Gai bi aitatu gura nebazan, nire ustetan garrantzitsuak diralako, Partaidetzarako Planari jagokonez, kasu honetan. Hara, ez nago ados Partaidetzarako Plana porrota dala esaten danean, ez une honetan webgunean prozesu gitxi egon daitekezalako alta emonda, ez jente gitxik parte hartu daualako, lehen be nik baino lehenago berba egin dauanaren eretziz. Partaidetzarako Plana 2020tik 2023ra artekoa da, eta, 2020an eta, orain arte, 2021ean, hain zuzen be, pandemian gagoz, eta holako gauzek eragina daukie, ezelako zalantza barik. Uste dot ez dala bidezkoa porrota dala adierazotea.

Bestetik, ezin argiago daukat nire taldeak, gitxienez, eta Foru Aldundiak berak, jakina, ez dabena inondik inora be esan botoak nahikoak diranik. Izan be, botoak nahikoak dirala eta, hauteskunde batzuetan lortu ahal izan diran botoak ez dira inoiz herritarren partaidetzea danaren eta herritarrek bizitza politikoan euki beharreko partaidetzea sustatzeko eta errazteko prozesuaren aurretik jarri. Inoiz zuoi zera arpegiratu jatzue, arpegiratu egin jatzue herritarren ordezkariak zuok baino ez zariela, zuok bakarrik, pentsarazoteko ohiturea daukazuela, baina horraino, besterik ez.

Bigarren ideia azaldu gura neban, eta, idea hori dala eta, mozinoa, proponiduten dan moduan, zuzena ez dala uste dogu. Baleiteke barriro be errepiketean, baina agiri hau ezin da Garraio Publikoaren Plantzat hartu. Une honetan ez dago onartuta Bizkairako

Garraio Publikoaren ezelako Plan Estrategikorik. Aholkularitza-enpresa batek egindako azterketearen agiria da daukaguna, eta Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzearen esparruan aztertu, arakatu behar da sakontasunez. Hortik abiauta, lan-tresna moduan, hain zuzen be, Garraioaren Plan Estrategikoa garatuko da azkenean. Horixe be azaldu egin danez, nahikoa argi be ikusten dot une honetan, gaur egun, ezer gitxitan euki daikegula partaidetzea emoteko asmoa, berez planik benetan ez dagoanean, edo, gitxienez, planaren emoitzei jagokenez, mozinoan proponiduten dan lez, une honetan ezin jake partaidetzea emon herritarrei. Aurrera egin beharko dogu, nire eretxiz, aurrerapausu asko emon beharko doguz.

Lantaldea, batzordea sortzeko eskaereari jagokonez, erabat ados, taldeak berak berez lan-planak euki beharko dauzala esaten danean, ezelako zalantza barik. Bertan, ganera, batzarkide-taldeek lez, aholkularitza-enpreseak egindako agiri honi buruz daukagun eretxia adierazo ahal izango dogu, ados gagozan, zetan gagozan ados edo zetan ez. Era berean, beste eragile sozial batzuen informazioa be arakatu ahal izango dogu bertan. Bide horretan ados gagoz, ezelako zalantza barik. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Pasando al turno de réplica, señor Méndez Urigoitia, portavoz el grupo EH Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, de nuevo, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Bueno, para empezar, Andrade jaunarentzat, plana labor geratzen da. Tira, ni neu gobernu-taldekoa banintz eta Alderdi Popularrak hori esango baleust, kezkatuta egongo nintzateke. Era berean, niretzat kezkarria izango litzateke ezkerreko taldeok bertan adierazotea baino ez defendidutea, Jerónimo jauna. Plan horri emoten deusaguzan eukien arabera zuk garrantzitsua dala edo garrantzitsua ez dala badinozu, garrantzi bat edo beste eukiko dau. Horixe bera zan guk gaur bertora genkarren proposamena: bertan adierazota geratzea, besterik ez. Era berean, nire ustetan, Andrade jauna, aurreko Plan Estrategikoari buruz zabilz berbetan. Hau 2020an onartu da. Oraingoz, guk zalantzearen onurea emongo deusagu, eta kontuan hartzeko moduko puntuak proponiduten segiduko dogu, garrantzi hori handitu daiten.

Luego, el señor Lobato y también el señor Jerónimo, han mencionado que se va a constituir una comisión técnica en las Juntas Generales, y nosotros/as creemos sinceramente que es una muy buena idea. Desde EH Bildu, estamos de acuerdo en eso, y, además, ya saben que yo le he propuesto esa alternativa al Diputado en más de una ocasión. Ya se lo dije claramente en la Comisión anterior y en la interpelación, que, si la Diputación no se implica, tendremos que hacerlo los grupos políticos.

Por tanto, no es una sorpresa que ustedes, los partidos que sostienen al Gobierno, se adelanten y presenten esa propuesta, pero que sepan que EH Bildu está también preparado para ello y que votaremos a favor cuando se presente en la Comisión. Yo no les voy a pedir que retiren esa propuesta, pero, bueno, creemos que esa iniciativa, la de la Comisión Técnica, no impide la creación de un proceso de participación. Sin embargo, la propuesta que nosotros/as hoy planteamos aquí, creemos que las dos propuestas son absolutamente complementarias.

Hori dala eta, Jerónimo jauna, badinotsut, nik ez deusut eskatzen batzorde teknikorako egin dozen proposamena bertan behera ixteko. Guztiz kontrakoa, aldeko botoa emongo deusut. Hori bai, hau babestea baloretako eskatzen deusut, erabat osogarria dala eta Ganbera honen preminak oso-osorik kontuan hartzen dauzala uste dogulako. Izan be, batetik, Batzar Nagusiok lan teknikoa egin ahal izango dogu, kanpoko personak eroan ahal izango

doguz bertara eta talde politiko moduan zelan jagokun eztabaidatu ahal izango dogu, baina eztabaida hori herritarrentzat be zabalik egon behar dala uste dogu.

Gure eretxiz, bulegoetatik eta Ganbera honetatik bertatik harago eroan beharra dago. Barriro dinot, oso ondo dago guk bertora ekartea, baina helburu bakarra ez da izan behar eragile sozialak Ganbera honetara hurreratzea, instituzinoak eurak be hurbildu behar diralako herritarrakana eta eragile sozialakana. Horixe bera zan gaur guk genkarren planaren bigarren zatia, eta uste genduan zuok onartu egingo zenuela. Zergaitik? Gure eretxiz benetan erraza dalako horregaz bat egitea. Zuok esan dozue agiria behin betikoa dala, ez dala behin betikoa, aholkularitza-enpresa batena dala, tira, baina agiria da, zer arazo dago publiko egiteko? Zer arazo dago zabaltzeko eta lurralde historiko honetako eskualde guztietan eragile sozialakaz, herritarrakaz partekatzeke? Horixe bera dino Herritarren Partaidetzarako Planak eta horixe bera zan geuk proponiduten gendua.

Zergaitik? Guretzat kezkarria dalako. Guretzat kezkarria da non geratzen dan benetako partaidetzea, non geratzen dan herritarren benetako partaidetzea Bizkairako proiektu estrategikoetan. Gure ustetan, plan hau, izenak berak adierazoten dauanez, Garraio Plana, estrategikoa da. Non geratzen da udalen eta mankomunidadeen eretxia? Nork bermatuko dau eskualdeen arteko orekea? Berbarako, zelan balorauko da agiri horretan agertzen dan tarifa-guneen kopuruaren murrizketea, Bizkaiko ezin konta ahala udaletan, guztietan ez esatearren, eragina euki daikeala kontuan hartuta? Beharginen eretxia kontuan hartuko ete da? 3.000 behargin baino gehiago, eta eurak dira egunero zerbitzua emoten dabenak, urtetako esperientzia daukienak eta sektorea inork baino hobeto ezagutzen dabenak. Eurakaz, eragile sozialakaz, sindikatuakaz, enpresa emokidadunakaz eurakaz partekatuko ete da zer zeregin beteko daben bertan? Ikus-entzule hutsak izango dira? Bestetik, puzzle honen guztiaren pieza garrantzitsuena: erabiltzaileak, egunero autobusean doazanak, egunero metroan edo tranbian doazanak. Albo batera itxiko doguz betiko moduan? Bulegoetako lanari emongo deusagu lehentasuna, garraio publikoa egunero erabilten daben eretxiak albo batera itxita, batetik horren onura guztiak zein diran baina arazo guztiak be zein diran dakienak diranean?

Interes-talde horreen guztien eretxiak kontuan hartzen dauzan partaidetzazko proiektua behar dogu. Bizkaiko garraio publikoa diseinetako orduan, ezin deutsegu lepoa emon udalei, beharginei, eragile sozialei eta erabiltzaileei. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Señor Andrade Aurrecochea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko. Gu abstenidu egingo gara, lehen esan dodanez, proposamena nahikoa ez dala uste dogulako eta lantaldea eskatzen gendualako. Pozik nago, sortuko dala, etorkizunean sortuko dala jakitean, eta azterketa-batzorde hori onartuko dogulakoan nago. Uste dot horixe dala bidea, eta, horren ondorioz, eskerrik asko gobernu-taldeari, sozialistoi eta euzko abertzaleoi, batzorde hori sortu dozuelako edo sortzeko eskatuko dozuelako, ganerako taldeoi lantalde hori eta batzorde hori edegiten deuskuzuelako, danon artean Bizkaiko mobikortasunari buruz berba egin ahal izateko. Halanda ze, esan dodanez, eskerrik asko gobernu-taldeari hori onartzearren.

Tira, oraindokarren abstenidu egingo gara, osogarriak dirala uste dodalako. Gauza bat da politikariok egiten doguna; eta bestea, herritarren garapena, nire eretxiz ondo ez doan eta aldatu be egin beharko litzatekean sisteman. Halanda be, tira, beste une batean berba egingo dogu horri buruz. Eskerrik asko.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Señor Lobato Pascual, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Buen mediodía, de nuevo. Tira, lehenengo eta behin, horri guztiari buruzko eztabaidea egin gura izan barik, agirikoa da Lerma jaunari esan gura geuntsana gure taldean, Ganberako agiriko zenbakizko ordezkagarritasunari eta hauteskundeetako emoitzei jagokenez, jakinaren ganean gagozala erabat, eta horren arabera jokutzen dogu. Era berean, ez da bidezkoa gu geu gitxiestea batzarkideen kopuru jakin bat eukitearren, Ganbera honetako beste talde batzuetakoak baino askoz gitxiago dirana agirikoa danean. Uste dot gure eskubidea dala, eta erabili egiten dogu, gure taldearen eretxiz egokiak diran proposamenak eroatea eta behar besteko gogo biziaz defendidutea, kontuan hartu daitezan.

Bestetik, gaur eztabaidara dakarskuzun gaiari helduta, Jerónimo Moreno jaunari entzun deusat, eta, egia esan, ikuspegi politikotik Euskadiko Alderdi Sozialistearen nahiz Euzko Alderdi Jeltzalearen jarrera ulertzen dogu, baina ez gatoz bat euren ezezko botoaren oinarri moduan azaldu dabenagaz. Azaldu egingo dot.

Uste dot proponidu daben batzorde hori talde guztion adostasuna daukan zeozer dala, agirikoa danez. Ezin hobea da, eta uste dot talde bakar batek be ez dauala ezezko botorik emongo. Talde politikoen eta, kasu honetan, Gobernuari zein Foru Aldundiari eusten deutseen taldeen arteko alkarlan hori, ganera, nik neuk ia-ia neure agerraldi guztietan nabarmentzen dot kasuan kasuko batzordeetan. Pozik nago kontuan hartu gaituzuelako, ez ni, oposizinoko talde guztiok baino, eta batzorde horretan berbea eukiteko aukerea emoten deuskuzuelako, geure ekarpenak egin ahal izateko.

EH Bildu taldeak oso proposamen argia dakar, oso argia, eta, gure taldearen eretxiz, garrantzitsua da, Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoko gaiak jorratu ahal izateko. Berak azaldu dauanez, kontua ez da bateragarriak izatea, nire ustetan erabat bateratuezina dalako EH Bildu taldeak proponiduten dauanaren aurkako botoa emotea zuok aurkezten dozuena. Izan be, zuok aurkezten dozuena, hain zuzen be, EH Bildu taldeak proponiduten dauana da, hau da, agirikoa danez batzordean parte hartuko dogun talde politikoon ahotsak kontuan hartzen dauzan partaidetzea, baina, era berean, beste ahots batzuk be kontuan hartzea; esate baterako, eragile sozialena, parte hartu ahal izango daben era bateko eta besteko eragile sozialena. Dana dala, egia esan, itaunaren ondorioz sortutako mozinoan proponiduten dana haraxeago doan zeozer da, eta Méndez jaunak be aitatu dau, hau da, Plan Estrategiko hau eroatea, ez dinot eztabaidara, oso gatxa dalako, baina bai herritarrakaz partekatzea eta eurakaz guztiakaz alkarlanerako prozesua edegitea, agirikoa danez euren egunez egunekoan zeresan handia eukiko dauan zeozetan parte hartu daien. Uste dot danok ados gagozala esaten danean plan honek, ondo eta eraginkortasunez egiten bada eta bertatik ondorio garrantzitsuak ateraten badira, herritarren egunez egunekoa dan horretan eukiko dauala zeresana etorkizunean, lehen esan dodanez, hurrengo hamarkadan edo luzaroago be bai.

Halanda ze, guretzat garrantzitsua da babestea edo, gitxienez, formularen bat aztertzea, ganerako herritarrakaz partekatzeke, arlo instituzionala dan horretatik harago. Alde horretatik, esan barik doa gure botoa baiezkoa izango dana.

Era berean, garrantzitsua dan faktorea azpimarratu gura genduan. Gure taldearentzat Aldundiko sail-taldeak ez dira sail estankoak. Gure eretxiz, eta uste dot horixe bera izan behar dala espirtua, sail guztiek euren artean hartu-emonetan egoteko aukerea euki behar dabe, eta, oso agirikoa danez, plan honek eragin argia eukiko dau Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak etorkizunari begira, edo gure eretxiz, behintzat, garatu beharko dauzan ekintza askotan. Era berean, uste dogu parte hartzeko zeozelako formula bilatu behar

dala, baina ez dinot erabagiak hartzeko prozesuan, baina bai, behintzat, Pradales jaunak zuzentzen dauan sailak daukazan proposamenak kontuan hartzeko orduan.

Tira, gitxi gorabehera gure jarrera argi geratu dala uste dot. Azterketarako proponidu dozuen batzordea ahal danik eta lasterren egia bihurtuko dalakoan gagoz. Halanda be, puntu txiki bat dago testuaren garapenean bertan, Garraioaren Plan Estrategikoaren agiria aztertzeko eskatzen dalako. Nik neuk gustuko eukiko neuke agiri hori aztertzea eta, horrezaz ganera, agirikoa danez, Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzatik sustatuko dan lantaldearen emoitzak eskuratu ahal izatea, horren arabera guk geuk be eukiko dogulako ustezko urtenbideak eskaintzeko aukerea, Garraioaren Plan hori ezarri ahal izateko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. Señor Jerónimo Moreno, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buen mediodía de nuevo. Azken honetatik hasiko naz, Lobato jauna. Lehenengo eta behin, eskaera bat egingo deusut. Ez da ezer jazoten Euskal Sozialistak taldeagaz ados egotearen, ez da ezer jazoten. Zu ados zagoz, adierazo egin dozu, ez jatzu arregosirik urtengo, ez da ezer jazoten. Edozelan be, zuk ondo baino hobeto irakurri dozu 53. artikulua, eta zuk errazoia emon deustazu, Euskal Sozialistak taldeak eta Euzko Abertzaleak taldeak egin daberen proposamenean EH Bilduk egin dauan proposamena sartuta dagoala esatean. Beste gauza bat da zuk hori onartu gura ez izatea; eta, arabere gitxiago, bertan.

Horixe dinot, egin dogun tratamendua maila handiagokoa dalako, ahaltsuagoa dalako. Zure esanetan, “eta Mobikortasunaren Agintaritzan parte hartu gura neuke”. Izan be, ezerk ez dauka Ganbera honek baino maila handiagorik ikuspegi juridikotik eta legegintzearen ikuspegitik, ez dago ezer hau baino gehiago. Hau da, proposamengileak eratu gura eban batzordeari ezelako merezimenturik kendu barik, maila txikiagokoa da. Barrero dinot. Bai eurek bai zuok talde hori eragotzi dozue. Tira, ez dot aitatu be egin gura Andrade jaunak egiten ebana. Eskertzen deusat geuri eskertzea, erredundantea bada be, beste batzorde horren sorrerea. Bere esanetan, erabateko porrota da herritarrek Bildu taldeak proponidutako baldintzetan parte hartzea. Halanda ze, edo bat ala bestea, dana ezin da izan.

Edozelan be, ahotsak edo ez-ahotsak dirala eta, Méndez jaunak egin dauan agerraldian gehiago sartuta, bere esanetan, “dana herriarentzat, baina herria barik?”. Hori oso ondo geratzen da, baina zer naz ni? Ez ete naz herria? Hau da, ni neu herrikoa banaz, ez dakit zu, zu, ez dakit herriak aukeratu zaituan ala ez; ni neu, bai, Ezkerraldea-Meatzaldea, zure taldeak baino boto gitxiago euki arren, eta autortu egiten dot. Halanda be, nik neuk herriaren ordezkaria nazala sentiduten dot. Halanda ze, zuk herritarrei emoten deusezun partaidetzea ala ez, erraz-erraza da, baina. Berbabide daukagun batzorde horretan, zuk berba egin beharrean, lekua, zeurea eta gehiagorena, itxi eurei, batzorde horretan badaukielako talde politikoez nahiz talde politikoez partaidetzarako proponiduten dabezanek parte hartzerik. Halanda ze, zuk ordeztan ez dogun herri hori ekarri eta batzorde honetara ekarri eta, orduan, bai, ordeztuta eongo da.

Horixe dinot, gure proposamenean, eta barrero dinot, talde guztiak dagozalako sartuta, eta taldeek eurek be badaukie nortzuk diran ezarterik. Zure esanetan, sindikatuek, agian zuk batzorde horretan sindikatu batek parte hartzea gura dozu, eta nik, talde politiko moduan, beste bat gura dot. Zergaitik mugatuko dot mobimentu sindikalaren ikuspegitik sindikatu bakar batek parte hartzea? Beharbada, bi behar doguz. Edo enpresariak. Zergaitik enpresari bakar bat, enpresarien alkarte bakar bat, gehiago izatea gura badogu? Ganera, aitaten deusudan 53. artikuluko batzorde horretan kontuan hartzen da hori, eta, barrero

dinot, askoz hobeto hartzen da kontuan. Izan be, badakizunez, holako ezaugarriak daukazan agiria, eta ziur nago zuk irakurri egin dozuna, neuk be irakurri egin dodana dakizun moduan, 400 orrialdekoa, baldintza horreetan, hori 2020-2023an zehaztutako partaidetza-prozedurearen bidez eztabaidatzeak ez dauka ezelako zerikusirik, askoz be agiri teknikoagoa dalako. Agiri horrek, hain zuzen be, ikuspegia emoten deusku ikuspuntu ekonomikotik eta ikuspuntu teknikotik, baina beste ikuspegi bat emon behar jakonez, gorago tiro egin gura izan dogu, erabateko zentzun figuratiboan, zehazten dauana Ganbera hau berau izan daiten.

Halanda ze, jakina, eragile sozialen, eragile sozial guztien eretxia hartuko dogu kontuan. Zuk alkarte bati buruz berba egin dozu, zure asmoa ez da izango, esan daigun, militantzia bikotxa daukazula pentsarazotea, ezta?, hau da, arlo honetan proaktiboa dan alkartean militau gura dozu; eta, horrezaz ganera, zeure alderdiaren legegintza-izaeran. Nire eretxiz, hori abantailaz jokatzea da.

Edozelan be, barriro dinot, ekimena osoagoa da. Ekimenean, zeuk proponiduten zenduana be hartzen da kontuan. Hori dala eta, apaltasunez ninoan hobeza zala. Tira, beste barik, zeure bigarren agerraldian zera esan dozu behin: “tira, ikusi dogunez, Gobernuari eusten deusien taldeek be konpromisoa hartu dabe garraio publikoari buruzko azterlan sakona egiteko epe ertain edo luzeari begira”. Nik neuk bosturtekoa ninoan, 15 edo 20 urte, hain zuzen be, lan-plan honeek, garraioko azpiegiturak eta, zehatz-mehatz, garraio publikokoak ez diralako goizerik gauera egiten. Oso inbersino-maila handia behar dabe; eta, horren ondorioz, ikuspegi zabala.

Barriro dinot. Uste dot adostasun handiagoa dagoala Ganbera honetan geure botoa emoteko orduan egon daitekeana baino, baina, halanda be, eskerrak emon gura deusedaz partaidetzeagaz bat egingo dabela iragarri daben guztiei. Barriro dinot. Nik neuk ez dot garrantziari buruz berba egin, egin dogun proposamenaren maileari buruz baino. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Por último, señor Lerma Mentxaka, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias.

Lehenengo eta behin, benetan, nire asmoa ez zan ezelako eztabaidarik sortzea. Lobato jaunari dinotsat. Beharbada, txarto interpretau deusut, ulertu deusut zure lehenengo agerraldian. Uste neban adierazo egin zenduala edo proponidu egin gura zenduala Foru Aldundiak ahalegina egitea, edo askotan aitatu da boto nahikoak egozala, botoak egozala herritarrak, kasu honetan, edo herritarren eretxia kontuan hartu barik. Erabat bidebakoa dala uste dot, baina, batez be, Foru Gobernuari jagokonez, erabateko lotunea daukalako herritarrek eta era bateko zein besteko eragileek bizitza politikoan euki beharreko partaidetzearen sustapenagaz, hauteskundeetako prozesuen ondorioz gobernuak eta dana dalakoak eratutakoan. Beste barik, zer esanik ez, nire asmoa ez zan zu urduri jartea, ezta eztabaidea sortzea be.

Apur bat berresten dodaz lehen azaldu dodazan idea biak. Lehenengo eta behin, oraindokarren ez daukagun Garraioaren Plan Estrategiko hori ez da Foru Aldundiaren plana zentzun hertsian. Izan be, uste dot ezin dala izan eta ez dala izan behar, Foru Aldundiak ez leukealako azterketa estrategikorik egin beharko banako moduan bakarrik, Bizkaiko eremurako garraio publikoaren zerbitzu, zerbitzu osoari jagokonez. Beharbada, ez dau bere estrategia egin behar. Gure eretxiz, hemen honako hauze da kaka: garraio publikoaren zerbitzua osotasuntzat hartzea eta bere osotasunean ikustea, modu eta garraio publikoaren zerbitzua eskaintzen daben operadore guztiak kontuan hartuta, eta, erabagiak hartzean, garraio publiko hori bere

osotasunean ikustea, erabagi estrategikoetan be bai, hau da, beharbada operadore bakoetza zentzun hertsian egindako azterketa partikularren araberrako era bateko zein besteko jarduketak zehazten ez joatea. Nik uste dot horixe dala giltzarria, eta, nire eretxiz, hain faktore oinarritzko denez, jakin badakit danok ados egongo zariena, danok erabat ados egongo garana horregaz.

Bestetik, beharbada, barriro dinot. Agian, errepikakorra izango da, baina askotan zelako adierazpenak egiten doguzan kontuan hartuta, uste dot egokia be badala barriro be aitatzea plana bera ez dagoala eginda. Une honetan, agiria dago, garraio publikoaren egoereari buruzko agiri ona, nire eretxiz, proposamen batzuk, baina aholkularitza-enpresa batek egin dau. Agiri horrek, hain zuzen be, lan-tresna moduan, Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzearen esparruan amaitu daike edo amaitu behar dau Garraioaren Plan Estrategikoa eratzen. Dana dala, oraindokarren, gure eretxiz, urrats asko emon behar dira, Mobikortasunaren Agintaritzan ikusi beharra dago, edo guk geuk eratu beharreko lantaldean, Batzar Nagusion eretxiak zein diran egiaztetako edo jakinarazoteko. Egiaztatu egin beharko da lortu gura dogunari buruzko diagnostikoagaz ados gagozan. Uste dot talde politiko guztiok, behin eta barriro zelako adierazpenak egin doguzan kontuan hartuta, gaur egun agiria oinarri estrategikoa dala esatea be!, uste dot danok erabat ados gagozala honelako garraioa euki gura dogula esatean: gizarteari begira erantzulea dana, ekonomiari begira bideragarria dana, ingurumenagaz konpromisoa daukana, erabiltzaileak helburu daukazana, batez be Bizkaia integrau eta kohesionau egiten dauana eta teknologiarri begira aurreratua dana.

Dana dala, tira, une honetan daukagun agiriak tresna batzuk eskaintzen deuskuz, eta lagungarriak izan daitezke erabagiak hartzeko orduan, betibe, lehen esan dodanez, garraio publikoa bere osotasunean kontuan hartuta, ez bakarrik operadorez operadore, garraio-zerbitzua zer dan zehaztu ahal izateko, baita Bizkaiko herritarren onurarako be.

Ezelako zalantza barik, gura izateko modukoa be bada eta kontuan be hartu beharra dago era bateko eta besteko eragile sozialen partaidetzea. Gitxienez, aurreratua dagoan zeozer euki arte itxaron beharko geunke, beharbada. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Una vez concluido el debate, debemos someter a votación la moción.

¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones?

El resultado es el siguiente:

En total, se han emitido 50 votos. Ha habido 16 votos a favor; 32, en contra; y dos abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la moción. Punto séptimo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001623](#))

**Autor:** Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

**Asunto:** Las propuestas fiscales planteadas por el Fondo Monetario Internacional y las

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itautetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001623SE](#))

**Egilea:** Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

**Gaia:** Nazioarteko Diru Funtsa erakundeak plazaraturiko zergen inguruko proposamenak eta

modificaciones fiscales en las que está trabajando la Diputación Foral de Bizkaia

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001623](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (32A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002346](#))

Bizkaiko Foru Aldundia lantzen ari den zerga-aldaketak

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001623SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (32A)

**Espediente:** ([11/B/20/0002346](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

En el último Pleno de Control, trajimos a esta Cámara una propuesta fiscal planteada por parte del Fondo Monetario Internacional, y para algunos/as fue una sorpresa que EH Bildu hubiera traído una propuesta de un organismo neoliberal de esas características.

Lo que a mí me sorprendió fue la propia propuesta planteada por ese organismo neoliberal, así como su objetivo. Precisamente, la propuesta consistía en imponer una contribución temporal a las personas que disponen de mayores ingresos o patrimonio. En definitiva, se trataba de algo similar a la Tasa Covid presentada por parte de EH Bildu en esta Cámara: temporal y aplicada a las personas que más tienen. Su objetivo era ayudar a afrontar las necesidades de financiación vinculadas a la pandemia.

Yo creo que todos/as compartimos que la pandemia del Covid-19 ha evidenciado nuevas necesidades sociales. Es evidente que necesitamos más ingresos para dar una respuesta adecuada a todas esas nuevas necesidades.

La vía elegida hasta el momento ha sido la del endeudamiento, pero no es suficiente. Por ello, en nuestra interpelación preguntábamos al señor Diputado de Hacienda y Finanzas cómo valoraba dicha propuesta. Ahora, esto es lo que planteamos en nuestra moción:

Que, junto con el resto de instituciones, en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se estudien las propuestas fiscales planteadas por parte del Fondo Monetario Internacional.

En la interpelación, el señor Diputado me respondió que solamente había leído una parte o que la OCDE había publicado otro informe.

Ahora, en la enmienda presentada por parte del PNV y el PSE, se plantea que en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se estudien las propuestas planteadas por parte de los distintos organismos internacionales (FMI, OCDE o la Comisión Europea). Debo decir que no tenemos ningún problema con esa formulación. Nosotros/as estamos dispuestos/as a debatir sobre todas las propuestas.

Izan be, honako hauxe da EH Bildukook proponiduten doguna eta guretzat ezinbestekoa dana: fiskalidadeari buruzko eztabaida serioa egotea. Eztabaida hori inoiz baino askoz be ezinbestekoagoa da uneotan, Covid-19aren pandemiak krisi barriak eta premina barriak agirian itxi dauzanean, baina, batez be, zerbitzu publikoak indartzeko preminea.

Hori dala eta, mozinoan proponiduten dogu NDFk diru-sarrera gehien eta ondare handiena daukiezanei aldi baterako ekarpena ezarteko egindako proposamena aztertzea. Esan dodanez, EH Bilduk proponidutako Covid tasearen antzeko zeezer da.

EAJk eta PSEk aurkeztutako zuzenketan, beste erakunde batzuen proposamenak kontuan hartzea proponiduten da; esate baterako, ELGA edo Europar Batasuna. Guk geuk ez deusaguz ezelako arazorik ikusten proposamen horri. Hain zuzen be, Joe Bidenen proposamena be kontuan hartu daikegu, Soziedadeen ganeko Zergan %28ko gitxieneko tasa globala ezarteko. Ostantzean, atzo bertan ELA sindikatuak jentaurrean barriro egiten ebazan proposamenak be hartu daikeguz kontuan.

Izan be, proposamen horreek guztiek badaukie alde onik eta alde txarrik, baina, edozelan be, lagungarriak dira zerga-sistemea aldatzeko daukagun premineari buruz hausnartzeko orduan. Izan be, berbarako, ELGAK Espainiako estatuari gomendatzen deutso, eta zuok horixe nabarmendu gura zenduelakoan nago, zergak ez igotea harik eta susperraldia irmea izan arte. Zein da arazoa? Noiz esan daiteke susperraldia irmea dala? Ostantzean, zer jazoten da krisialdi honetan oraindokarren irabazi ugariak daukiezanakaz, nahi-ta 2019koak baino txikiagoak izan baina irabazi handi-handiak diranean? Kasu horretan, ezin dabe ekarpen berezirik egin? Horixe bera da NDF proponiduten dabilena.

Somos conscientes de que en esta situación no se puede plantear repentinamente una subida de todos los impuestos. Nuestra propuesta no consiste en una subida de todos los impuestos, sino en un aumento de la progresividad fiscal, garantizar por una parte que las personas que más tienen puedan realizar una contribución especial en este duro momento y que paguen lo que les corresponde en general, puesto que normalmente pagan menos proporcionalmente.

¿Qué es lo que sucede en el Impuesto de Sociedades? Por todas y todas las deducciones, exenciones... que existen, lo que las empresas pagan por sus beneficios, por sus ganancias, no es el tipo real, sino uno mucho más bajo, por lo que, a nuestro entender, debemos establecer un límite para esos resquicios.

Gure mozinoan, bigarren puntuan, proponidu egiten dogu EZKOn egiten dan hausnarketea, eta, esan dodanez, gai askori buruzkoa izan daiteke, Batzar Nagusiotan aurkeztea hiru hileko epean. Ez dinogu foru-arauak edo zergak aldatzeko proposamen barriak daborduko aurkeztea, EZKOn egin diren proposamenen daukien balorazinoa, Batzarrotara ekarte baina, foru-arau horreek ekarri baino lehen eztabaidatzen hasteko aukerea euki daigun.

EAJ-PSEk aurkeztutako zuzenketan, ez da ezelako eperik aitatzen. Hain zuzen be, horixe bera da zuzenketeagaz daukaguzan arazoetako bat. Oso gatxa da Ganbera honen erabagiak betearazotea, baina eperik ez badago, eta honelako gai batean, muga barik luzatzen dagoala kontuan hartuta, berba hutsak izango diran bildur gara.

En el último punto de nuestra moción, planteamos que entre las medidas que va a recoger el Proyecto de Norma Foral que establecerá las bases para que el sistema fiscal del Territorio Histórico de Bizkaia se ajuste a los Objetivos de Desarrollo Sostenible, se incluyan las que tengan por objeto el incremento de los ingresos, para así poder responder adecuadamente a las grandes necesidades sociales existentes.

Lo que ustedes plantean en su enmienda es que concluya el trabajo comenzado con la Universidad de Londres, con Marianna Mazzucato. Sí, eso está bien, estamos de acuerdo. Sin embargo, han omitido una cuestión que es muy importante para EH Bildu: hay más necesidades sociales, y necesitamos más ingresos para afrontarlas.

Covid-19aren pandemiak agirian itxi dauzan gizarte-premina barriei erantzuna emoteko, diru-sarrera publiko gehiago euki behar dira, eta diru-sarrera horreek, gehienak, zergetatik datoz. Horrexegaitik proponiduten dogu geure mozinoan diru-sarrerak handitzeko neurriak hartu behar dirala. Ez dinogu zelan, baina albo batera itxi ezin dan eztabaidea da. Zuzenketeak, ostera, albo batera ixten dau eztabaidea hori.

En definitiva, la enmienda elude dos elementos que son básicos en nuestra moción: uno, establecer un plazo, establecer un plazo para la reflexión a llevar a cabo en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi y traer esa reflexión aquí; y dos, debatir sobre qué tipo de medidas fiscales debemos establecer para el incremento de los ingresos. Por ello, no podemos aceptar la enmienda, y mantenemos nuestra moción. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos presentaron una enmienda. Por tanto, señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, eskerrik asko. Batzarkide jaun-androk. Zerga-sistemearen diseinuak funtsezko zeregina dauka garapen ekonomiko eta sozialean, Nazino Batuen Erakundeak Garapen Jasangarrirako Agendan autortzen dauan lez. Diru-sarrerak zergen bidez lortzeko sistemearen kalidadea be funtsezkoa da, bardintasunezko emoitza eraginkorrak erdiesteko. Garapen ekonomiko eta sozial jasangarria bultzatzen dauan eta babes publiko zabala daukan diru-sarrearen sistema diseinetako, ezinbestekoa da zergak eraldatzeko proposamenak arreta handiz baloretea, modu kuantitatiboan aztertzea eta benetan eztabaidatzea.

Geure eskumenen esparruan eta geure instituzinoen arloan, Euzko Abertzaleak batzarkide-taldeak eta Euskal Sozialistak taldekook Ganbera honi aurkezten deusagu Nazinoarteko Diru Fondoak egindako zerga-proposamenei eta Bizkaiko Foru Aldundia lantzen dagoan zerga-aldaketei buruzko osoko zuzenketa hau: “Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen deusie 2014an eta 2018an onartutako zerga-eraldaketetako emoitzak berrikusteko prozesuaren esparruan, Euskadiko Zergak Koordinetako Organuan ordeztutako ganerako instituzinoakaz aztertu daizala nazinoarteko era bateko eta besteko erakundeek egindako zerga-proposamenak; esate baterako, Nazinoarteko Diru Fondoak, Alkarlanerako eta Garapenerako Erakundea edo Europako Batzordea. Holan, Batzar Nagusiotara ekarriko dira arautegia aldatzeko beharrezkotzat, erabilgarritzat eta egokituz jotzen diran proposamenak, azterketetako emoitzak daukazan neurrian, krisitik urtetan laguntzeko eta ekoizpen-jarduera sustatzen dana eta, horren ondorioz, kalidadeko enpleguak sortzen dirana eta eutsi egiten jakena ziurtatzeko, berme onenak diralako, hazkuntza bera jasangarria, barneratzailea zein integratzailea izan daiten eta, aldi berean, gure ondoizate-estadia diran zerbitzu publikoek bere horretan iraun daien.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen deusie University Collegegaz garatzen dagoan alkarlana amaitu daijala, Nazino Batuen Erakundearen 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuen lorpenagaz bat datorren fiskalitate-eredua ezarteko, eta, hori amaitutakoan, horren emoitzak aurreko hausnarketa-prozesuan kontuan hartu daizala”.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señora Pieló Muguruza, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Barrero, Ganbera honetara ekarten da talde itaungileak azken hileotan beste batzuetan be errepikau dauan gaia. Igazko urriaren 5ean Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-politikeari buruz egindako Osoko Batzarrean, ebazpen-proposamena onartu zan, eta, horren bidez, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu eutsien EAEn hartu-emonetarako zehaztutako organuetan generako instituzino eskudunakaz garatu eta amaitu eiala 2014an eta 2018an onartutako eraldaketetako emoitzak berrikusteko prozesua, azterketa horretan Covid-19aren pandemiaren ondorio ekonomikoakaitik sortutako elementuak kontuan hartuta, adierazleak egonkortzen diranean eta, horri esker, hausnarketaren helburuetarako ondorio erabilgarriak lortzen diranean.

Horrezaz ganera, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundia konbidau eben arautegia aldatzeko beharrezkotzat, erabilgarriztat eta egokitzen jaten diran proposamenak bialdu eiezan, aitatu doguzan azterketetako eta prozesuetako emoitzak daukazan neurrian, hazkuntza ekonomikoa jasangarria, adimenduna zein integratzailea dana bermatzeko eta danok Bizkaiaentzat gura dogun etorkizun horretarantz aurrera egiteko.

Edozelan be, pandemia bera uste baino gehiago luzatu da. Dana dala, egia esan, erantzun koordinaua eskaintzen da nazinoartean; eta, gure kasuan, Europa mailan. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundi honek beharrezkotzat jo diran neurriak hartu dauz, Batzar Nagusiok guzti-guztiak berretsi dabez eta, horreei esker, beharrezko likidezia zein aukerak emon jakez gaur egun bizi dogun egoera honen aurrean zaurgarrienak diranei, batez be; berbarako, autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak.

Kontzertu Ekonomikoaren bitartez autortutako zerga-eskumenen arloan, salbuesenezko zerga-neurri batzuk onartu ziran, gaur eguneko osasun-larrialdiak zergadunen artean oro har daukan eragin ekonomiko kaltegarria arintzeko. Holan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Aurrera Planaren onarpenaren bidez, zerga-neurri batzuk hartu dauz, eta, ostean, 2021. urte osorako luzatu ziran, zailtasun ekonomikoek bere horretan segiduten ebelako.

Horri jagokonez, Alkarlanerako eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak bertako estadu kide guztiei gomendatu deutse neurri erabagarriak hartzea, susperraldi ekonomiko hori gertatu daiten eta, pandemiaren aurrean osasun-erantzun egokia bermatzeko asmotan konfinamentu eta isolamendu sozialerako beharrezkoak ziran neurrien ondorioz ekoizpen-ehunean sortutako kalteak gitxitu daitezkan. Horixe bera da Bizkaiko Foru Aldundiak egin dauana eta egiten segidu gura dauana: egoerearen arabera beharrezkoak diran neurriak hartzea, osasun-egoerea eta bere ondorio ekonomikoak zelan bilakatzen diran kontuan hartuta.

Nazinoarteko Diru Fondoaren proposamenei jagokonez, nazinoarteko beste erakunde batzuek egindakoakaz jazoten dan lez, kontuan hartu beharra dago erakunde horretako kideak diran herrialde guztientzat egiten dirala. Herrialde horreetan, hain zuzen be, egoera ekonomikoa, soziala, lan-arlokoa, hezkuntza-arlokoa, osasun-arlokoa, euretako baxotxarena, ez da berbera, oso desbardina baino, eta, horren ondorioz, euretako baxotxari ezarri beharreko zerga-araubideak be ez dira berberak.

NDFk egiten dauzan ohar horreek orokorrak dira, herrialde guztientzat. Halanda ze, ez dira ekonomia guztiek ezarri beharreko proposamenak, kasu baxotzeko inguruabar berezietara egokitu behar dira. Proposamen horreek oro har egiten dauz NDFk, eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu Teknikoek aztertu egiten dabez, beste erakunde batzuek egiten daben beste proposamen batzuen antzera. Holan, jarduera ekonomikoa suspertzeko eta geure ondoizate-estaduari eusteko orduan erabilgarriak izan badaitekez, behar besteko egokitzapenen bidez ezarri ahal izango dira, gure zerga-sistemearen egitureagaz eta printzipioakaz bat egin daien.



Era berean, Europako eremuko herrialdeetako zerga-administrazioek hartutako era bateko eta besteko zerga-neurriak be aztertzen dira. NBEk onartutako 17 GJHei jagokenez, NDFk egiten dauzan proposamenakaz jazoten danaren antzekoa jazoten da. GJH bakotxa bere erara txertatzen da ezarteko erabagia hartzen dauan herrialdearen arabera. Bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemea eraldatzeko eta Garapen Jasangarrirako Helburuakaz bat egiteko moduko oinarrien ezarpenerako egiten gabilzan lanari jagokenez, une honetan lantzen gagozan proiektua da, eta, Batzar Nagusiotara ekarteko moduko ondorioak eta proposamenak daukaguzanean, holantxe egingo dogu. Ganera, beste batzuetan eta lehenago be Ganbera honetan azaldu danez, diru-sarrera gehiago lortzeko asmotan karga-tasea igoten bada be, ez dau esan gura diru-bilketea handiagoa izan behar danik. Izan be, zergak ordaintzeko zehaztutako oinarria da kakoa, hau da, karga-tasea igon daikegu, baina oinarriak behera egiten badau eta, horrezaz ganera, pandemiaren ondorioz sortutako egoera ekonomikoagaitik galerarik badago, ez dogu diru-sarrera publiko gehiago lortuko.

Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, Ondarearen ganeko Zergea daukagu ezarrita, eta gehien daukienez ondasunak zein eskubideak zergapetzen dauz. Ganera, zerga-eraldaketan gabilz lanean, eta, bere ondorioak daukaguzanean, Ganbera honetan azalduko doguz. Zer esanik ez, hausnartzeko, lana mahai ganean jarteko prozesuko emoitzea izango dira, eta arretaz zein azterketa zorrotzaz garatuko da. Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak bere agerraldian esan dauanez, gure taldeak osoko zuzenketea aurkeztu dau eurakaz, gai horri erantzuna emoteko formula onena dalakoan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Pieló Muguruza. Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Politikan, batzuetan, nire ustetan kartako menu ideologikoa dan fenomenoaz jazoten da, eta mozino hau horren adibide ona dala uste dot. Harritzekoa da Bildu lako talde batek Nazinoarteko Diru Fondoa txalotzea eta zerga-arloko erakunde nagusizat hartzea. Niretzat, oso harrigarria da, izan da hasieratik. Hauze. Batez be, eremu ideologiko honetatik, zuon eremu ideologikotik, Nazinoarteko Diru Fondoa gure ekonomia mehatxatzen daben gatx guztien eragilea izan dala adierazo dozuenean, baina herrialdeko ekonomia ez eze, munduko ekonomia osoa be bai. Gaur, tira, murriztu egin dozue hori, erakunde neoliberala dala esan dozunean. Dana dala, ez gaitez annesia kolektiboko ariketan jausi, gauzak ez dira aztikeriaz jazoten. 2014ko martiaren 3an, Espainiako Foro Globala egin zan Bilbon, eta, bertan, Nazinoarteko Diru Fondoko zuzendariak, Christine Lagardek, parte hartu eban, besteak beste. Oroimenerako geratzen dira honako hauze inoen pankarta hareek: “La Troika y sus cómplices, GO HOME!”. “Troika eta bere konplizeok, zoaze etxera!”. Edo honelako esaldiak inoezan parte-hartzaileen aldarriak: “¡FMI, ladrones!” eta “¡Fuera La Troika!”. Leunenak aitatu dodaz, zuhurra izatearren, eta, zer esanik ez, doilorkeria hutsa kale burrukako edo “violencia callejera” taldeek garatutako liskarrak, horren ondorioz dendetan, uriko altzarietan... triskantza handiak egin zirala, eukiontzia erre zirala... kontuan hartuta. Horren ondorioz be, hainbat lagun haserratu ziran, jokabide horreek jente askoren kalterako izan ziran eta, tamalez, poliziaren segurtasun handiagoreen faltea be egon zan.

Nik, hain zuzen be, uste dot holako gauzak beti aitatu behar dirala, kontuan hartu egin behar dirala, nik neuk ez dinodalako bilakatzea txarto dagoanik, ez, baina abiapuntua non dagoan ikusi beharra dago gero erakunde horreek, dinodanez, zerga-arloa baizen garrantzitsua dan arloko aholkulari nagusiak dirala esateko. Egia da azken aspaldion Nazinoarteko Diru Fondoak behin eta barriro nabarmendu dauana zerga-errezetek daukien

zeresana krisi honetako funtsezko elementu moduan. Funtsean, finantzaketa ekonomiko edo merkea lortzeko aukerea eskaintzea euki dabe helburu. Horixe bera egin dogu. Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak aitatu dau. Dana dala, egia be bada, Nazinoarteko Diru Fondoak adierazoten dauanez, ezin doguna ahaztu zelako ondorioak daukazan horrek kontabilidade publikoan eta, batez be, defizit publikoan.

Nire ustetan, une honetan, esan egin daikegu adostasuna dagoala harik eta pandemia kontrolpean egon arte oraindakarren zerga-politikea malgua izan behar dala esaten danean. Guk arabere gehiago izateko eskatu dogu hemen. Osasun-sistemeari lagundu behar jako, familiei, enpresei, azken batean, susperraldi ekonomikoari. Holantxe egin da Europako herrialde gehienetan, gai honetan gu Europa mailako erreferentea be ez garala uste dodan arren. Izan be, ahalegin horreen balioa garrantzitsua izan da, nire eretxiz horren ondorioz, eta balioa emon gura deusat horri, uzkurdura ekonomiko latzagoak ekidin ahal izan diralako, baina hori ez eze, diru-sarreretan be beherakada handia euki dogula kontuan hartuta, defizit publikoak, zorrak, gora egin dau, esan dodanez, eta ez dinot hemen bakarrik, Espainia osoa be badaukat berbabide. Bestetik, bere egunean Calvin Coolidgek, Estatu Batuetako 30. presidentea izan zanak, egin ebazan adierazpen batzuk aitatu gura neukez. 1929ko kraka bizi izan ebanez, une honetarako ondo ekarrira dagoala uste dot.

Gobernuek abian segidu behar dabe une onetan nahiz une txarretan. Halanda ze, segurtasun-marjina zabala behar dabe. Sasoi onetan herria gehienez be zergei eta zorrari bakarrik eusteko gai bada, ezelako zalantza barik hondamena izango dira une txarrak ailegetan diranean. Ezaguna egiten jaku? Ba, horixe da Nazinoarteko Diru Fondoak berak, tira, orain txaloak jasoten dauzanak, adibide moduan jarten dauana, hau da, sortzen hasi diran zor- arazoak. Ezagutzen ez genduzan aurrekari bako zenbakiak, batez beste Barruko Produktu Gordinaren %97n eragina daukienak eta, aurreikuspenen arabera, oraingo ekitaldi honetarako haziko dana. Zorabioa emoten daben ehunekoak dira, gero eta beharrezkoagoa da zorpeketa- maila horren kontrola be egin beharko dogula pentsetea, zelan gitxituko dogun. Hemen, bide bi dagoz, hau betikoa da: zergak igotea, eta hau bide erraza da, funtsean proponiduten dozuena da. Daborduko ez dozue tribunan esango, ez batzuko ez besteok, ez dozue zera esango: “guk zergak igon gura doguz oro har”, baina, funtsean, horixe bera dago proposamen honeen atzean. Ostantzean, beste bidea, hau da, hazkuntza ekonomikoa sustatzea edo oinarri berberak gehiago ordaintzea edo oinarria zabaltzea, diru gehiago batu daigun, baina ez zergak igoteko bidearen bitartez.

Nire eretxiz, une honetan errakuntza larria izango litzateke zergen igoerearen aldeko apustua egitea. Zer jazoten da zorragez? Guk geuk esan dogu, talde honek askotan esan dau. Jakina, osasun-krisia ailegau baino lehen ginoan. Orduan, iruzkin hori, onartzen badeustazue, txantxatzen be hartzen zan apur bat, zailtasun-une batean erreakzioaren kalterako izan leitekezan zor-maila horreei buruz berba egiten geuntsuenean. Astirik badaukat, gai horri buruz zehatz-mehatz berba egingo dot gero.

Badago alde onik gaur egun bizi dogun egoeran? Nik neuk baietz uste dot. Txertaketaren aurrerakadea, aurreikusita egon eitekeana baino azkarrago doalako. Horri esker, osasun-krisiaren amaiera aurreratu leiteke, bilketea suspertu leiteke eta, horren ondorioz, zerga-arloko diru-sarrera gehiago euki leitekez. Alde txarrik? Susperraldi horri begira be, eragozpena izan leiteke atzeraldi ekonomikoa luzeagoa izatea, zorpeketa handi-handia danean baldintza finantzarioak gogortzea eta enpresen porrotek gora egitea. Oro har, zenbat eta gehiago luzatu pandemia, orduan eta handiagoa izango da finantza publikoetarako erronka, zer esanik ez. Halanda ze, orain dala pare bat minutu ninoanari eusten deusat barriro: lehenbailehen hazkuntzearen bidera barriro itzultzea da giltzarria, eta, horretarako, zergak igotea da egin daikegun txarrena, txarrena.

Gure eretxiz, gai honetan argi berba egin beharra dago, eta oso argia izan beharra dago herritarrakaz. Azkenean, zein da jarrera politikoa? Izan be, hemen, teknikariek

egino dabez kalkuluak, baina guk geuk zehazten dogu zein dan jarrera politikoa. Urtenbidea ezin da izan zergak oro har igotea. Badakit zuok esango dozuena aberatsek ordaindu daiela edo, orain holan esatea hobeto geratzen danez, ezta?, gehien daukienez ordaindu daiela. Edozelan be, danok dakigunez, zerga-arloko diru-sarrera modu nabarian handitu daiten, gizarte-maila ertainek, errenta ertainek eta ETE-ek ordaindu behar dabe, ondo joan ahal izan jakenek be bai. Guk, ostera, ez dogu uste hori egokia danik. Ez dinot zilegi ez danik, jakina, izan bada-eta, baina guk ez dogu uste hori egokia danik.

Era berean, gura neuke, eta azaldu dan zentzun berean, egia dalako Nazinoarteko Diru Fondoaren gomendio batzuk dagozana, aitatu egin gura neuke, amaitzeko, baina honeetxek orokorrak dira. Era bateko eta besteko ekonomiek zerga-egitura zehatza daukie, eta, gure ustetan, gureak, Bizkaikoak, badauka bere zerga-arloko presino eta esfortzu berezia, eta hobera zelan egiten dogun ikusi beharko da. Halanda ze, hazkuntzea, bizkaitarren dirua barriro zuritu barik... Ganera, zergen gehikuntzea, igoerea...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, por favor.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: ...2014an egin zana, gero be ez zan zuzendu onaldi ekonomikoan. Halanda ze, uste dot errakuntzea dala igoera barri batean pentsetea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias. Buen mediodía a todos/as.

Gaur, EH Bildu taldeak proponidutako itaunaren ondorioz sortutako mozinoa daukagu eztabaidagai, eta, bertan, labur-labur esanda, Nazinoarteko Diru Fondoak fiskalitatearen arloan egin barri dauzan proposamenak aztertzea proponiduten jaku lehenengo eta behin. Bigarrenez, 3 hilebetean Bizkaiko Foru Aldundiak guri azterketa horren barri emotea eta, azkenik, Foru Gobernuak bultzatuko dauan etorkizuneko zerga-eraldaketan diru-sarrerak gehitzeko neurriak kontuan hartzea.

Elkarrekin Podemos-IUkook iragarri genduan, ez dogu proposamen hau babestuko, eta esan egin behar dot ezin hobeto ulertzen dogula zein dan proposamen honen zioa. Hori ikusi egiten dogu, eta ulertu egiten dogu. Edozelan be, ezin gara ados egon, NDF ezeren adibide moduan jarri behar dogunean, egin behar ez danaren adibide moduan ez bada. Izan be, urteetan NDF zorrotasunaren apostolu gartsuenetakoa izan da. Holantxe izan da, bere gomendioen bidez inoizkorik politika ekonomiko, fiskal eta sozial txarrenen ezarpena babestu daualako, eta, beti-beti, neoliberalismoaren doktrinearen gidaritzapean egin dabe hori.

Edozelan be, 2008ko krisiaren eta koronabirusaren munduko pandemiaren ostean, egiaztatu egin da bere errezetek eta bere sistemeak porrot egin dabena eta defendiduten zan neoliberalismoa eraginkortasun txikiaren tresna dana garapena eta ondoizatea sortzeko orduan. Beti-beti ekonomia desregularizetako eta lan-merkaduak liberetako gomendatzen dabezan neurrien txorta horrek guztiak sufrimentua, ezegonkortasuna eta desbardintasun handiagoa baino ez dauz sortu. Ganera, zeozer nabarmendu gura dot, NDFk gomendio orokorrak egiten dauzala esaten dalako eta egia ez dalako. NDFk herri bakotxarentzako

gomendio bereziak be egiten dauz, Espainiarentzat be bai. Hona hemen kakoa: gure ikuspegitik, gomendio horreei jaramonik ez egitea da egin behar dana.

Izan be, Nazinoarteko Diru Fondoa barik, punteria txikia daukan eta hegoalde globaleko herrialdeentzat mailegu-emoile zikotza dan think tank honi Berehalako Miseriaren Fondoa esan beharko geunskio. Adibideak ugariak dira, ganera. NDFk, Munduko Bankuagaz batera, beti-beti babes historikoa emon deutse 70eko hamarkadan Amerika Latinoak jasan ebazan diktadura guztiei. Berbarako, Allenderen Gobernuak, Txilekoak, ez eban ezelako mailegurik jaso, baina egoera hori aldatu egin zan Pinocheten estadu-kolpearen ostean. Gaur egunekoagoak diran adibideak be badagoz. Orain dala gitxi, NDFk Jeanine Añezen Gobernu kolpisteari emon eutsan mailegua itzuli dau Boliviak, eskatzen ebezan inposizino fiskal eta ekonomikoak oso zorrotzak ziralako.

Etxetik hurbilago, tira, ba, agirikoa danez, Grezian ondotxu ezagutzen dabez NDF honen gomendioak: gitxieneko soldatea gitxitzea, lan-hitzarmenak kentzea, murrizketak, murrizketak eta murrizketa gehiago, baita portuen, enpresa estrategikoen, ugarteen pribatizazioak be, herri greziarraren burujaubetasunaren “sold outa”, alegia.

NDF hau 2015ean Alderdi Popularraren eta Rajoyren lan-erlaldaketea txalotzen eban berbera be bada, eta, ganera, murrizketa gehiago eskatzen ebazan osasunean, hezkuntzan eta pentsinoetan. Tamalez, Alderdi Popularrak errezeta horreek ezarri ebazan herrialde honetan, eta, gaur egun, sufridu egiten doguz oraindik. Adibide asko dagoz, baina, amaitzeko, esan be egingo dot ezin doguzala ahaztu NDFko zuzendaritzatik igaro diran persona itzaltsuak; berbarako, Strauss-Kahn, Lagarde, Rodrigo Rato... Tira, ba, auzitegietan ondo ezagutzen daben taldea.

Orain, pandemia bete-betean, Berehalako Miseriaren Fondo hau konturatu egin da bere ereduak porrot egin dauala, eta, Espainiarentzat pentsinoen, pentsino-sistemearen erlaldaketea eta antzekoak gomendatzen segiduten badabe be, euren irudia makilleten ahalegintzen dira. Horretarako, Estaduko Gobernuak bultzatu dauzan neurri batzuk txalotzen dabez, bizitzeko gitxieneko diru-sarrerea, berbarako, eta zergen igoera igarokorra be proponiduten dabe, hau da, gaur berton eztabaidagai daukagun proposamena edo gomendioa. Gai honetan, hain zuzen be, gure taldea be ez dago ados gomendio horregaz. Zerga-sistemearen helburua ez da aberats okituen alkartasuna eskatzea pandemia jasaten gagozanean. Zerga-sistemea bidezkoa eta bardintasunezkoa izan behar da, eta, batez be, aberastasuna barriro banatzeko tresna izan behar da, ez une latzetan karidadearen konturako alkartasuna eskatzekoa.

Elkarrekin Bizkaiakook azaldu genduan, Bizkaian jasaten dogun fiskalitate erregresiboa ez da konpontzen neurri igarokor baten bidez, gure lurraldeak aspalditik behar daualako, behar dogulako zerga-norabide barria eskaintzen deuskun erabateko zerga-erlaldaketea. Hau da, ez zerga-arloko abantailetan edo gainordainetan oinarritutako aldi baterako neurriak, ikuspegiaren arabera, progresiboagoa eta bidezkoagoa dan zerga-norabide barria baino. Izan be, pandemia honetatik zerga-arloko ikasbideren bat benetan atera badogu, honako haxe dala uste dogu: bidezkoagoak eta bardintasunezkoagoak diran gizartearen eraketarantz egin behar dogu arraunean, eta zerga-presinoa zerga-tresna, tresna erabilgarriena da, ezelako zalantza barik.

Zelan egin behar dogu hau? Horretarako, progresibitatea areagotu behar dogu, tarte zehatzagoak ezarri behar doguz, errenta txikienean zerga-presinoa murriztu eta errenta handienek handitu behar doguz, ez deutsegu pribilegiarik emon behar aurrezkiaren errentei lanekoei baino, beheranzko lehia desagerrarazo behar da Soziedadeen ganeko Zergan eta, gitxienez, araubide erkideko tasa orokorragaz parekatu behar da edo gehien daukienen onurarako baino ez diran kenkariak desagerrarazo behar dira; esate baterako, pentsino-plan pribaduakaitiko kenkariak. Gai horretan bakarrik emongo dot datu bat. Zergadunen %2k kenkari horreen %30 metatzen dabezanez, gatxa da mundu guztiarentzako kenkariak dirala esatea.

Hori guztiori dala eta, hasieran esan dogunez, ez dogu proposamen hau babestuko, eta abstenidu egingo gara. Izan be, errenta handienak gehiago eta errenta txikiak gutxiago zergapetzen dauzan zerga-eraldaketea behar dala uste doguna egia bada be, ez dogu Berehalako Miseriaren Fondo honen gomendiorik onartu gura, eta Bizkaiak behar dauan zerga-eraldaketea igarokorra izan behar danik be ez dogu uste. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. A continuación, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Covidak desbardintasuna larriagotu dau, eta, egoerearen irakurketa politikoa egin ezker, uste dogu horrek konfiantza soziala higatu daikeala. Hori dala eta, birbanaketarako politikak eskatzen doguz, baita osasuna, hezkuntzea edo gizarte-segurantzea eskuratzeko aukera unibersala be.

Herrialde gehienek Barruko Produktu Gordinaren ganeko zerga-ratio nahikoa txikiak daukiez, eta uste dogu gastu soziala finantzetako handitu behar dabezala. Zergak gehitzeko eremuak egon daitezke, progresiboenen kasuan, batez be. Hona hemen itxaropentsuen ikusten doguzan aukerak: Persona Fisikoen, aberatsenen, Errentearen ganeko Zergako karga gehigarria edo larregizko enpresa-mozkinen ganeko bat.

Señor Benito, ¿No está de acuerdo con esto? ¿Que, para garantizar las políticas redistributivas y el gasto social, se establezca eso más a los/as que más riqueza tienen o a los beneficios empresariales? Eso es lo que dice Victor Gaspar, Nazinoarteko Diru Fondoko Finantza Publikoen Saila zuzentzen dauanak. Gaia ez da Nazinoarteko Diru Fondoari babesa emotea edo ez. EH Bilduk, proposamen hau hona dakargunean, lehen esan dodanez, zerga-etzabaidetza bultzatzea dauka helburu, eta egiten diran proposamenak begiratzen doguz, ez nork egiten dauzan. Hain zuzen be, ELGA eta NDF eta erakunde horreek guztiak ez dira segidu beharreko adibidea, horraitino, baina gure ustetan ona dan proposamena egiten dabenean, uste dot eztabaidatzea dala gitxienez mereziduten dauana, eta horixe bera gabilz proponiduten, EZKOn eztabaidatzea, alegia.

Alderdi Sozialistek eta Euzko Alderdi Jeltzaleak proposamen guztiak eztabaidatzea proponidu dabe, eta, hain zuzen be, nik neuk Estatu Batuetako presidentea sartu dot Soziedadeen ganeko Zergako gitxienekoa dala eta, edo ELAk atzo bertan egindako proposamenak eurak be bai.

Eztabaidatzea, eztabaidatzea da garrantzitsuena, diru-sarrera gehiago behar doguzalako gizarte-premina barriei aurre egiteko, eta EH Bildukook eten barik, behin eta barriro errepikauko dogu premina hori. Esan barik doa gai hau, Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkari andrea, askotan ekarri doguna, eta ekarten segiduko dogu. Izan be, ziurtatu egin ahal deusut GJHetara egokitzeko gaia dana eta fiskalidateari buruz eztabaidatzen be segiduko doguna, ezinbesteko eztabaidea dalako.

Sí, quería decirle, no sé muy bien si aún mantiene su enmienda, porque lo que ha hecho usted ha sido repetir de nuevo el discurso formulado por el señor Iruarrizaga, pero ustedes plantean en su enmienda que ese debate se debe llevar a cabo realmente en el OCT, no solo con el FMI, también con el resto, pero eso no lo ha mencionado, y se debe impulsar el debate.

Fernández andrea, ez dogu zerga guztiak igotea proponiduten. Ez gaizuz horra eroan. Hasieratik proponidu dot. Zerga batzuk igotea da, eta sektore batzuei, proponiduten gagozana, eta argi-argi daukat: ondare handiena daukienek gehiago ordaindu behar dabe. Ondarearen ganeko Zergea egon badago, baina ez da behar beste zergapetzen, eta datu asko emon dodaz askotan, hau da, krisialdietan ondare handiena daukienek euren ondarea handitzen segiduten dabe.

Soziedadeen ganeko Zergeak, barriro dinogu, Soziedadeen ganeko Zergeak ez dau enpresa bateko jarduera ekonomikoa zergapetzen, enpresa batek daukazan mozkinak zergapetzen dauz. Mozkin gehiago badaukaz, ordaindu egin behar dau. Krisialdi honetan, pandemia honetan, Soziedadeen ganeko Zergea igoten badogu be, ez da igongo, hain zuzen be, mozkinik egon ez dalako. Krisialdi honetan, Iberdrolak eta beste hainbat enpresak lez, mozkinik badaukie, ordaindu egin behar dabe. Jakina, ordaindu egin behar dabe, eta gehiago ordaindu ahal eta behar dabe.

Edozelan be, ez gabilz berbetan zergen igoera orokorrari buruz, progresibidadea handitu behar dala dinogu, Soziedadeen ganeko Zergan gitxiago ordaintzeko eta benetako tasea gaur egun ordaintzen dabena baino handiagoa izateko dagozan “resquicio” guztiak kendu behar dirala. Izan be, ez da inondik inora %24koa, ezta hurrik emon be, askoz be txikiagoa dalako. Halanda ze, horixe daukagu berbabide, eta, horrexeri esker, zerbitzu publikoak indartu ahal izango doguz. Dana dala, horrek ez dau esan gura jarduera ekonomikoa bultzatu ezin danik. Jarduera ekonomiko batek mozkinak daukazanean, ordaindu egin behar dau.

Azken batean, uste dogu ez dagoala eztabaida hau saihesterik, eta, zer esanik ez, behin eta barriro proponiduten segiduko dogu, nahi-ta zuok ezetz esaten segidu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, buenos días de nuevo. Batzarkide jaun-androk. Ezelako zalantza barik, eta, agirikoa danez, bai garatutako ekonomientzat bai garapen-bidean dagozan ekonomientzat ezinbestekoak dira zerga-arloko diru-sarrerak. Aldi berean, horreek nahikoak izan daitezala, osasuneko, hezkuntzako, azpiegituretako gastua finantzetako. Horreek guztiak beharrezko eskakizunak dira garapenerako eta hazkuntza ekonomikorako. Arabere gehiago, gaur eguneko egoerea zelakoa dan eta, tamalez, beharbada osasunean euki dauan hain eragin latzaren osteko iragaitza ekonomikoaren ondorioak kontuan hartuta.

Nire ustetan, Nazinoarteko Diru Fondoari jagokonez, egia da Nazinoarteko Diru Fondoaren politika austerizidoek susturen bat edo beste emon deuskuena. Susturen bat edo beste emon deuskue. Orain, agirian jarritako egia izango ete da Nazinoarteko Diru Fondoak dinoana? Hori be ez, seguruenik. Konbertiduaren fedez jokatzen dau eta arlo soziala eta jasangarritasuna ete daukaz helburu? Ba, beharbada, ezetz uste dot, tamalez. Nazinoarteko Diru Fondoaren gehieneko kezka zorrak itzel gora ez egitea izan leiteke eta, holan, hartzekodun on moduan, zordunek kaudimenik ezari ez eustea edo bertan ez sartzea.

Halanda be, Urkaregi andrea, nire eretxiz, hain zuzen be, fiskalidadeari buruzko eztabaida serioa behar dogu, holantxe, ezelako zalantza izpi barik. Zerga-sistemea egokitu behar dogula? Tira, zuk aldatzea aitatu dozu, nik neuk, aldi berean, onartzen badeustazu, egokitzea, nora goazan zabaltzea aitatuko dot. Zerga-sistema hori egokituko dogu, beharrezkoa bada. Diru-sarrera publiko gehiago behar doguzala? Ados nago. Diru-sarrera

publikoetarako, zergak igon behar doguzala? Ez, ezinbestean. Ez, ezinbestean. Zuontzat oinarritzko zubia dala ahal danik eta hausnarketa-epe laburrena? Danontzat, danontzat, danontzat. Hartu beharreko zerga-neurriei buruzko eztabaidea garrantzitsua dala? Jakina, bai. Ados egongo gara gauza guztietan. Orain, gure eskumenen arloan eta geure instituzinoetan bertan. Nire eretziz, gure zuzenketea, onartzen badeustazue, era bateko eta besteko erakundeen zerga-proposamenak, ELArenak barne edo Bidenenak barne, geure hausnarketa-organuetan bertan egin ahal izatea oso garrantzizkoa da, holan sendotu egiten garalako eta geure sistema indartsuago egiten segiduten dogulako.

Halanda ze, bat nator gai askogaz. Edozelan be, hausnarketa-prozesua, hauxe zergak oro har igoteko sarrera faltsoa izan daitekeala zuzenean adierazo barik, ez doa hortik, fiskalidateari buruzko eztabaida serioak ez garoaz zuzenean zergak igon egin behar dirala dinoan hausnarketara. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señora Pieló Muguruza, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Neure aurreko agerraldian esan dodanez, beharrezkotzat eta erabilgarritzat jotzen diran arau-aldaketa egokiak egiteko orduan garapen ekonomiko jasangarri eta integratzailea bermatzeko asmotan azterketetako emoitzak daukaguzanean, Ganbera honetan azalduko doguz, eta bozkatu egingo doguz, ahal danik eta adostasun handiena lortzeko eta danok Bizkaiarentzat gura dogun etorkizun horretarantz aurrera egiten segiduteko. Edozelan be, pandemiak ez deusku ixten aurreikusita geunkan erritmora aurrera egiten, aurre egin behar deusagulako eta behar besteko neurriak hartu behar doguzalako, egoera honek kaltetutako zaugarrienei laguntzeko, holan bajagoko; berbarako, autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak. Horretarako, likidezia emon behar deutsegu, eta zerga-arloko neurri batzuk egokitu behar doguz; esate baterako, Covid gerorapena, ordainketa zatituak ez egiteko aukerea, gaur eguneko osasun-larriak Bizkaiko zergadunen artean daukan eragin ekonomiko kaltegarria arintzeko. Halanda ze, Bizkaiko Foru Aldundiak egoerearen arabera beharrezkoak diran neurriak hartzen segidu gura dau, betibe, pandemiaren bilakaerea kontuan hartuta, bere ondorio ekonomikoei aurre egiteko ahaleginean.

Nazinoarteko Diru Fondoaren proposamenei jagokenez, orokorrak izaten diranez, gure ekonomia zehatzera, Bizkaiko Lurralde Historikokora egokitu beharko dira, NBEK onartutako garapen jasangarrirako helburuetan lez, antzeko zeozer jazoten da-eta. Gure lurraldearentzat eta gure zerga-sistemearentzat egokienak diranak aukeratu beharko dira. Horrezaz ganera, geure lurraldean, Ondarearen ganeko Zergea, Soziedadeen ganeko Zergea daukaguz ezarrita, eta karga-tasea %25ekoa da. Gure inguruko beste herrialde batzuek zerga horreek ezartea erabagi dabe guk Bizkaian eurakaz urteak eta urteak geroiazanean.

Nacionalistas Vascos eta Euskal Sozialistak batzarkide-taldeek batera aurkeztutako osoko zuzenketeari jagokonez, guretzat tamalgarria da batzarkide-talde guztiak adostasuna lortu ez izana, azken aspaldion errepiketean dagoan gaia dalako. Zuzenketako puntu biak argiak dira.

Lehenengoan, Bizkaiko Batzar Nagusiok Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie Euskadiko Zergak Koordinetako Organuan ordeztutako generako instituzinoak batera azertu daizala nazinoarteko era bateko eta besteko erakundeek egindako zerga-proposamenak. Holan, Batzar Nagusiotara ekarriko dira arautegia aldatzeko

beharrezkotzat, erabilgarritzat eta egokitzen jaten diran proposamenak, azterketa horreetako emoitzen daukazan neurrian, krisitik urtetan laguntzeko eta ekoizpen-jarduera sustatzen dana eta, horren ondorioz, kalidadeko enpleguak sortzen dirana eta eutsi egiten jakena ziurtatzeko, berme onenak diralako, hazkuntza bera jasangarria, barneratzailea zein integratzailea izan daiten eta, aldi berean, gure ondoizate-estadia diran zerbitzu publikoek bere horretan iraun daien.

Zergak Koordinetako Organuan ondorioen inguruan egiten diran proposamenak Batzar Nagusiotara ekarteko epeari jagokonez, ezin dogu gure esku bakarrik ez dagoan ezerean inguruko konpromisorik hartu.

Zuzenketako bigarren puntuan, Bizkaiko Batzar Nagusiok Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutes University College of Londonegaz garatzen dagoan lana amaitu daiala, NBEren 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuen lorpenagaz bat datorren fiskalitate-eredua ezarteko, eta, hori amaitutakoan, horren emoitzen aurreko hausnarketa-prozesuan kontuan hartu daizala, betibe, GJHen ezarpena epe ertain edo luzeari begira prozesu luzea dala eta, zerga-bilketeari jagokonez, bereizitako etapa bi dagozala kontuan hartuta. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Pieló Muguruza. Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Bitxia benetan lan-eraldaketa ez aitatzea, ez fiskalidadeari buruzko eztabaida batean, Batzar Nagusiotan emoten dan edozein eztabaidatan. Izan be, nik neuk ez dot ulertzen eraldaketa hau onartu zanean, orduan oposizinoan egozanak, Elkarrekin Bizkaia, edo Podemos, eta Euskadiko Alderdi Sozialistea be baegoan, beste talde batzuk be baegozan, instituzinoetara joaten ziran, eta, dan-danetan, lan-eraldaketa berehala indar barik ixteko eskatzen eben. Nik neuk ez dot ulertzen hain txarra bada, hain kaltegarria bada, langileen hainbat eta hainbat eskubide murrizten badauz, inoren kontura lan egiten daben guztien kalterako bada, zergaitik ez daben indar barik itxi. Izan be, horixe bera da ulertzen ez dodana.

Hori dala eta, uste dot, tira, demagogiko samarra dala hona, tribuna honetara jastea eta eraldaketa horri buruz berba egitea. Ganera, irakurri eizuez lanaren sorrerari buruzko datuak. Egia da krisi-testuinguruan oso gatxa dana kalidadeko enplegua sortzea, baina, gero, susperraldi ekonomikoa ailegau zan, eta horrek hobera egin eban apurka-apurka. Datu horreek begiratu eta, gitxienez, uste dot ezarpenaren ondorioei buruzko hausnarketa errealistagoa egiten ahalegindu behar zariela. Dana dala, orduan esaten zenduena eta gaur errepiketan dozuena pentsetan segiduten badozue, mesedez, koherenteak izan zaitezte dinozuenagaz.

Bestetik, ni neu nasai nago, eta uste dot bizkaitarrok nasai egon gaitekezala. Izan be, jakina, Nazinoarteko Diru Fondoak, proposamena aurkezten dauan taldeari jagokonez neure lehenengo agerraldian esan dodanez, baina Elkarrekin Bizkaia taldeari be esan ahal deusat, Euskadik jasaten dauzan gatx guztiak azaltzen dauz, Espainiaren ganeratikoak jasaten dauzanak, mundu zabalak jasaten dauzanak. Ez dogu ELGARi buruz berba egingo. Halanda be, nasai egon gaitekez, eredu honek porrot egin dabelako, baina beti ekidatezko, bardintasunezko, bidezko eredu horren itxaropena geratzen da nonon. Tira, beti geratuko jaku. Ez dakit zuk Venezuelako eredu gustukoago daukazun. Badakit eredu hau oso erabilia dala esango deustazuna, baina, izan be, benetan, uste dot holako gauzak esaten diranean, uste dot zeozelako erantzunberrara euki beharra dagoala aitatzen diran gauzakaz. Izan be, jakina, zer esanik ez, gehiago bardindu daitezke, baina behetik. Eredu batzuek bardindu egiten dabe: danak



txiroak, danak txiroagoak. Holan, agirikoa danez, ez dago ezelako desbardintasunik. Nik neuk errakuntzea dala uste dot.

EH Bildu taldeko ordezkariak aitatu egin dau batez be zerga bi daukazala berbabide: Ondarearen ganeko Zergea eta Soziedadeen ganeko Zergea. Nik neuk ezetz uste dot. Uste dot zerga gehiago igon gura dozuezala, baina egiazkotzat joko dot zuok zerga bi horreek bakarrik igon gura dozuezana. Zuri zerk prentsarazoten deutsu datorren urtean Ondarearen ganeko Zergea igoten badozu, diru gehiago batuko dozula epe ertainean? Ez dauka holan izan beharrik, kontrako eragina euki daike. Beste autonomia-erkidego batzuek ez daukie Ondarearen ganeko Zergarik, edo Ondarearen ganeko Zerga txiki-txikia daukie eta, agirikoa danez, txikia daukienek ez daukie arazo berezirik zerga-bilketeagaz.

Hemen, Bizkaian euki dogu. Batzar Nagusiok goia jo ebenean, SICAVei buruzko erabagia hartu eben, eta ikusi genduan... Lehen, diru gitxi batzen zan. Aberatsek gitxi ordaintzen eben, gehien daukienek. Gero, ez genduan ezer batzen. Ganera, ni neu ez nago bape ados Ondarearen ganeko Zergearen igoereagaz. Arabere gehiago, nik neuk defendidu egiten dot zerga horrek ez daukala zentzunik eta aldatetaren batean pentsau beharko litzatekeala, baina zuk proponiduten dozunaren aurkako zentzunean, hain zuzen be. Izan be, holan baleiteke zuk beste sinergia batzuk lortzea, diru-bilketea beste alderdi batzuetan gehitzeko, erakargarriagoak izateko eta, azken batean, enpresak erakarteko, enplegua sortzeko. Ikuspegi hori desbardina da erabat. Nik neuk zurea errespetetan dot, baina nirea kontrakoa da erabat.

Soziedadeen ganeko Zergea errakuntzea be izango litzatekeala uste dot. Uste dot Bizkaiko hazkuntza ekonomikoaren ereduaren kalterako izango litzatekeala, eta uste dot hori ez litzatekeala ona izango gure lurraldean enplegua daukientzat. Halanda ze, ados be ezin naiteke egon zuk zerga-eraldaketaren inguruan egiten dozun proposamen horregaz, eta, ganera, uste dot badakizula zein diran, apur bat, nire taldeak gai honetan egiten dauzan proposamenak.

Halanda be, ikusi be egin beharra dago zer egiten daben guri baino hobeto joaken beste batzuek. Ez naz Venezuelara joango, ez, ez kezkatu. Portugal. Portugalgo lehen ministroa sozialistea da, ez da eskuindarra. Espainiak hartu dauan kontrako bidea, hain zuzen be. Egonkortasun-programea aurkeztu dau Bruselan, eta, aurreikuspenen arabera, zerga-presinoa jatsiko dau 2025era arte. Dana dala, badago beste adibiderik. Greziak, Italiak be zerga-biztugarrietarako aukerak proponidu dabez hurrengo urteei begira. Alemaniak, Frantziak be egin dabe. Uste dot munduak hortik joko dauala, ez zuok proponiduten zabilzen bide horretatik.

Amaitzeko, GJHen gaia. Izan be, horixe be jenteari atsegin jakon zeozer danez, uste dot nonork estakuru moduan, atxakia moduan erabilteko asmoa euki daikeala zergak igoteko. Esan egin gura dot zergek garapen jasangarrirako helburuakaz bat egiteak ez dauala ezinbestean adierazo gura zergak igon behar diranik, atxakia moduan erabili gura bada baino ez. Izan be, kenkari handiagoak ezarri daitekez, garapen jasangarrirako helburu zehatz bat lortzeko. Hori lortzeko modu onena izan daiteke. Klima-aldaketeari eta bere ondorioei aurka egiteko preminazko neurriak dira horren adibidea.

Halanda ze, uste dot jasangarritasunean pentsau behar dogula...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández, vaya terminando, por favor.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bizkaiko errealidadera eta berreskuratu gura izan dogun horretara, hau da, beti gure herrialdeko sailkapen nagusietako

lehenengo postuetara eroan gaituan horretara egokitutako zerga-politikan pentsau behar dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Para concluir con el debate, señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias. Kontrolerako aurreko Osoko Batzarrean proponidu zan itaunean, Ogasuneko foru-diputadua txantxetan ibili zan Urkaregi andreagaz, NDF EH Bilduren inspirazino-iturria ei zalako zerga-politikan. Gai hori gaur be aitatu deusie. Nik neuk, egia esan, egun horretatik, beste galdera bat egiteko gogoa daukat, hau da, zuok, Euzko Alderdi Jeltzalekook, pentsau ete dozue zer egiten zagozen, EH Bildu lako taldeak NDFren proposamenak bere zerga-politikorako gomendiotzat hartu daizan? Uste dot horri be bueltea emon behar jakola eta begiratu egin beharra dagoala.

Nik neuk ondo baino hobeto ulertzen dot, lehen esan dodanez, proposamen honen helburua. Izan be, amaieran esan dodanez, EAJk lurralde honetan zehazten dauan zerga-politikeak NDF bera be ixten dau leku onean. Guk zergen berrikuspenari, aberastasunaren birbanaketari eta ganerakoei buruz berba egiteko asmoa badaukagu, zeuk esan dozunez, Elkarrekin Bizkaikook ados gagoz, zer esanik ez. Holantxe adierazo dogu bertan fiskalidadeari buruz euki doguzan eztabaida guztietan, eta autortu egin beharra dago gure zerga-proposamenak, zure taldearena eta nirearenak, hurbil-hurbil dagozana. Hori holantxe da. Halanda be, neure aurreko agerraldian esan dodanez, guk geuk NDFk egiten eban proposamenean ez dogu egoki ikusten, NDFrena dala be, zerga-eraldaketa hori edo errenta handientzako zerga-igoera hori igarokorra izatea.

Nik neuk autortu egiten dot inoiz zera esaten entzun ahal izango deustazuela, proposamenen batean, hauxe be NDFk gomendatzen dauala esaten. Tira, diskursoari begira, uste dot gomendio honeek lehen esan dodanaren erakusgarri dirala, hau da, neoliberalismoaren porrot ideologiko hori. Nire eretziz, orain, indar progresistek, zureak, nireak eta ganerako indar progresistek, nazinoartean daukien erronkea alternatiba horreetan aurrera egitea dala uste dot. Orain dala oso gitxira arte, ganera, alternatiba horreek erresistentzia moduan proponiduten ziran neoliberalismoak mundu-mailan erdietsitako aurrerakadearen aurrean, eta uste dot orain urteera-postu moduan erabili behar doguzala, progresistagoak diran proposamenetan aurrera egin ahal izateko.

Gobernuak aurkeztu dauan zuzenketari jagokonez, tira, ohiko baliabidea da Ganbera honetan zerga-arloan aurkezten diran proposamen guztietan, 2014ko eta 2018ko zerga-eraldaketetako emoitzak berrikusi arte itxaron behar dabelako guztiek. Tira, guztiek, EAJk bultzatzen dauzanek izan ezean. Horra hor 2019an errenta irregularretan egindakoa, eta, laster, Alderdi Sozialistearen baiezko botoa be eukiko dauan zerga-eraldaketa barria proponiduko deusku. Nik neuk Ganbera honetako Alderdi Sozialistako kideei berba egin gura deutset, uste dodalako, tamalez, hainbateko zarabandaz prestetan dagoan zerga-eraldaketa hau beste zerga-kenkari batzuetara baino ez dala mugatuko azkenean. Holan, bada, gobernukideak zerga-eraldaketa eskuindarra sartuko deusue konturatu barik, eta zuok txalotu egin beharko dozue derrigorrean Gobernuaren batzarrean nahiz Ganbera honetan. Ah, hori bai! Zuon nasaitasunerako, ziurtatu egiten deusuet ondo apainduta etorriko dana koloretako gometen eta GJHen inguruko diskursoen bidez.

Hain zuzen be, fiskalidadeari buruzko eztabaidea egin behar dogu Ganbera honetan. Egin egin behar dogu. Oposizinoko 3 taldeok proposamenak ekarri doguz daborduko. Gobernuak, ez dakigu noiz, txisteratik aterako dauan untxiaren zain gagoz oraindakarren.

Amaitzen joateko, hain zuzen be, jakina, lan-erlaldaketea aitatu behar dot, NDFren gomendioetako bat zalako. Dana dala, benetan ikaragarria da eztabaida honetan Venezuelak barriro be urtetea. Guk dakarguzan zerga-proposamenek antz nahikoa daukie, fiskalek eta ekonomikoek be bai, antz nahikoa daukie Biden proponiduten egon daitekeanakaz, eta uste dot ez dala Venezuelakoa, beharbada zeozer galdu dodan arren. Edozelan be, amaitzeko, bermatu egiten deutsut lan-erlaldaketea indar barik itxiko dana. Horren ordezeko lan-esparru barrian dabilz lanean. Ganera, esan egin ahal deutsut erlaldaketa horren zati batzuk indar barik itxi dirala daborduko; berbarako, gaixotasunagaitiko irazpena. Hain zuzen be,...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, por favor.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Lan-erlaldaketa hori kritiketako adibide moduan, uste dot ez dagoala adibide hoberik, ez dot ezer zitalagorik topetan persona bat gaixorik dagoanean iraztea baino. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Una vez concluido el debate, vamos a someter a votación la moción. La proponente ha manifestado que no acepta la enmienda. Por tanto, votemos la moción. Vamos a esperar a que todos/as estén sentados/as.

¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente: se han emitido 50 votos en total. Ha habido 10 votos a favor, 34 en contra y 6 abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

Punto octavo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001624](#))

**Autor:** Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

**Asunto:** Moción derivada de Interpelación sobre Transición y Gobierno Digital.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2021/0001624](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (33A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002347](#))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001624SE](#))

**Egilea:** Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

**Gaia:** Trantsizio eta Gobernu Digitalari buruzko Itaunetik eratorritako Mozioa

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001624SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (33A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002347](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo. En el último Pleno de Control, explicamos claramente que la transición digital constituye y constituía, subrayamos, un reto que todas las instituciones deben afrontar, porque se trata de una modificación necesaria, pero, como todas las modificaciones, porque tiene sus riesgos y oportunidades. Por ello, que era muy importante determinar cómo se va a llevar a cabo el proceso de digitalización, quién lo va a dirigir y desde dónde va a partir. En la interpelación, analizamos dos ámbitos principales, tanto a nivel interno como a nivel externo. Destacando los riesgos existentes en cada ámbito, subrayamos que la transición digital va a provocar grandes cambios a nivel interno, tanto en el personal como en la propia estructura de la Diputación. Que, ahí, para sacar adelante la modificación, sería necesario o debía tenerse en cuenta cómo se van a llevar esas modificaciones, ya que, para su consenso, vamos a tener que convencer tanto al personal como a los/as directores/as..., si no, porque va a ser muy difícil que se den unas modificaciones reales.

Por ello, en el primer punto de nuestra moción, planteábamos los pasos a dar para la digitalización, en la medida que afectan al personal de la Diputación Foral de Bizkaia, que se debían desarrollar con el mayor consenso posible, impulsando la negociación sindical que resulta imprescindible para ello. En la interpelación, la señora Diputada Elixabete Etxanobe Landajuela mencionó que la Diputación estaba trabajando en un plan de personas para preparar la organización para el futuro, cuyo objeto es determinar los perfiles profesionales que la Diputación Foral de Bizkaia va a necesitar en los próximos años.

Kontrolerako Osoko Batzarrean, Elixabete Etxanobe Landajuela diputadu andreak Bizkaia Egiten Proiektuan aitazen dan eta Bizkaiko Foru Aldundia etorkizunerako prestetea helburu daukan personen planari buruz berba egin euskun. Ekintza horretan, azaldu egiten da proiektu eredugarria jarriko dala abian, Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketea etorkizunari begira prestetako, barritzaileagoak, arinagoak eta eraginkorragoak diran egikera barriak behar dauzan egoera aldagarri barria kontuan hartuta.

Proposamen ona dala uste dot. Uste dot Bizkaiko herritar guztiek eta Bizkaiko Ogasuneko behargin guztiek eskertu egingo ebela 2020ko Errentearen gaur eguneko kanpaina proiektu eredugarriaren bidez egin bazan, batzuoak proponidu genduan lez.

Sin embargo, también se aprende de los errores. En el primer punto de la transaccional que hemos consensuado, queda claro que existen la intención y el compromiso de desarrollar con el mayor consenso posible los pasos a seguir para la creación de un gobierno digital inclusivo y que, en la medida que afectan al personal de la Diputación Foral de Bizkaia, se va a impulsar la negociación sindical. Creo que debemos valorar positivamente el consenso alcanzado, y así lo hacemos.

En la rueda de prensa celebrada a finales del mes de abril por parte del Diputado General, Unai Rementaria Maiz, comentó al hilo de la campaña de renta que a veces las innovaciones conllevan riesgos de ese tipo. Lo cierto es que creo que esa frase no es del todo exacta. ¿Que las innovaciones que se imponen o las innovaciones que se realizan inmediatamente causan problemas? Sí, pero las innovaciones que se han trabajado y las innovaciones basadas en un amplio consenso no tienen por qué causar problemas. Es cierto que es difícil realizar modificaciones siempre, innovar, pero los problemas surgen especialmente dependiendo de cómo se lleven a cabo esas innovaciones. Hoy, nos hemos decantado por la vía basada en el consenso, y es realmente positivo.

El segundo punto de la transaccional se refiere al nivel externo, y se plantea que la mayoría de la ciudadanía sea partícipe del proceso de digitalización, que, en colaboración con el resto de instituciones vascas, se adopten medidas para el impulso del empoderamiento tecnológico de toda la ciudadanía de Bizkaia. Ahí es donde hemos incluido la enmienda presentada por parte de Elkarrekin Bizkaia. Esas medidas van a tener en cuenta

fundamentalmente a los colectivos más vulnerables ante la llamada brecha digital. Es importante impulsar el empoderamiento tecnológico de la ciudadanía y adoptar medidas contra la brecha digital. Es cierto que la señora Diputada comentó que va a mantener la atención presencial y que su intención era abrir más oficinas comarcales Gertu. Así lo anunció, que dentro de poco se sumaría la de Balmaseda a las que actualmente existen en Durango, Bermeo y Gernika. Además, unos días más tarde, el Diputado General anunció que se abrirían otras cinco nuevas oficinas en Mungia, Markina, Igorre, Bilbao y Getxo. Lo cual también resulta positivo, pero, para que la digitalización avance, debemos poner a disposición de la ciudadanía los recursos tecnológicos y la formación tecnológica pertinentes, para que, como decimos muchas veces, nadie se quede atrás, ni siquiera en el proceso de digitalización.

Por último, hemos alcanzado el acuerdo relativo al ecosistema GOVTECH. Quizá haya sido lo más complicado, por un lado, porque aún hay una concreción menor y, por otro lado, porque seguramente tenemos ideas distintas en torno a ese ecosistema. En nuestra moción planteábamos que el proceso de creación de ese ecosistema se desarrollase desde la propia Diputación Foral de Bizkaia, garantizando los recursos que son necesarios y generando empleos públicos de calidad. Desde ahí, ese desarrollo plantea que todas las personas trabajadoras de ese ecosistema sean personal propio. Es cierto que se necesita una unidad de ese tipo. Yo también lo planteé para impulsar este proceso, y parece ser que se va a realizar así, a pesar de que aún no se ha desarrollado esa oficina de datos o lo que será esa oficina. Sin embargo, también está claro que se deberán realizar otras actividades en colaboración con universidades, centros de investigación o una serie de empresas, a través de convenios y similares.

Ganera, erdibidekoan, argi dago Bizkaiko Aldundia dana ekosistema horren sorrerea zuzenduko dauana. Ekosistema horretan, hain zuzen be, enpresek, unibersidadeek eta ikerketa-zentroek parte hartuko dabe, administrazioaren urtenbide eta prozesu guztietan barrikuntzea bultzatzeko. Horretarako, erakundeko behargin guztiei emon behar jake jaubekuntzea, ekimeneko funtsezko eragileak izateko behar diran baliabideak zein prestakuntzea eskaini eta bermatu behar dira, kalidadeko enplegu publikoa sortu behar da eta alkarlana bultzatu behar da sektoreko era guztietako enpresakaz, erakunde publikoakaz, arlo akademikoagaz eta jakintzea zein barrikuntzea sortzen dabezan beste erakunde batzuekaz.

Creemos que el acuerdo alcanzado es un paso, por lo que nosotros/as vamos a retirar nuestra moción, y vamos a apoyar la transaccional que hemos suscrito el PNV, el PSE, Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. A continuación, pasando al turno de los grupos que han presentado enmiendas, señor Escalante Mesón, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias. Buen mediodía a todos/as. En primer lugar, gogoratu aurton 22 lagun hil dirala laneko istripuetan eta, Palestinan, 250 hildako baino gehiago dagozala okupazioagaitik. Ondo da. Gai honi buruz, ekimen honi buruz berba egitean, esan gure ikuspegitik ekimena, proposamena ona zala, ikusten gendualako gure adostasuna daukien 3 ardatzak egozala. Batetik, partaidetzan oinarrituta garatutako gobernu digitaleranzko hobekuntzak proponiduten ebazan, eta, gero, beharrezko baliabideak eta kalidadeko enplegua bermatu behar zizala aititzen eban. Gero, azkenik, tira, egia esan, 2. puntuaz, Bizkaiko herritar guztien jaubekuntza teknologikoa aititzen dau. Bat gentozan ideakaz, eta ikusi egiten dogu lortu dan akorduak hiru idea horreei eusten deutsela. Hori dala eta, ba, hortxe gagoz, sinaduran. Esan beharra dago funtsezko arazoa daukagula, hau da, nahiz eta, nahi-ta aurreko puntuaz gobernu digital honen aldeko apustua egiten dogula esan dogun,

digitalizazioak sortzen dauan arazo hori daukagu, hau da, desbardintasunak handitzen dauzala Bizkaian, eta hori zelan edo halan desagerrarazo beharra dago edo aurka egin behar jako. Horrexegaitik proponiduten genduzan neurri zehatzak edo zehaztasunak eten digitala zelan ekidin edo gitxitu jakiteko.

Orain dala gitxi, EUSTATEk zenbaki batzuk emon ebazan argitara. Astelehenean, oker ez banago, telekomunikazioen eguna zala uste dot-eta, jakinarazo egiten zan zein zan Interneten erabilera Euskadin. Horren arabera, 25 eta 34 urteko edade-tartean, biztanleen %99,9k darabile. 65 urtetik gorako biztanleen artean, ostera, %42koa da.

Halanda be, kontuan hartu daigun Bizkaiko 65 urteko biztanle horreek biztanleen laurena dirala gitxi gorabehera, hau da, eten digitala edadearen arlokoa da. Dana dala, ez gara edadean bakarrik geratzen. Gizarte-mailearen alborapena daukan eten digitala dago, eta genero-arloko beste alborapen bat dago. Badago jentea zuzenean ez dala bere hezkuntzan informatiketa erabilten ikasteko jakintzarik euki ez daukalako, zuzenean sartzeko baliabide teknikorik ez daukalako baino. Izan be, baleiteke sartzetik ez eukitea, beste batzuetan esan dogun lez, eta, agian, ezin dabe bermatu hozkailua beteta eukiko dabena edo hozkailu hori elikatzeke elektrizidadea eukiko dabena. Gure eretziz, arlo publikoak neurri horreek bermatu behar dauz, eta barriro dinot, eta, amaitu egingo dot, askoz buelta gehiago ez dagoalako. Bat gatoz lortu dan akorduagaz. Ez da nahikoa jorratu beharreko guztiarentzat, baina bidea emoten dau, Arantxak adierazo dauanez, hobekuntzak egiten segiduteko eta digitalizazioak sortzen dauzan desbardintasunei aurka egiteko. Tira, hortxe dago gure sinadurea, eta, horregaitik, ekimenaren alde gagoz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. A continuación, señor Ortiz Zaballa, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as, de nuevo. Gaur, joan dan apirilaren 28ko Osoko Batzarrean Herri Administrazinarako eta Erakunde Hartu-emonetarako diputaduari egindako itaunaren ondorioz EH Bilduk iragaitza eta gobernu digitalari buruz aurkeztu dauan mozino hau daukagu eztabaidagai. Euskal Sozialistontzat berebiziko gaia da, eta, izan be, pandemia honen ondorioz, herritarren eta administrazioaren arteko hartu-emonetarako gaur eguneko ereduaren alde onak eta txarrak ikusi ahal izan doguz. Euskal Sozialistok prozesuen digitalizazioaren alde gagoz, baina ez doguz inponidu gura, kontuan hartu behar dogulako persona bakotzak, herritarrek zein administrazinoko beharginek, bere erritmoa daukala arlo digitalean. Halanda ze, digitalizazio berneratzailea, bai, baina apurka-apurka, administrazioagaz hartu-emonetan jarteko orduan inork arazorik euki ez daian. Halanda ze, apurka-apurkako prozesua izan behar da, eta, bertan, administrazioa, baita bertako beharginak, eta herritarrak eurak egon behar dira alkarreraginean, premina zehatzak zein diran ikusteko eta urtenbide egokiak ezarteko.

Euskal Sozialistontzat, arlo honetako funtsezko trebetasunen inguruko prestakuntzeak funtsezko zeresana euki dau, eta digitalizazioa derrigorrezkoa izan behar da maila eta diziplina akademiko guztietan, eten digital hori gitxitzen joateko. Bien bitartean, ostera, 3 ereduak iraun beharko dabe batera: digitala, telefono bidezkoa eta aurrez aurrekoa, inor atzean geratu ez daiten eta baztertuta sentidu ez daiten.

Elkarrekin Bizkaiak aurkeztu deuskun zuzenketeari jagokonez, onartu egiten dogu, jakina, eta 2. puntuari agertzen da. Mozinoari berari helduta, azkenean, lanaren emoitza moduan, erdibideko zuzenketea lortu dogu, eta, gure eretziz, gaiaren munaren adierazgarri onena da, hau da, gobernu digitaleranzko iragaitzan modu antolatuan aurrera egitea, inor atzean itxi barik. Hori dala eta, holantxe geratuko litzateke mozinoa:

1. puntua. Gobernu digital eta barneratzailearen eraketarako emon beharreko urratsak garatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko beharginen artean eragina daukan neurrian, eta, horretarako, ahal danik eta adostasun handiena lortzea eta beharrezko negoziaketa sindikala bultzatzea.

2. Beste euskal erakunde batzuen laguntzaz, behar besteko neurriak ezartea, bizkaitar guztien jaubekuntza teknologikoa sustatzeko eta, holan, ahal danik eta herritar gehien digitalizazio-prozesuko partaideak izateko. Neurri honeek eten digitalaren aurrean zaurgarrienak diran giza taldeak kontuan hartuko dabez batez be.

Zera dino 3. puntuak: Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutesie lurraldeko GovTech sektoreagaz lotutako teknologien, enpresen, unibersidadeen eta ikerketa-zentroen ekosistemaren sorrera zuzendu daiala. Horretarako, barrikuntzea sustatu behar da administrazioaren urtenbide zein prozesu guztietan, erakundeko beharginei emon behar jake jaubekuntzea, ekimeneko funtsezko eragileak izateko behar diran baliabideak zein prestakuntzea eskaini eta bermatu behar dira, kalidadeko enplegu publikoa sortu behar da eta alkarlana bultzatu behar da sektoreko era guztietako enpresakaz, erakunde publikoakaz, arlo akademikoagaz eta jakintzea zein barrikuntzea sortzen dabezan beste erakunde batzuekaz.

Amaitzeko, erdibideko zuzenketea daroan mozinoaren alde gagozala adierazo besterik ez daukagu. Eskerrik asko talde sinatzaile guztiei egindako ahaleginagaitik, hain garrantzitsua dan eta hainbesteko gaurkotasuna daukan gaian adostasuna lortzarren. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Ortiz Zaballa. Señora Ibernía Belamendia, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **IBERNIA BELAMENDIA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Tras estudiar la propuesta realizada por parte de EH Bildu sobre la transición y gobierno digital, creemos que la Diputación Foral de Bizkaia está trabajando activamente para el impulso de la digitalización del modelo de prestación de servicios. Ofreciendo cercanía y simplicidad a través de infinidad de canales digitales, esa evolución resulta especialmente importante en una situación excepcional como la que estamos padeciendo actualmente. De hecho, los canales digitales vinculados a las personas y a sus necesidades y enfocados a ellos adquieren un protagonismo especial. En un contexto donde se deben adaptar las políticas indefectiblemente, necesitamos otro modelo más variable. Más flexible, para atender a la ciudadanía en cualquier lugar y en movimiento, facilitando una mejor respuesta a sus esperanzas y necesidades. La crisis sanitaria, en estos últimos años y en la inversión realizada en la digitalización de la administración, ha supuesto un incentivo definitivo para ponerlo en valor, por lo que ha beneficiado tanto a los/as empleados/as públicos/as como a la sociedad en general. La Diputación quiere continuar, hoy en día más que nunca, agilizando esa transición a un gobierno digital inclusivo para Bizkaia, situando a la ciudadanía en el centro de sus políticas y utilizando tanto el desarrollo tecnológico como el uso de datos como instrumentos fundamentales para la consecución de ese objetivo.

Foru Aldundiak estrategia digitalaren inguruan daukan politikeak, esan danez, bere horretan segiduten dau, eta hiru arlotan garatzen da: erakundetik kanporanzko iragaitzea, eta, zentzun horretan, Aldundiak apustu irmea egiten dau kanal ugariko arretarbitzuak indartzeko. Holan, arreta digitalean ez eze, telefono bidezko arretearen bilakaeran be badabilz lanean, betibe, jakina, aurrez aurreko arrete bermatuta.

Erakundearen beraren barrurantzko iragaitza digitala be bai. Erakundeko personek ingurune digitalerako gaitasun eta jakintza barriak beharko dabezanez, profil profesionalak egokitu beharko dira.

Hirugarrenez, lurraldeko ekintzaitetza zein barrikuntzea bultzatzea helburu daukan iragaitza digitala. Bertan, hain zuzen be, GovTech arloko ekosistema ekintzailearen sustatzailea izan daiteke Foru Aldundia.

Bizkaiko Foru Aldundiko beharginen gaiari jagokonez, bat gatoz mozinoaren lehenengo puntuagaz, barruko arlotik, iragaitza digitala lortzeko nahitaezkoa dalako Aldundiko beharginen profil profesionalak egokitzea.

Hementxe sortzen da Bizkaia Egiten Proiektuko Personeren Plana, eta Bizkaiko Foru Aldundiak hurrengo urteetan beharko dauzan profil profesional barriak zehaztea dauka helburu. Zer esanik ez, negoziaketa kolektiboa Personeren Planaren proiektuko fase bakotxean txertatuko da, beharrezkoa danean. Esan dodanez, gobernu digitalaren ondorioz egikera barriak behar diranez, prestakuntzea behar da, administrazio publikoko beharginak prestau behar dira trebetasun digitaletan. Diputaduen agerraldian azaldu zanez, lan horren zati bat abian dago, eta Funtzino Publikoaren Arloak trebetasun barrietarako abian jarritako Prestakuntza Planaren parte da.

Nabarmendu egiten dogu negoziaketa-mahaian bertan negoziatu eta onartu beharra dagoala lanpostuaren araberrako prestakuntza berezia.

Herritarren jaubekuntza teknologikoa berbabide daukan bigarren puntuari jagokonez, horretan be bagagoz ados, bere idazketea hobetuta eta giza talde zaurgarrienak nabarmenduta. Gure eretziz, herritarrentzako arreteta biztanle-segmentu guztietara ailegau behar da, eta, horretarako, beharrezko tresnak emon behar jakez. Kanal ugariko arreta-ereduak era guztietako herritarrek hartzen dauz kontuan, eta eredu honek behar besteko tresnak daukaz herritarrei administrazioagaz daukiezan hartu-emonetan laguntzeko eta babesteko, hau da, telefono bidezko kanala, aurrez aurreko kanala eta digitala. Aurreko ideari erreparauta, erregistroaren arloko laguntza-bulegoetako funtzionario gaituek izapideak egiten laguntzea daukie eginkizun, besteak beste. Halanda be, diputadu andreak agerraldian adierazo ebanez, Aldundiak badaki oraindokarren badagoana zer eginik, arlo digitaletan zailtasun handienak daukiezan giza taldeakana ailegeteko; berbarako, hirugarren sektorea eta hirugarren edadeko giza taldeak. Hori dala eta, funtsezkoa izango da euren ordezkari diran instituzinoakaz lan egitea, baita personakaz eurakaz be. Helburua inor atzean ez ixtea danez, gura taldekook egiten dan lana babesten dogu, eta Aldundiak arlo honetan garatzen dauzan planen etenbako hobekuntzearen aldeko apustua egiten dogu.

Hirugarren puntuan, beste idazketa bat proponiduten da, Bizkaiko Foru Aldundiak lortu beharreko helburua hobeto zehazteko, eta erdibideko zuzenketako talde sinatzaile guztiek adostu dabe.

Batetik, datuaren bulegoa Bizkaiko Foru Aldundiko unidatea izango da, bertako behargin funtzionarioek eratuko dabe eta bertako arduradunak zuzenduko dau. Hasiera batean, eginkizunak zuzendaritza nagusi bati atxikiko jakoz, eta, erakundearen bertan, datuetan oinarritutako kulturarentzako aldaketea zuzentzea eta atontzea eukiko dau helburu.

Gu geu be bagagoz kezkatuta datuen babesagaitik. Hori dala eta, Aldundiak datuen segurtasunaren arloko indarreko arautegia bete eta ezarri egiten dau. Era berean, datuen babeserako arduradunak be badaukaz.

Bestetik, GovTech sektorea aitatzen dogunean, erakundeakaz, korporazio handiakaz, unibersidadeakaz, zentro teknologikoakaz lan egin ahal izateko esparrua sortzea



daukagu berbabide, eta, bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako preminapean edo eragileren batek sortutako ideapean, urtenbide barritzaileak garatu eta ezarri ahal izango dira Bizkaiko Foru Aldundiko ekosistema teknologikoan. Bai geure eskumenen arloan bertan herritarrei emondako zerbitzu moduan, bai geure prozesu administratibo edo teknologikoren bateko hobekuntza moduan. Halanda ze, amaitzeko, GovTech sektorea behar besteko bidea da, emoten doguzan zerbitzuetan bertan barrikuntzak egiteko eta lurraldean, administrazioan sektore teknologikoa dinamizetako. Horren ondorioz, talde guztiakaz adostuta dagoan eta lehen aitatu dan idazketea proponduten da. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Ibernia Beamendia. Por último, Señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko. Egun on danoi, barriro be. Herri Administrazioarako eta Erakunde Hartu-emonetarako Sailaren 30 milioiko aurrekontua, %10 gehitu ei zana, aurkeztu zanean, herritarrei zerbitzu hobek eta modernoagoak eskaintzea zehazten zan helburu moduan, eta, horretarako, arinagoak, barritzaileagoak eta eraginkorragoak ziran egikera barriak behar ziran. Era berean, esan egiten zan herritarrek helburu eukazan Aldundi proaktiboa behar zala. Horri esker, prozesuak errazten ziran, eta datuaren erabilera segurua sustatzen zan personearen eta udalerriaren onerako. Horretarako, %42ko gehikuntzea zuzkitzen zan Foru Plan Informatikoan, eta, esaten zanez, herritarrentzako arreta hobea, aurrekontuaren %26,43ko gehikuntzea.

5 hilebete igaro dira aurrekontuak aurkeztu ziranetik, eta zer ikusten dogu bizkaitarrok? Zelan sentiduten gara bizkaitarrok? Ezelako zalantza barik, bizkaitarrok bertan behera itxi gaituela sentiduten dogu, eta, ezelako zalantza barik, galduta gagozala sentiduten dogu. Oro har, era guztietako administrazioek pandemia erabili dabe, herritarra euren bizitzatik kentzeko. Tamalgarria da, baina orain auzokideek ikusi egiten dabe egunero Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako edo euren udaletako atera hurreratzen dirala eta, orain, oro har, harrerea egiten deusena segurtasun-zaindaria dala eta arretea jasoteko hitzordurik daukien edo hitzordurik ez daukien itantzen deusela. Lehen, ostera, geure administrazioen arretea jasoten genduan guztiok. Zuontzat digitalizetea dana gure auzokideentzako banakako arretea bertan behera ixtea da. Gure auzokide gehienek bilatzen daben banakako arretea. Pagotxea da zuontzat, baina auzokideentzat ez. Pandemiako une larriena aspaldi jazo bazan be, ez dira zerbitzuak berreskuratu ez Aldundian ez instituzino bakar batean be. Izan be, zuok zerbitzuak desegin zenduezan, baina ez dozuez barriro abian jarri, eta hori lotsagarria da.

Alderdi Sozialistako kideak lehen esan dauanez, baleiteke aurrez aurreko zerbitzuak inoiz ez itzultzea, eta horrek nahikoa kezkatuta itxi nau. Milaka eta milaka bizkaitarrek ez daukie trebetasun digitalik, edo ez daukie sareetan sartzeko aukerarik. Digitalizazio-prozesua aurrera egiten joan behar da, baina apurka-apurka joan behar da aurrera egiten, eta ez noraezean, Aldundi hau egiten dagoan lez. Zer jazo da errentearen kanpaineagaz? Gaur goizean ikusi dogu. Aldundiak, gaur goizean bertan kide batek esan dauanez, Aldundirako aurrez aurreko bisitaldiak berreskuratu behar izan dauz, errenta digitalerako sistemeak ezetarako balio ez daualako. Jenteak Ogasunera joan gura dau bere errentea egiten, edo bere bankura. Dana dala, hau ez da ezer, prestau zaitezze Batuz Programea ailegetan danerako, datorren urtean mehatxatuko gaitu-eta. Errentea deskalabrua izan dala uste izan badozue, atera kontuak datorren urtean Batuz Programea, eta soziedadeetan zein BEZean sartuko gara, erabateko deskalabrua izango da. Han, ezin izango dogu Lantikeko zuzendaria bota, bota egin dabelako. Orain, beste bat bota gura dabe, baina etorriko dana...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, señor Andrade Aurrecochea, céntrese en el tema que estamos tratando, y no retome un tema anterior. Muchas gracias.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Muchas gracias. Ez gagoz hobekuntza teknologikoaren kontra. Ez, ez. Ezelako zalantza barik, Zuntz Sareak Udalerrietara, Bizkaiko azken bazterreraino, Hedatzen Laguntzeko Foru Programea ona da. Behin eta barriro adierazo deusuet, baina zuntza hedatzen badogu be, ez dau esan gura lehenengo jasoten dauanak trebetasun digitalak daukazanik, zuntza erabilten dakianik edo zuntza erabili daikean elementua, ordenagailua, mobikorra daukanik. Gure eretxiz, urratsez urrats, apurka-apurka, joan beharra dago, ezin da itsumustuan joan, Aldundi hau doan lez. Mozino honek eskatzen dauanari jagokonez, Aldundiaren proposamenak hartzen dauz bere gain. Ni neu ez nago ados eurakaz. Mozino honetan, administrazinoaren ikuspegitik berba egiten da digitalizazinoari buruz. Funtzionarioek teknologia digitala ikasi daiela, baina zer jazoten da bizkaitarrakaz? Nasaitzeko eskatzen dot nik. Nik neuk bulegoak gura dodaz, eta beharginen arreteja jaso gura dot, ez makina batena edo teleoperadore batena. Egunen batean, eta holantxe jazoko da, ez da inor bulegora joango, eta orduan zarratu beharko dira bulegoak. Ez daiguzan bulegoak zarratu eta ez daigun jentea telefonoa hartzen behartu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecochea. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. En este segundo turno, quisiera subrayar la transaccional alcanzada. Yo creo que es un acuerdo muy positivo, y yo espero, por una parte, para que este acuerdo se materialice, ya que aún debe materializarse, que se concrete el consenso que hemos alcanzado. Por otra parte, que del único proceso de digitalización que tenemos actualmente, que es el de la campaña de renta, que hemos debatido en tantas ocasiones, que de ahí también aprendamos, es decir, ha sido un compromiso que hemos alcanzado aquí, por un lado, a nivel interno, para tener en cuenta qué se ha de modificar y que alcance el mayor consenso posible. Por otro lado, a nivel externo. Bueno, no se recoge en la moción, pero existe el compromiso de mantenerlo tanto a través de las páginas webs, es decir, que será multicanal, que se va a mantener la presencialidad. No es solamente que se vaya a mantener, sino que se van a incrementar las oficinas Gertu. También que se va a impulsar el empoderamiento tecnológico para seguir avanzando en la digitalización y que se van a impulsar medidas contra la brecha digital. Yo creo que eso es positivo y que, sinceramente, ese es el camino que debemos recorrer cuando pretendemos realizar modificaciones: alcanzar el mayor consenso posible.

Alderdi Sozialistako ordezkariak adierazo dauanez, modu antolatuan egin behar da aurrera. Badinot, hain zuzen be, modu antolatuan eta adostasunaren arabera egin daigun aurrera, baina errentearen kanpainan egin daigun. Egin daigun, nik neuk ez dodalako oraindokarren itxaropena galtzen fiskalidadearen arloan. Beste hainbat gaitan be egin daigun. Nire eretxiz, hauxe erabili beharra dago, aldaketetan benetan aurrera egiteko orduan Foru Gobernuak adostasunerako dagozan beste aukera batzuei buruz be hausnartzeko. Izan be, egoera honek, pandemiak, batez be, askotan esan dogunez, krisi ugariko egoereak, politikak aldatzen behartzen gaitu, gauzak jarten deuskuz begien aurrean. Tira, ba, beste era batera, danok aldatu gaitu, eta Foru Gobernu honen gobernantza-eredua be aldatuko daualakoan nago, nire eretxiz gai honetan lortu dogun lez.

Quería corroborar ese acuerdo también en ese tercer apartado: cómo se va a crear ese ecosistema. Lo he comentado antes, quizá haya sido un poco lo más complicado, o,

quizá es donde más hemos diferido los/as proponentes y los/as miembros del Gobierno Foral. Sin embargo, ahí también se ha visto que es posible alcanzar acuerdos. Es cierto que, cuando aún no se ha concretado y, en ese sentido, cuando hay pocas concreciones, es más sencillo alcanzar acuerdos, pero por ello quiero realizar un llamamiento. Por una parte, creo que los principios que se fijan son buenos, son adecuados, van por buen camino. Hemos planteado el liderazgo de la Diputación, hemos planteado el empoderamiento del personal y de las personas, hemos planteado el impulso del empleo público de calidad y hemos planteado la colaboración tanto de las empresas como de las universidades, centros tecnológicos y de todos. Ese es el camino. Ahora, debemos dibujar ese camino, debemos recorrer ese camino y, sin lugar a dudas, yo espero que no se rompa el consenso que hemos alcanzado, sino que el consenso que realmente hemos alcanzado se fortalezca en ese proceso. Creo que nos va a beneficiar a todos/as y que la ciudadanía, especialmente, necesita que se impulsen propuestas de ese tipo y acuerdos de ese tipo, puesto que van a favorecer a la ciudadanía. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Señor Escalante Mesón, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias, de nuevo. Ezer baino lehen, akorduaren lorpenari emon gura deusat balioa. Gatxa da, nahikoa gatxa da, gai batzuetan abiapuntua ikuspuntu desbardinak izan daitekezala kontuan hartuta. Beharbada, horretan, ez litzateke hain gatxa izan behar, arlo publikotik herritarrentzako arrotea hobetzea proponiduten gagozanean. Halanda be, tira, gitxienez akordua dago, eta abiapuntu ona da zentzun horretan. Esan behar dot bat gatzala, aurreko puntuan urten dauan lez, banakako arrotea oinarritzak dala adierazoten danean. Behargin publikoena, ez enpresa sasipubliko batena. Edozelan be, itauna eta mozino hau gobernu digitalera eratortzen diranez, digitalari buruz berba egin beharra dago, eta esan egin behar da, kasu honetan, batez be, behin eta barrero esan behar da ezin dirala edo ezin daitekezala ikuspegitik kendu eten digitalak daukazan eraginak. Zelan azaleratzen dira eta nondik datoz? Zuntz asko hedatzen bada be edo 5G txertoaren edo dana dalakoaren bidez ailegetan bajatzu be, ez da eten digitala desagerrarazoten, baliabideak jarten dira. Dana dala, baliabideak behar doguz, edonora doala be jenteak zuntza, 5G edo dana dalakoa euki daian, gobernu digital hori eskuratzeko aukerea euki daian. Izan be, azkenean, zuntza ez da magia. Jenteak jakintzak eta baliabide teknikoak behar dauz, eta horrantz joian proposamena. Horrexegaitik, geure babesa, eta zentzun horretan segiduko dogu lanean, eten digitala desagerrarazoteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Escalante Mesón. Señor Ortiz Zaballa, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, de nuevo. Egia esan, ez neukan agerraldia egiteko asmorik, uste nebalako nahikoa argia izan nintzala neure lehenengo agerraldian, baina, tira, ezetz emoten dau. Tira, ez daukat ezelako eragozpenik Andrade jaunari erantzuteko. Ezta hurrik emon be!, edo, gitxienez, nire asmoa ez da izan aurrez aurreko arrotea kenduko dogula esatea. Sozialistok esan dogunez, bigarren txanda honetan barrero be baiezkoa emoten deusagu digitalizazino barneratzaileari. Nor bere erritmora, ganera, nork bere erritmoa daukalako, administrazinoko beharginek nahiz herritarrek. Barrero dinot. digitalizazinoa, sistema digitala, telefono bidezko sistemea eta aurrez aurreko sistemea. Hirurak ondo baino hobeto bizi daitezke alkarregaz, ondo baino hobeto bizi daitezke alkarregaz, Andrade jauna, ez zaitez kezkatu, administrazinogaz ezelako arazo barik jarri ahal izango zaralako hartu-emonetan hiru bideetako edozeinen bitartez, esan barri deusudanez.

Gero, tira, barriro esan gura dot guretzat funtsezkoa dala prestakuntzearen gaia, maila akademiko guztietan nahiz administrazinoko beharginen euren prestakuntzan be bai, digitalizazio-prozesu honetan aurrera egiten joateko. Azkenean, tira, ba, gauza txarretatik gauza onak atera behar dira, eta, hau, azkenean, lehen esan dodanez, pandemia hau izan da komunikazio-modu barriak bilatzera eroan gaituana. Hain zuzen be, pasadizu txikia da, baina atzo irratia entzuten nengoala, hirugarren sektoreko pertsonak eskerrak emoten ebezan, digitalizazioari esker pandemiako urte honetan guztian egon ahal izan diralako, egon ahal izan diralako hartu-emonetan eta euren ekintzak, alkarreraginak, etab., etab. eroan ahal izan dabezalako. Hain zuzen be, digitalizazioari emoten eutsiezan eskerrak. Hau da, kontuan hartu behar dogu digitalizazioa lengoaia barria dala. Lengoaia barria da, eta geratzeko etorri da. Dana dala, nork bere erritmoa eukiko dau, nork bere erritmoa eukiko dau, baina ez daigun ahaztu geratzeko etorri dan lengoaia dala.

Urkaregi andreari jagokonez, euki dozun oldea be eskertzen deutsut, baina nik benetan uste dot modu antolatuan egiten gagozala. Modu antolatuan egiten gabilz. Zuk errenta-autorpenaren adibidea jarri dozu barriro. Halanda be, behin baino gehiagotan esan da: arreta digitala, telefono bidezkoa eta aurrez aurrekoa. Ez jako inori ukatu. Ez dot inor ezagutzen, ez dot inor ezagutzen errenta-autorpena aurkezten ez doana lagunduko ez deusielako. Horixe bera da modu antolatuan egitea. Nork bere erritmoa dauka. Administrazinoko bulegoetan aurrez aurre agertu gura ez dauan jentea badago eta era digitalean egin gurago badau, aukerea emon deiogun, baita telefono bidez egin behar dauanari be. Aurrez aurre egin gura dauanari be emongo deusagu aukerea ezelako arazo barik. Modu antolatuan egiten gabilz, baietz, ba, benetan, modu antolatuan egiten gabilz.

Azkenik, beste barik, horixe, ba, eskerrik asko oso garrantzitsua dan eta luzaroan gure artean zeresan handia eukiko dauan gaiaren inguruko adostasuna lortzen ahalegindu diran talde guztiei. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Ortiz Zaballa. Señora Ibernia Belamendia, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **IBERNIA BELAMENDIA** andreak: Muchas gracias. Desde nuestro grupo, queremos dar las gracias a la Diputación Foral de Bizkaia por el esfuerzo que está realizando en el marco del gobierno digital. También por la transición hacia el gobierno digital. Se están poniendo muchos mecanismos en marcha, tanto a nivel interno como a nivel externo, para lograr la digitalización de la administración. El Plan de Formación para el Personal de la Administración, el Plan de Mejora de la Atención Multicanal de la Ciudadanía, a través de la página web, la atención telefónica y la atención presencial. Todo ello con el objetivo de agilizar en la Diputación los procedimientos y trámites que se llevan a cabo con la ciudadanía y con los/as agentes con los/as que están en contacto.

Adierazotako guztiagaitik, EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Elkarrekin Bizkaia taldeakaz adostutako erdibideko zuzenketearen alde gagoz, eta eskerrak emoten doguz talde sinatzaileek adostasuna lortzeko euki daben negoziaketa-borondateagaitik. Muchas gracias a todos/as.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Ibernia Belamendia. Por último, señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Egia esan, barriro dinot. Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Barriro dinot ez dodala ulertzen zelan defendiduten dan mozino hau, baita errenteari buruzko aurrekoa be, guztiz kontrakoari buruz berba egiten ebanean, hain zuzen be. Errenteari buruzko mozinoa une honetan bertan proponiduten dan honen osoko zuzenketea da. Gaur, bertan, osoko batzarren areto honetan autortu da aurrez aurreko arreteta berreskuratu behar izan dana errentearen kanpainan, eta autortu egin da 63 lagunetatik aurrez aurreko asteko 2.553 hitzordura igon garana 3 astean. Izan be, bulegoetako agerpena eskatzen dau jenteak. Ez dau telefonorik, operadorerik eskatzen; eta, arabere gitxiago, hitzordurik ez badaukazu arretarik jasoterik ez daukazula atean dinotsun segurtasun-zaindaria.

Halanda ze, ez dot ulertzen zelan berba egin daitekean gaur bertan berbabide daukaguna lako proposamenari buruz, gaur goizean bertan errenteari buruz berba egin dogunean.

Teknologia eta administrazioen digitalizazioa oso ondo dagoz, baina auzokideei laguntzeko erabili behar dira, ez auzokideen bizitzea zailtzeko. Ez da normala auzokide bat bulego profesional batera etorri behar izatea, udalekuetarako inskripzioa, para los programas de verano, izapidetu deiogun, Internet bidez bakarrik egin daitekealako. Internet ez daukan jentea dago. Edo webgunean sartzen ez dakiana eta bulego batera joan behar dana, bere seme-alabei udalekuetan altea emon dakien. Hori ez da normala, hori ez da gure biztanleen onurarako. Ez da normala Aldundi honen dirulaguntzen eta laguntzen webgunean sartzea eta... Oso ondo dago gauza asko aurrez aurre eta beste batzuk Internet bidez egin ahal izatea, baina batzuetan honelako gauzak eskatzen deutsuez; esate baterako, Ekonomia Jardueren ganeko Zergan altea hartu dozuna egiaztetan dauan agiria. Hau da, zuk eskabidea aurkezten dozu Aldundian bertan, eta ziurtagiria eransteke eskatzen deutsu. Konektatu egin behar zara, ziurtagiria eskatu, kopia, eskaneatu eta Aldundiko bertako beste sail batera bialdu. Edo enpresearen eraketaren eskritura eskatzen deutsu edo eurek emon deutsuen IFKren fotokopia. XXI. mendean. Edo kasuan kasuko erregistroan inskribiduta zagozala adierazoten dauan ziurtagiria eskatzen deutsue, erregistroa Aldundikoa danean. Edo kasuan kasuko federazioan zagozala adierazoten dauan ziurtagiria, federazioa Aldundikoa danean. Horixe ete da erraztasunak emotea? Horixe ete da digitalizatea? Zer da hori? Aldundian dagozan datuak ez eskatzea da arruntena. Papera beteten dozu, eta Aldundiko datuak Aldundiak emoten deutsuz, baina digitalizatea ete da hori edo zer ete da? Ez gagoz auzokideei laguntzen, auzokideen kalterako jokatzeko gabilz.

Halanda ze, ez gatoz bat gaur ekarten dan eta barruko mailan sakontzen dauan proposamen honegatz. Zuotako edonor kalera jasteko eskatu gura deutsuet. Aldundiko bulego batera kurutzatu eta tarte batean, tarte batean, ordubetez jarri atean. Aldundiko atera datorren jente guztia ikusiko dogu. Segurtasun-zaindaria atean gelditzen dau. “Badaukazu hitzordurik?”. “Ez”. “Joan zaitez, eta telefonoz hartu”. “Ez daukat telefonorik”. “Joan zaitez kabina batera”. “Ez daukat kabinarik”. “Egin eizu Internet bidez”. “Ez daukat Internetik”. Onena: kurutzatu egingo dogu, hemendik hur-hur dagozan aholkularitza-enpresa ugarietako batera joango gara eta errentearen kanpaina zelan joaken itanduko dogu. “Zer moduz? Gustuko euki dozue errentearen kanpainearen digitalizazioa?”. Oso erraza. Horixe bera da urratsa, kanal ugariako sistemeak, sistema digitalak, teleoperadoreak, paperak dana jasaten daualako. Paperak diskurso hau jasaten dau, mozino bat jasaten dau, dana jasaten dau, baina errealidadeak ez, auzokideak ez dagoz prestatuta. Lehenengo eta behin, eten digitala murriztu behar da. Jentea erronkak bere gain hartzeko egon behar da prestatuta, eta, bigarrenez, aurrera egiten segidu beharra dago. Jentea prestatuta dagoanean, aurrera egiten segiduko dogu. Bien bitartean, sistema biak aldi berean egon behar dira abian. Aldi berean egon behar dira abian, ez da bat kendu behar bestea bakarrik ixteko. Hori txarto dago. Hori dala eta, proposamen honen aurkako botoa emongo dogula esaten segiduten dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecochea. Una vez concluido el debate, lo que debemos someter a votación es la transaccional. Vamos a esperar hasta que todos/as estemos sentados/as.

Sometemos a votación la transaccional. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay ninguna abstención. Por tanto, el resultado es el siguiente: se han emitido 50 votos en total. Ha habido 48 votos a favor y 2 votos en contra. Por tanto, se ha aprobado la transaccional.

Por último, el punto noveno del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001627](#))

**Autor:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Asunto:** Ley de Aportaciones y la postura de la Diputación Foral de Bizkaia en la negociación de la misma (11/B/18/0002290).

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001627](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (34A)

**Expediente:** ([11/B/20/0002349](#))

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001627SE](#))

**Egilea:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Ekarpunen Legea eta horren negoziazioan Bizkaiko Foru Aldundiak izango dauen jarrera (11/B/18/0002290)

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0001627SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (34A)

**Espedientea:** ([11/B/20/0002349](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Nire ustetan, danok jakin badakigu Euskadin izapidetzen diran lege garrantzitsuenetako baten aurrean gagozana. Izan be, foru-aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen arteko baliabide-banaketea eratzen dau, eta hainbat eta hainbat ekitalditan eratzen dau. Indarrean daukagunak 10 urtetik gorako indarraldia dauka. Halanda ze, euskal administrazio guztien aurrekontuak erasan, baldintzatu, zehaztu eta finkatu egiten dauz. Ganera, zenbaki-kontua bakarrik ez dan legea da, kontu politikoa dalako batez be eta Euskadiko barruko egituraketan daukalako eragina. Izan be, politikea, kontzepzino politikoa eta erabagi politikoa daukaguz berbabide. Guk geuk, jakina, legezotasuna eta beharrezko adostasunak errespetetan doguz. Hoba ez! Halanda be, forutasunaren defendatzaileak be bagara, nahi-ta aspalditik bertan behera itxi dala edo, hobeto esanda, Eusko Jaurlaritza nongurakoaren eta ahalguztidunaren esku itxi dala emoten dauan. Izan be, *ad extra*, Espainiaren generatikoagaz daukan hartu-emonean deszentralizazioaren *casus belli* egin dau, Europako herrialde deszentralizatuenean, ganera. *Ad intra*, ostera, bere eredu ez da deszentralizazioan oinarritzen, hain zuzen be, instituzino erkideetako zentralizazio-politikan baino. Hori dala eta, eskumenak eta, batez be, baliabideak xurgatzen dira, baita, jakina, tokiko erakundeek euren gain hartu behar dabean eta berezkoak ez diran eskumenak be, askotan finantzaketa egoki barik igorten dirala kontuan hartuta. Gizarte-politikan, barbarako.

Gure eretxiz, beharrezkoa da gaur eguneko eredia berrikustea eta, horretarako, Ekarpenei buruzko Legeko koefiziente bertikal eta horizontalen aldaketea aztertzea. Holan, herritarrakandik hurren dagozan administrazioek baliabide gehiago eukiko dabez, hau da, azken batean, foru-aldundiek eta udalek nahikoa baliabide eukiko dabez. Halanda be, danok dakizuenez, proposamen hori ez da barritzailea, eta ez da nire taldearena bakarrik. Beste talde batzuek, beste instituzino batzuek aldaketa-premina berorri eutsi deutesie beste foro batzuetan. Bizkaian, hain zuzen be, eta itaunari buruzko eztabaidan esan neban, 2014an ahaldun nagusia zanak Ekarpenei buruzko Legearen ganean esan eban zerga-bilketarako ratio eskusiboa ez eze, egitateak be hartu behar ebazala kontuan; esate baterako, Bizkaia diru gehien batzen dauan lurraldea, txiroena eta zerga-ahalegin handiena egiten dauana izatea. 2006an, Ogasuneko eta Finantzetako foru-diputadua, Iruarizaga jauna, izan zan koefiziente bertikala jatsi behar zala adierazo ebana. Zera esan eban berbaz berba: “gure proposamena jastea da, baina Gobernuak ez dau holan ulertzen”. Ganera, onartu egin eban Eusko Jaurlaritzeak eroan behar dauan diruari buruzkoa ez eze, koefiziente horizontalari buruzko eztabaidea be edegi behar dala.

Horrezaz ganera, urte honetan bertan, zezeilean, ahaldun nagusiak, Rementeria jaunak, egin ebazan adierazpenak be aitatu gura dodaz. Berak adierazo ebanez, arazoa egon daiteke, Bizkaia ekarpen handiena egiten dauan lurraldea izaten segidu behar dauana jakintzat emon gura badabe. Bere esanetan, arazoa egon daiteke beti adierazo dogun horretan, eta, datu objektibo barik, asmoa Euskal Autonomia Erkidegoko gastu bateratuetan Bizkaia ekarpen handiagoa egin behar izatea bada. Nire eretxiz, niretzat oso garrantzitsua dan gai honetan, aldarrikapen historiko bizkaitarrak izan diranei buruzko berezko mezua, berezko diskursoa, profil politikokoa, eukitea erabagi zan. Hain zuzen be, autortu egin behar deusut nik neuk gogoko daukadana musika hori. Gas-argia, *déjà vu*. 2 hilebete geroago, egunkarietako izenburuetan agortu zan dana, hortxe geratu zalako. Ostean, ez dau jarraipenik euki; eta, arabere gitxiago, esan genduan itaunari buruz euki eban agerraldian. Lehen gauza bat, orain beste bat. Eztabaidagarria zana, ia-ia egintza-unidadean, ona da eta defendidu leitekena. Azken batean, bost ardura, ezta? Buruzagi nazional errespetagarri batek behin esan ebanez, “ez dinot guzurrik, jazoten dana da oso sarritan aldatzen dodala neure eretxia, beste barik”. Ostantzean, hori be ez, joko mediatiko barria baino ez, hain zuzen be.

Azken urteotan, zer jazo da? Eusko Jaurlaritzeak urte honeek guztiak emon dauz Espainiako Gobernuari eskumenak eskatzen. Edozelan be, *ad intra* eredia zelakoa dan ikusi behar dogunean, Eusko Jaurlaritzeak berak foru-aldundiei egindako transferentzien lehortea daukagu, eskumenak finantzaketa egoki barik igorten ez dauzanean edo, batzuetan, era berean, kasu honetan beste batzuenak diran eskumenakaz geratzen ez danean; uren eskumena, barbarako. Halanda ze, nire eretxiz, bertan behera itxi da Bizkaiairen interesen defentsea, eredu baten eraketarako edo eredu zentralizauaren eraketearen alde. Lurralde historiko bakoxtari jagokozan ehunekoak eta posizinoa negoziatu behar dira. Gutako bakoxtak daukan benetako egoerea eta lurralde historiko bakoxteko testuinguru ekonomiko zein sozialean jazo diran aldaketak kontuan hartuta.

Datu batzuk gogoratu gura dodaz. Bizkaian argitara emon diran azken datuen arabera, 2019ko ehunekoak, pisu industrialak %18,93koa da, 2007an %23,69koa zanean. Halanda ze, sektore industrialean pisu gitxien daukan lurraldea gara, baina per capita BPGd txikiena daukan lurraldea be bagara. Azken datuen arabera, Araba, 38.339; Bizkaia, 35.098; eta Gipuzkoa, 37.226. Era berean, uste dot langabeziaren datua oso adierazle nabaria dala, horregaz ados nagoalako. Bilbao jaunak esan ebanez, “bide honetatik segidu ezker, txiroenak izango garanez, uste dot eskuzabaltasunarenak ez deusala inoiz lurraldeko errealidadeari pasetan itxi behar”. Hori dala eta, uste dogu beharrezkoa dala gero Bizkaian daukaguzan instituzinoen finantzaketeagaz zerikusia daukien erespide horreek berregokitzea. Izan be, hau ez da matematika-kontua, teknikariak dagoz horretarako, ikuspegi politikoagaz, erabagi politikoagaz eta lurraldearen ikuspegiagaz be badauka zerikusirik. Geure buruari itantzen deusagu bizkaitarrak zergaitik dagozan ez jagokun posizino batean, geure egoereari buruzko eta geure

posizino sozioekonomikoari buruzko hausnarketea eta azterketea egiten badoguz. Nire ustetan, badago eskuzabala izaterik norberaren diruakaz, norberaren banakako posizinoagaz, baina ezin dira Bizkaiko herritarrak kondenau errealidadetik aldentzen dan eta urrun-urrun dagoan egoerara.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztu daberen zuzenketea aztertu dot, eta onartuko ez dodala esan gura deusuet, literarioa baino ez dala uste dot-eta. Oso boluntaristea dala uste dot, une honetan abstraktua dan terminoa sartzeak, benetako konpromiso praktikorik ez daukanean, “ekidandezkoa” terminoak, hain zuzen be, ez deusalako ezelako ekarpenik egiten geu egiten gabilzan proposamenari buruzko eztabaideari.

Bigarren paragrafoan, zera dinozue zuok: “legea hobetzeko alderdietan sakontzea”. Uste dogu praktikan be ezelako esangurarik ez daukala. Arrisku partekatuari eta zerga-ahaleginari jagokenez, nik ñabardura bi egin behar dodaz hemen. Ez dago ezelako arrisku partekaturik, Eusko Jaurlaritzek superabita daukanean, eta ekitaldi batzuetan 600 edo 700 milioiko superabita euki dau, ez deuskulako inoiz arrisku partekatuari buruz berba egiten. Beti da...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández, por favor, vaya terminando.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bai, mahaiburua andrea, oraintxe amaituko dot. Zerga-ahaleginagaz zerikusia daukanari jagokenez, uste dot pentsau egin beharko dala parametro hori guretzat benetan interesgarria dan metodologia honetan egotea, une honetara arte Bizkaiaeren kalterako baino ez dalako izan eta beste errealidade batzuk hartu beharko diralako kontuan; ekonomikoa eta soziala, esaterako. Holan, benetan, ez dogu atzera egiten segiduko, eta Bizkaiaek Euskadi osoan euki behar dauan posizinoa berreskuratu ahal izango dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Se presentaron enmiendas por parte del grupo Euskal Herria Bildu y por parte de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. Disculpe, señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señoras y señores, buen mediodía. Talde Popularraren proposamena dala eta, Euzko Abertzaleak taldeagaz batera aurkeztu dogu daborduko eskuan daukazun osoko zuzenketea, eta, Batzar Egunkariaren ondorioetarako, irakurri egingo dot. Bizkaiko Batzar Nagusiek Euskal Autonomia Erkidegoan eskuragarri dagozan baliabideak bakotzak esleituta daukazan eskumenen arabera maila instituzional guztien artean ekidandez banatzeko prozesuaren alde egiten dabe.

Bizkaiko Batzar Nagusiek inplikautako instituzino guztiei eskatzen deutsee Ekarpenei buruzko Legearen testu barria adostu daiela, legearen beraren hobekuntzarako alderdietan sakontzeko, arrisku partekatuaren eta zerga-ahaleginaren printzipioak errespetauta. Holantxe adierazoten dogu, hartu-emon egokiagoa dala uste dogulako. Izan be, danok dakigunez, nahikotasunaren printzipioak, baita autonomiaren, koordinazinoaren eta alkarlanaren printzipioak Euskadiko era guztietako maila instituzionaletan baliabideen banaketea arautzen daberen xedapen guztietan agertzen diran printzipioak dira; berbarako, Lurralde Historikoei buruzko Legea, Ekarpenei buruzko Legea edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea edo, oro har esaten deusienez, ETEL. Halanda ze, Ekarpenei buruzko Lege barria idazteko negoziaketa-prozesuan, gure arkitektura instituzionaleko arlo bakar bat be ez da baztertuko



edota gitxietsiko. Era berean, geure gain be ezin dogu hartu, hausnargai daukagun mozinoak hori pentsarazo arren, lurralde bakar baten zilegizko interesen kalterako izan daitekean salerosketea egongo danik.

Euskal Sozialistontzat, argi dago 3 lurraldek osotutako herrialdean bizi garana eta euskal herritar guztiok, Euskadiko edozein lurraldetan bizi garala be, eskubide berberak daukaguzana. Hori dala eta, zerbitzugintza publikoa eskuratzeko aukerea homogeneoa izan behar da, helburua ez dalako batzuei kentzea beste batzuen onura berezira. Izan be, koherenteak, erantzuleak eta solidarioak izan behar gara, hau da, guztien onak mobidu eta gidau egiten gaitu, oraindokarren gure lehentasunezko aukerea persona zehatzak eta, batez be, egoera txarragoan dagozanak dirala ahaztu barik. Danok dakigunez, era bateko eta besteko maila instituzionalen nahikotasuna lortzeko, diru-bilketearen ehunekoak emon behar jako euretako bakotxari, banaketearen bidez, eta Lurralde Historikoei buruzko Legearen 22.2. artikulua aginduz zehazten da, indarreko ordenamendu juridikoaren arabera maila bakotxak esleituta daukan eskumen-banaketea kontuan hartuta, hain zuzen be. Ehuneko horri koefiziente bertikala esaten deusagu, eta Kontzertu Ekonomikoagaitiko diru-bilketearen %70,04 banatzen deuse instituzino erkideei, kupoaren arabera Estatuagazko betebeharrei aurre egin ostean. Ganerako %29,96a, ostera, lurralde historikoen esku geratzen da, gero arrisku partekatuaren printzipioaren ezarpenaren arabera foru-aldundien eta udalen artean banatzeko.

Halanda ze, hain funtsezkoak diran zerbitzu publikoakaz zerikusia daukan guztia, hau da, hezkuntzea, osasuna, segurtasuna, gizarte-politika inbersinoa, diru-sarrerak bermatzeko erretea, enplegurako biztugarriak..., Eusko Jaurlaritzeak egikaritzen dau, eta, funtsean, koefiziente bertikal horren eraginpean dago hori guztia. Hori dala eta, zera itantzen deusagu geure buruari: erabilgarria eta zentzuzkoa ete da Eusko Jaurlaritzeari egiten jakon ekarpenetik dirua kentzea, Euskadiko zerbitzu bateratu asko bere menpe dagozanean? Noren mesederako da baliabideen murrizketa hori? Gaur egun, autonomia-erkidegoko tokiko erakundeen banakako gaitasun finantzarioa oso mueta askotakoa danez, euren eskumenak garatzeko finantzaketa egokia daukie guztiek. Autonomia-erkidegoko maila instituzional desbardinek modu egokian beteten dabez euren eskumenak, eta, oro har, gastuaren banaketea ondo islatuta dagoala uste dogu.

Hori esanda, onartuko deustazue, labur-labur bada be, hori dana zelan ezarten dan azaltzea. Ondotxu dakizuenetz, 2018ko bagileko Legearen, ETELen, lehenengo xedapen igarokorrean agertzen dan agindua kontuan hartuta, Herri Dirubideen Euskal Kontsejuari aurkeztu eutsiezan berezko eskumenean eta finantzaketearen azterketa orokorreko, Euskal Autonomia Erkidegoko era bateko eta besteko maila instituzionalen finantzaketearen azterketa orokorreko emoitza, eta, mozinoan proponiduten dan nahikotasunaren printzipioari jagokonez, honako hauxe izan zan ondorioa, eta berbaz berbakoa da: “autonomia-erkidegoko tokiko erakunde guztien banakako gaitasun finantzarioa oso desbardina bada be, euren osotasunean badaukie eskumenak garatzeko finantzaketa egokirik. Era berean, autonomia-erkidegoko maila instituzional desbardinek modu egokian beteten dabez euren eskumenak, eta gastuaren banaketea ondo islatuta dago oro har”.

Bestetik, baliabide-banaketeagaz lotutako baliabideak lurralde bakotxaren pisu espezifikora egokitzea euren arautegi arautzailean dagozan printzipioetako beste bat da. Holan, LHLren 22. artikuluan zehazten dira baliabide-banaketa hori arautu behar daben printzipioak. Erabiliko diran erespideek eta moduluek biztanleko batez besteko gastu arrunt globalerako politika eskainiko dabe aurrekontuaren nahikotasunaren printzipioaren arabera, eta ekidandezkoa zein solidarioa izan beharko da. Behar besteko erespideak hartuko dira, zerga-ahalegina bizteko eta gastu arrunten hazkuntzea moteltzeko, eta foru-aldundi bakotxaren ekarpena lurralde historiko bakotxaren errentearen proporzino zuzenean zehaztuko da, funtsean. Horreetxek eta ez beste batzuk dira legearen arabera aurreikusitako erespideak, eta baliabideen banaketeak errespetau egin behar dauz, Ekarpenei buruzko Legea eroan behar diranak dira-eta.

Gaur eguneko legean, printzipio horreen eraginkortasuna era bateko eta besteko tresnen bidez adierazoten da: BEZaren bilketarako doikuntzak, zerga bereziak, energia elektrikoa sortzeagaitikoa, elektrizidadearena, ekarpen-koefiziente horizontalaren zehaztapenaren bidez. Bertan, hain zuzen be, bere pisu espezifikokoaren %70ek lotura zuzena dauka lurralde historiko bakotxaren errenta erlatiboagaz; eta %30ek, zerga-ahaleginaren inbersoagaz eta doikuntzarako aurreikusitako fondo orokorragaz, koefiziente horizontalak zehazteko orduan ustezko desorekak edo gabeziak arintzeko, hain zuzen be, eta, holan, biztanleko gastu arruntaren politikearen ekidada zein alkartasuna ziurtatzeko. Udal-maileari jagokonez, ETELen aginduz, Ekarpenei buruzko Lege barrian, udalek lurralde bakotxaren baliabideetan daukien gitxieneko partaidetzearen ehunekoak zein dan zehaztu beharko da. Halanda ze, ez da lar gatxa etorkizuneko garapenak abstraktuan zehaztea, danok ondotxu dakigunean ezarpena bera dana gatxena. Hori dala eta, aurkeztu dodan osoko zuzenketea eskaini dogu. Dana dala, guretzat tamalgarria da proposamengileak onartu ez izana. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso. El grupo Euskal Herria Bildu presentó una enmienda. Por tanto, señora Ilardia Olangua, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señora Presidenta, buen mediodía, señores/as junteros/as. Otermin jauna, autortu egin behar dot mozinoa irakurri behar izan dodana barriro, ez nekialako erratu egin nintzan edo gai desbardinei buruz genbilzan berbetan. Hara, denporearen joan-etorri hutsak eragin erabagigarria dauka zuzenbidean, arauak, legeak igarokortasunez irauteko sortzen diralako, ordenamentu juridikoa bilakatu egin behar dalako, egokitze eta lehen ezezagunak ziran egoera juridiko barriei erantzunak emoteko. Agirikoa danez, nekez emon lekikie erantzuna gauzen bilakaera hutsagaitik sortu daitekezan egoera barriei eta, batez be, arlo edo baliabide ekonomikoen menpean dagozan gaietan.

Está claro que difícilmente cabría dar respuesta a nuevas situaciones que puedan surgir por la evolución más acelerada de otros ámbitos, y, principalmente, si se trata de ámbitos económicos. Si se trata de una norma jurídica rígida e invariable y/o sí, y esto lo voy a añadir yo, una ley con una previsión de 5 años lleva 15 años vigente, ¿cuántas veces se ha hablado en esta institución o en las otras instituciones vascas de la otra Ley de Aportaciones? ¿Cuántas veces? ¿Cuántas veces hemos escuchado que la nueva Ley de Aportaciones se va a aprobar a finales de año? Si se trata de una cantinela que se repite año tras año, como resulta evidente, es porque se trata de una cuestión que se incumple año tras año. Por lo tanto, lo primero que queremos comentar es que llegamos tarde. Tal y como conocemos todos/as los/as que estamos aquí presentes, constituye el objeto de la Ley de Aportaciones establecer la metodología para la distribución de recursos y para la determinación de las aportaciones a realizar por cada territorio histórico para los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma. Ese es el objeto de la Ley de Aportaciones. Esa metodología de la ley era de aplicación en el periodo 2007-2011, por lo que llevamos un retraso de 10 años. Durante estos 10 años, se ha aplicado esa metodología basada en 2007. Es cierto que se ha establecido un fondo de ajuste y, hace 2 años, también un fondo extraordinario, pero constituyen unos mecanismos provisionales, se trata de simples parches. En mi casa, se le llama muchas cosas a un parche que dura 10 años, y ni uno solo de ellos constituye un trabajo bien realizado.

Oraindokarren, hiru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari politikoak ez dira behar besteko adostasuna lortzeko gai izan, Ekarpenei buruzko Lege barri eguneratua promulgau daiten. Nork esango leuke alderdi politiko berekoak zariela! Bitxia bada be, zuoi behin eta barriro entzuten deusuet errepiketean adostasuna lortzeko ezgauza diranak geu garala edo beste batzuok garala dinoan lelo hori. Ganera, desbardinak daukazuez berbabide. Hara, herrialde honek, edo herrialde honen zati batek, autonomia-erkidegoa daukadalako

berbabide, merezidu egiten dau indarreko legeria eta, kasu honetan, gaur berbabide daukagun Ekarpenei buruzko Legearen ganean nabil berbetan, errealidadera egokitzea eta mekanismo zuzentzaile gehiago ez ezartea. Izan be, mekanismo zuzentzaileak ezarten diranean, agiri-agirian geratzen da baliabideak banatzeko metodologia iraungita dagoana eta ezetarako balio ez dauana. Alderdiaren barruko interesak albo batera itxi eta herrialdearen interesaren alde egiten hasi.

Estos 10 últimos años, ha habido grandes cambios en el reparto de competencias de nuestras instituciones. Por una parte, contamos con la Ley Vasca de Servicios Sociales de 2008, que se ha desarrollado. También disponemos del Decreto o Cartera de las Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, del decreto que lo establece, de 2015. En el mismo, se determinan los servicios y prestaciones a desarrollar por parte de los municipios, las diputaciones y el Gobierno Vasco. Por otra parte, en 2016, se aprobó la Ley de Entidades Locales de Euskadi, donde se solicitaba que en el plazo de un año se realizara un estudio sobre la financiación y las competencias propias de los distintos niveles institucionales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicho estudio, llamado Informe LILE o ETEL, no se realizó en ese plazo de un año, es decir, se llevó a cabo con retraso, puesto que no se realizó hasta finales del mes de junio de 2018.

Respecto a las conclusiones de ese Informe LILE, en la medida que deben reflejarse en la nueva Ley de Aportaciones, ya que así lo ordena la Ley de Entidades Locales, nos parece que es imprescindible que ese informe se debata en el Consejo de Finanzas Públicas. Digo que es imprescindible que se debata en el Consejo de Finanzas Públicas, que se debata y decida, que se decida si las conclusiones del informe se adecuan o no.

Resumiendo, todas esas modificaciones de las que he hablado ahora afectan directamente al actual coeficiente vertical y horizontal y, por ende, también a la financiación municipal. Lo que quiero decir con todo esto es que resulta imprescindible tener cuanto antes una nueva Ley de Aportaciones. Por todo ello, estamos de acuerdo con el primer punto de la moción del Partido Popular. En esta intervención, he hablado de los repartos de nuevas competencias que se han llevado a cabo en estos últimos años, por lo que resulta importante conocer y establecer la financiación que deben percibir las entidades locales, especialmente, los ayuntamientos. Para poder llevarlo a cabo, necesitamos una nueva Ley de Aportaciones, para afrontar la situación real actual, adaptada a la situación real actual. Para determinar la capacidad económica de la que va a disponer la Diputación Foral de Bizkaia, así como la que va a tener que compartir con los municipios. Esa relevancia requiere alcanzar el consenso más amplio posible. Es complicado, lo sabemos, somos conscientes, porque todas las instituciones subrayan la necesidad de financiación para el desarrollo de sus competencias, por lo que resulta imprescindible buscar el equilibrio. Todas las instituciones deben disponer de la financiación suficiente para el desarrollo de sus competencias, y, cuando hablamos de competencias, no estamos hablando de algo abstracto, estamos hablando del servicio público que prestamos a nuestra ciudadanía para cubrir sus necesidades. Por tanto, al final, estamos hablando de los recursos económicos que son necesarios para que la ciudadanía disfrute de una vida digna, de los recursos económicos de los que deben disponer las distintas instituciones para cubrir sus necesidades. En esto, no podemos tener un punto de vista cerrado: ¡lo mío sí, y los/as demás que se aguanten! Motivo por el que no estamos de acuerdo con el segundo punto de la moción del PP y hemos presentado una enmienda, que explicaré en el siguiente turno. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ildia Olangua. Señora Urquieta Zuzaeta, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Muchas gracias, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días, buen mediodía a todos/as. Ekarpenei buruzko Legearen

esparruko aldateteari edo neurrien ezarpenari buruzko eztabaidea sortzen dan bakotxean, egoera paradoxikoa jazoten da, eta, bertan, erespideak, ustez, helburuak aldatu egiten dira lurraldearen edo norberaren interes politikoaren arabera. Holan, Fernández andrea, zure taldeak bertan, Bizkaiko Batzar Nagusietan eskatzen dau Aldundiak modu bereizgarrian defendidu eta babestu daizala bizkaitarren interesak, edozein adostasun gure lurraldeak Euskadin daukan pisu espezifikora egokitu daiten. Araban daukazun alderdikideak, ostera, lurralde haretarako kanon berezia onartzeko eskatzen dau, akorduan Arabako zerbitzuen finantzaketaren onurarako erespideak sartuta, kontuan hartuta. Beti jazoten da. Beti dagoz interesak, norberarenak, eta beste lurralde batzuen interesen aurrean kosta ahala kosta defendiduteko eskatzen da, instituzino erkideak finantzetako orduan, eta lurralde batek beste baten ganean daukan nagusitasuna salatzeke asmotan eretxi publikoaren aurrean gurata aurkezten diran ustezko bidebakokerietan babesten da defentsa hori.

Izan be, sinistu eidazu, Fernández andrea, osotasun instituzionalari begira Bizkaiaren interesen defentsea areagotuko bagendu, Araban daukazuzan alderdikideek, adibide bat jartearren, arpegiratu egingo leuskigue, eta berbea onartuko deustazu, baliabide ekonomikoaren zati bat kentzen deutsegun despotiko bizkaitarrak garala. Zuk badakizu hori holantxe dana eta, ezelako zalantza barik, Euskadiko arkitektura instituzionalaren euskarria dan legezko tresna horretan oreka-gune egokiena topetea ezin gatxagoa dana eta demagogiaz beteta dagoana. Edozelan be, hori esanda, uste dot egoerearen une honetan funtsezkoak diran gai batzuk nabarmendu behar dirala. Idea horreetako lehenengoa agirikoa da: Euskadin lurralde erkideen, foru-arlokoen eta tokikoaren artean dagoan finantzaketa-eredua ondo doa eta joan da beti, Ilardia andrea. Ondo joan da azken hamarkadotan alderdi politiko desbardinek gobernautako instituzinoakaz, eredua ondo joan da, eta, disfuntzinoak egon badira, alkarren adostasunaz zuzendu dira.

Bigarrena. Ezarritako arautegian Euskadirako zehaztutako finantzaketa eta banaketa ereduak arrisku partekatuen printzipioa autortzen dau irmetasunez. Horrezaz ganera, baliabide ekonomiko publikoaren moltsoaren 100eko baturearen birtualtasuna, hau da, danen artean batzen diran diruak banatu beharreko diru-sarrera guztiak izango dira, eta, zenbat eta diru gehiago batu, orduan eta gehiago egongo da banatzeko; eta kontrakoa, baliabideak gitxitzen badira. Halanda ze, gure ereduak ez dau nahikotasun finantzarioaren bermearen kontzeptua kontuan hartzen. Inork ezin dauz finantzaketa-mailak bermatu, ekonomiaren fluxuaren eta bilketa-mailen menpe egongo diralako.

Hirugarren gaia. 3 maila instituzionalei finantzaketea banatzeko prozesua bakotzak bere gain hartu eta garatu egiten dauzan zerbitzuen eta eskumenen mailegaz lotutako mekanismo biren bitartez ezarten da. Koefiziente bertikal eta horizontalei buruz gabilz berbetan. Lehenengoak autonomia-erkidegoak bere eskumenen garapenean bere gain hartutako kargakaz dauka zerikusia, eta bigarrena lurraldeek gastu bateratuetan ekarpena egiteko daukien gaitasunaren adierazgarri da, hau da, aldundiek nahiz udalek daukiezan erabilgarritasunak.

Laugarrena. Erabagiak alderdien adostasunaz hartzen dira. Legebiltzarrak irakurketa bakarreko prozeduran berretsiko dauan Ekarpenei buruzko Legea Eusko Jaurlaritzearen, Arabako, Bizkaiko zein Gipuzkoako foru-aldundien eta EUDELEK ordeztutako udalen artean hitzartuko da, eta, bertan, zure alderdiak, Ilardia andrea, ordezkari bat dauka Euskal Kontsejuan. Horrezaz ganera, Bilduk aldundi bat gobernau dau urteetan, eta ezertxu be ez eban egin lege honetan ekarpenen bat egiteko.

Bosgarren gaia. Banaketarako zehazten diran erespideak, Otermin jaunak ondo azaldu dauanez, Lurralde Historikoei buruzko Legearen 22. artikuluan adierazotako printzipioen arabera ezarten dira. Legearen arabera aurreikusitako erespideak dira, baliabideen banaketeak errespetau egin behar dauz eta Ekarpenei buruzko Legean kontuan hartu behar diranak dira.

Seigarren gaia. Diru-bilketearen eta ekarpenaren artean dagozan aldeak doikuntzarako fondo orokorraren bitartez mugatzen dira. Era berean, horixe be badago hitzartuta, eta era bateko zein besteko egoeretan jazo daitekezan disfuntzinoak eta eragina gitxitu behar dauz.

Azken gaia. Lege honen esparruan, udal-finantzaketearen gitxieneko ehunekoa be zehaztu beharra dago modu berean. Halanda ze, Ekarpenei buruzko Lege barrian, ETELen aginduz, udalek lurralde historiko bakoaren baliabideetan daukien gitxieneko partaidetzearen ehunekoa zein dan azaldu beharko da. Lege baten aurrean, Euskadiko arkitektura finantzarioa egituratzen dauan legezko tresnea dala eta, gure eretziz, maila instituzional guztietan herrialde honetako zerbitzu publikoen jasangarritasunaren printzipioa defendidu behar dauala kontuan hartuta, osoko zuzenketea aurkeztu dogu. Ordezkarri sozialistek horren zehetasunak azaldu dauz bere agerraldian, eta kontuan hartuko zalakoan gengoan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urquieta Zuzaeta. Por último, señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Agirikoa danez, uste dot aspaldi hasi beharko ginala Ekarpenei buruzko Lege honen aldaketea edo barriztapena lantzen, gabeziak dagozalako eta desorekak dagozalako. Agirikoa da egon badagozana, ostantzean ez litzatekezalako sartu behar euki badaukazan desorekak zuzentzeko moduko elementuak. Halanda ze, esan egin gura dot hau ez dala eztabaidatzeko modukoa, baina uste dot eztabaidatzeko modukoa be ez dala adostasun orokorra dagoala. Nire eretziz, Ganbera honetan, kezka bera daukagu talde guztiok, batetik, egin beharreko banaketan lurralde guztietako maila instituzional desbardinaren nahikotasun finantzarioa bermatzen dauan Ekarpenei buruzko Legea euki gura dogulako. Edozelan be, nire ustetan, basatzen gehiago sartzen garan neurrian, ez dau emoten niretzat funtsezkoak diran gai batzuetan hain ados gagozanik.

Taldeok ez gagoz hain ados, Ekarpenei buruzko gaur eguneko Legearen ondorioz desoreka horreek non jazoten diran baloretan dogunean. Ganera, emoten dau ados be ez gagozala zer elementu aldatu behar diran zehaztu behar dogunean, desoreka horreek barriro jazo ez daitezkan. Ganera, seguruenik, sakonxeago eztabaidatzen badogu, tira, ba, beste desbardintasun batzuk agertuko dira, eta, zelan edo halan, daborduko igarten dira egin diran proposamen batzuetan, bai jatorrizko proposamenean, bai eztabaida honetara ekarri diran era bateko zein besteko zuzenketetan. Proposamen zehatzean sartuta, lehenengo proposamenari jagokonez, foru-aldundiek eta udalek nahikoa baliabide euki daiezen bertan koefizienteak aldatzeko eskaerea egiten dala kontuan hartuta, gai bi nabarmendu gura doguz.

Euretako lehenengoa nahikotasun finantzarioagaz dago lotuta, eta gure taldeak garrantzia emoten deutso horri, bai. Alde horretatik, adierazo egin gura dogu euskal instituzino guztien nahikotasun finantzarioa bermatu beharra dagoala. Horrezaz ganera, ezinbestekoa da gu geu zerbitzu publikoek maila instituzional guztietan behar daben dimentsionamentuari aurre egiteko gai izatea. Oraindokarren, euretako askok antzik be ez daukie legerian bertan eta arautegian adierazoten danagaz. Halanda ze, hori kontuan hartuta, aldi berean, guretzat kezkarria da tartea zelan banatzen dan, baina ez hori bakarrik, hau da, zelan banatzen dan ostean batzen dana. Kupoaren bidez emoten da, eta, hori guztia kendutakoan, zelan banatuko dan lurralde historikoen artean. Era berean, guretzat kezkarria da zenbat batzen dan eta zetan erabilten dan batzen dana. Uste dot garrantzitsua dala Ekarpenei buruzko Legeari buruz berba egiten dogunean, gu geu eztabaida hau aldi berean egiteko gai izatea. Ekarpenei buruzko Legearen inguruko eztabaidea ezin da isolatuta joan, gure zerga-

eredua zein dan kontuan hartu barik, zelan batzen dogun dirua eta gobernu bakoetak zer lehenetasun daukazan zehazten dauzan gastuetan.

Bigarrenenez, guretzat kezkarria da puntu honetan Eusko Jaurlaritza eta bere nahikotasun ekonomikoa ez aitatzea, Bizkaian ez eze, Gipuzkoan eta Araban be herritarrak eragina daukien oso eskumen garrantzitsuak daukazala kontuan hartuta, osasunaren edo hezkuntzearen arloan, berbarako. Ganera, garrantzi handiko beste batzuk be badaukaz, eta gu guztiokan daukie eragina.

Alderdi Popularrak egindako bigarren proposamenari jagokonez, bertan Ekarpenei buruzko Legeak bizkaitarren interesak modu bereizgarrian babestu behar dauzala eta erespideak zein koefizienteak gure lurraldearen pisura egokitu behar dirala adierazoten dala kontuan hartuta, beste gai bi gehitu gura doguz. Guretzat bitxia da, behintzat, eta, horrezaz ganera, Urquieta Zuzaeta andreak be esan dau, Alderdi Popularrak daukan jarrera eztabaidagai hau daukien instituzinoetan, zelan edo halan guzti-guztiek bidebaketat joten dabelako mozino hau eztabaidatzen dauan lurraldeagaz egiten dan banaketean, eta hori nekez sinistu daiteke. Nonor izango da honen guztionen onuraduna! Dinot nik. Ostantzean, danon kalterako ete da? Hori bitxi samarra da niretzat.

Bigarrenenez, guk, Elkarrekin Bizkaiaakook, osotasun moduan ulertzen dogu Ekarpenei buruzko Legea, eta, horrezaz ganera, Euskadiko herritar guztiei modu solidarioan erantzun behar deutse, guzti-guztiei eskubide eta aukera berberak eta babes-maila berbera bermatzeko, edozein lurraldetan bizi dirala be. Ganera, gure ustetan, Ekarpenei buruzko Legeak zelan edo halan bermatu beharko leuke desbardintasun gehiago eta babesbaketan handiagoa sortzen dauzan elementua izango ez dana, behintzat. Alde horretatik, Euskal Herria Bilduk aurkezten eban zuzenketari jagokonez, ados gagoz Ekarpenei buruzko Lege barriak gaur egun lurraldeen artean dagozan desorekak zuzendu behar dauzala esaten danean, baina ezin doguz ahaztu Eusko Jaurlaritzaek daukazan zeregina eta eskumenak, ezta horreek Bizkaiko herritarren ondoizatean daukien eragina be, eta uste dogu zati hori albo batera itxi dozuela zuzenketean aurkeztean.

Hirugarrenez eta azkenik, Ekarpenei buruzko Lege barriaren negoziaketan defendiduko diran proposamenak zein izango diran berbabide daukala kontuan hartuta, proposamen horreek alde aurretik eztabaidatzea eta adostea Ganbera honetan. Proposamen honegaz erabat ados gagozala baino ezin dogu esan. Ganera, mundu guztiak daki zelako garrantzia eta eragina daukazan lege honek, eta, gure eretziz, gitxienez beharrezkoa da Foru Aldundiko Gobernuak bere jarrera zein dan azaltzea, zer jarreraren alde egin dauan, baina, era berean, oposizionoko ganerako taldeok lege honen inguruan egin behar doguzan ekarpenak be entzun behar dauz.

Azkenik, EAJren eta PSEren zuzenketari jagokonez, adierazo egin behar dot euren osoko zuzenketek elementu bi daukazala. Lehenengoan, azaldu egiten dabe baliabide erabilgarrien ekidandezko banaketean babesten dabela, maila instituzional bakoetak daukazan eskumenean arabera. Alde horretatik, zelan dagoan azalduta kontuan hartuta, bat etorri gaitekez adierazpen horregaz, baina adierazpen hutsean geratzen da, *de facto* eta orain arte ez dalako holan izan. Ganera, ez da egia beteten dana, eta hori udalakaz jazoten da, berbarako. Eskumen asko daukiez gizarte-zerbitzuen arloan, eta udal guztiak ez dabilz geratzen, eta hori egin ahal izateko gaitasun finantzariarik be ez daukie. Oso gai zehatzak; esate baterako, etxebakotasuna, aterpetxeen faltea. Ados egon gaitekez, maila bakoetak garatu beharreko eskumenean erespideetako bat izan daitekezala esaten danean, baina, era berean, honako honeetxek be izan behar dira: errealidade sozioekonomikoa, demografikoa, enpleguaren arlokoa eta lurraldeetan bertan dagozan beste hainbat adierazle. Azken zatiari jagokonez, denporea agortu jatanez, neure bigarren agerraldian azalduko dot. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Vamos a pasar al turno de réplica. Para ello, señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Hau eredu-kontua dala uste dot. Nire eretxiz, baleiteke neure lehenengo agerraldian ondo azaldu ez izana. Mozino honek epealdi bi egotea dauka helburu, harik eta Ekarpenei buruzko Legera ailegau arte. Lehenengo epealdian, Bizkaiko posizinoa finkatzeko gai izan behar gara, eta posizino hori garbia, errealistea, sendoa eta adostua izan behar da, ganera. Zera dino nonork: “tira, zuk proponiduten dozun hori ez dator bat Alderdi Popularrak beste instituzino batzuetan proponiduten dauanagaz, Arabako Batzar Nagusietan, esaterako”. Ez. Nik neuk koherentea dala uste dot, edo batzuek ez ete dakie historiari begira zein izan dan forutasunaren, foru-ereduaren jardunbidea?

Lurraldeetan, posizino garbi eta adostu hori eukitea da logikoena eta, gero, gorantz eroatea. Ni neu, behintzat, akorduaren eta adostasunaren aldekoa naz, eta danon artean adostasuna lortzeko gai izan behar gara. Zera dinozu: “izan be, ezin dau Bizkaiak galdu eta ezin dau Arabak galdu. Danek ezin dabe galdu, nonork irabazi behar dau”. Jakina, badago irabazten dauanik, irabazten dauan bat dago beti, Eusko Jaurlaritzea, alegia, eta berberak galtzen dabe beti, hau da, aldundiek eta udalek. Halanda ze, ereduaren zati hori be berrikusi beharra dago, eta koefiziente bertikalagaz dauka zerikusia. Nik neuk ez dot aitatu zenbatean berrikusi behar dan, baina horixe egin daben beste lurralde batzuk egon dira. Edozelan be, uste dot baliabideak hobeto banatu behar dirala foru-aldundien eta udalen mesedetan. Halanda ze, ez dago ezelako kontraesanik eta inkoherentziarik. Zera dinozu: “jakina, lege bat izaera mugabakoaz onartzen danean, aldi baterako izanda be, zeozergaitik izango da, desfasea dagoalako gure errealidadeagaz”. Doikuntzarako fondo orokorra sistemearen akatsa baino ez da, eta agirian jarten dau berrikusi beharreko zeozer dana eta barrero zehaztu behar dana eta eguneratu egin behar dana. Zera dinozue: “zuk Bizkaiaren interesak defendidu gura dozuz beste batzuen interesen kalterako”. Tira, izan be, horixe bera da jagokuna. Izan be, ezin dogu albo batera itxi zer eginkizun esleitu deuskuen.

Gaur, berbarako, gaur goizean, Eusko Jaurlaritzek Next Generation fondoan eguneraketea aurkeztu dau, eta banaketarako erespideetako bat biztanleen ehunekoa izan daiteke, antza. Hori Euskadiren kalterako da. Halanda ze, zer egingo dau Eusko Jaurlaritzek? Ba, aldarrikatu egingo dau gure ekonomia eraldatu behar daben eta aukerak zein enplegua sortzeko gaitasuna euki behar daben proiektuak abian jarteko jasoten dauan ekarpena, fondo horreek biztanleen arabera legokigun ehunekoa baino handiagoak izatea. Dana dala, zera esan daike nonork: “izan be, hori ez litzateke ekidatzeko banaketea izango, bidebakoa izango litzatekealako. Eusko Jaurlaritzeari jagokona, ostera, Euskadiren interesak defendidutea da. Ganera, ahal danik eta baliabide gehien lortzen ahalegindu beharko da. Egoista hutsa da, beste batzuen kalterako egiten dau. Jakina, tartea, pastela dana da azkenean”. Ulertzekoa danez, Eusko Jaurlaritzek zati onena daroa beti. Halanda ze, ikuspegi bat dago, ikuspegi zentralistea, alegia, eta uste dot hori errakuntzea dala, bizkaitarron kalterako dalako. Beste batzuen kalterako be badala? Holantxe izango da, baina horrek Bizkaian zelako eragina daukan pentsetea baino ez da nire betebeharra.

Otermin jauna. Esan egin behar deusut ez dozula legea oso ondo irakurri. Oso pozik zagoz zu? Baliabideen banaketa egokia dala uste dozu? Nik neuk, ba, zer esango deusut? Horixe bera izan da artikuluen eta legeen ganean egin deuskuzun irakurketea. Dana dala, Ekarpenei buruzko Lege barria onartu beharra dago, eta bakoetak zelako erespideak eroango doguzan ikusi beharko da. Nire taldeak argi eta garbi zehaztu dauz, eta, horrezaz ganera, uste dot, horrexegaitik esan dot zati bi dagozala, ostekoa, negoziaketakoa izango dana, eta hasierakoa, hasierako jarrera argia, errealistea, sendoa eta adostua eukitekoa. Esan egin gura dot nik, Gobernuari eusten deusien taldeetatik, askoz be gustukoago euki nebala ahaldun

nagusiak zezeilean egin eban agerraldia Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariari entzun deusadana baino. Izan be, ezin deusagu beti Eusko Jaurlaritzearen jarrereari men egin. Ezin gara beti ikuspegi zentralistan ainguratuta egon, gauza garrantzitsuetan atzera egiten gabilzalako. Halanda ze, uste dot gauza horreek pentsau egin beharko dirala. Denporea euki dogu. 10 urte baino gehiago pentsetan, bizkaitarren onurarako izan daitekean ondorioren batera ailegetako. Horrezaz ganera, nire eretxiz eta nire taldearen eretxiz, parte hartzeko aukerea emoten dauan posizinoa izan behar da, partaidetzearen, gardentasunaren aroan gagozalako, eta bizkaitarrok ezin izango dogu parte hartu Euskadin hartuko dan erabagi garrantzitsuenean, bada. Emoten dau bulego batean adostuko dala, karrajuetan, eta guk ez dogu uste hori zentzuzkoa danik. Uste dogu euki beharko leukien protagonismoa emon behar jakela Batzar Nagusiei, gure lurraldearentzat hain garrantzitsuak eta ondorio handikoak diran erabagiak hartzen diranean.

Horixe bera zan geure mozinoan egiten genduan hirugarren eskaerea, Bizkaiak hain garrantzitsua dan legearen negoziaketan daukan posizinoak udalen, bizkaitarrakandik hurren dagozanen baliabideetan be eukiko daualako zeresana. Horregaitik, gure eretxiz, argiak izan behar gara eta idatzita jarri behar da, partaidetzea edegi behar da eta posizino sendo baizen zentzuzkoa eroan behar da Herri Dirubideen Kontsejura. Hori guztiori dala eta, eta amaitzear nago, baikortasun-erakustaldia eginda, beharbada, eskatu egingo neuskizue, Gobernuari eusten deusazuen taldeoi, batez be, hausnarketea egiteko eta proposamen honen aldeko botoa emoteko, ona dalako Bizkaiarentzat, ona dalako Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, ona dalako udalarentzat. Azken batean, uste dot industria eta enplegua lako gai ezin garrantzitsuagoetan daukagun posizinoa hobetzen lagundu daikeala. Izan be, zuok dakizuenez, azken urteotan etenbako atzerakadea egon da, eta, zer esanik ez, nire eretxiz gure zera nagusiak diranen, izan behar diranen aukeren eta bizi-kalidadearen kalterako da...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Gure ekintza politikoaren onuradun nagusiak, herritarrak, alegia. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Mahaiburu andrea. Tira, irakurri dodanagaz pozik ete nagoan? Irakurri dodana, hain zuzen be, Herri Dirubideen Euskal Kontsejuaren txostena da, zati igarokorra dala eta, lehenengo artikulua igarokorra, Euskal Udalei buruzko Lege Instituzionalaren onarpenaz eskaintzen deusuna. Halanda ze, irakurri dodan hori ez da nirea. Herri Dirubideen Euskal Kontsejuak badaki zeozer, nik baino gehiago bai, behintzat. Zuk baino gehiago, ez dakit, baina nik baino gehiago bai, ezelako zalantza barik.

Bigarrena. Bitxia benetan! Ganerakook hausnartu daigula eskatzen deuskuzu. Ez zara konturatzen zeu bakarrik geratzen zarala zeure posizinoagaz eta Ganbera osoan zure zuzenketearen aurkako botoa emongo dogula, ganerakook dinogun ezer onartu gura ez dozulako?

Hirugarrena. Bitxia benetan! Bertan dinozuen berbera Araban defendiduten dozue eta, laster, Gipuzkoan be bai. Nongoa dan PP, halakoxea izango da bere forutasuna. Zeri buruz gabilz berbetan? Turkiako merkaduetakoen antzeko negoziaketeari buruz? Bertan, ikusi egingo dot zelan engainetan zaituan zu, nogaz bizi behar nazan, nogaz daukadazan betebeharrak.



batzuk, zerbitzu publikoen jasangarritasunari begira. Ea diru batzuk lapurtzen deusudazan. Izan be... Horixe ete da Bizkaia defendidutea? Horixe ete da forutasuna? Lurralde baten interes ekonomiko batzuk defendidutea, Aldundiak barik Eusko Jaurlaritzeak emoten dauzan beste zerbitzu batzuk dagozala ahaztuta? Aitatu egin dodaz, hain zuzen be: osasuna, hezkuntzea, segurtasuna, gizarte-zerbitzuak, diru-sarrerak bermatzeko errentea dana. Bost ardua horrek, eta, jakina, norbera hemen... Forutasuna. Bularra forutasunez beteta zatoz bertora. Zer eztabaidatu ugari dago horren inguruan. Zelan geratzen da forutasuna, gai historikoa izan dan guztiaren eta instituzino moduan euki dogun bilakaerearen ostan? Onena: norberak Alderdi Popularrak Kontzertu Ekonomikoaren aurka aurkeztu eban errekursoa topau dau. Pedro Sanzek, Errioxako presidenteak, aurkeztu eban, bidebakoa zalakoan. Nahi-ta Alderdi Popularreko buruzagiak Euskadin horren aurka egozala esan, ezin izan eben ezer egin, eta 2009. urtean Diputaduen Kongresuan onartu zan erabagia errekurridu zan. Bertan, ganera, PPK aurkako botoa emon eban. Non egozan bertan euskal foralistak? Non? Edo nire alderdian agintzen dabenak ez dagozanean berba egiteko bakarrik balio dau forutasunak? Hemen oilartzeko eta zera esateko: “tira, ea lurralderen bat engainetan dodan eta neuk diru gehiago ateraten dodan”. Horixe ete da jasangarritasuna, horixe ete da justizia, horixe ete da alkartasuna, horixe ete da zerbitzuen homogeneizazioa, horixe ete da euskal herritarra izatea? Horrexegaitik esan dot, “herrialdea gara, hiru lurralde”. Edozelan be, norabide berean goaz danok, bertan eztabaidatu beharko dala, jakina. Ganbera hau negoziako danaren jakitun egon behar dala? Jakina. Dana dala, zure moduan pentsau ez arren, ez dau esan gura euskal herritar txarragoak garanik, ezta bizkaitarren interesen aurka gagozanik be, guztiz kontrakoa baino. Ez egin trikimailurik. Hona hemen zure asmoa: bihar, egunkarietan zeuk esan dozuna esatea, ganerakook hauxe esan deusugun arren: “tamalgarría benetan bizkaitarrontzat eta euskal herritarrontzat hain garrantzitsua dan gai honetan barriro be Alderdi Popularragaz adostasuna ez lortzea!”. Bereizgarritasuna bilatu behar da, osterá. Alderdi Popularrarena, jakina.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso. Señora Ilardia Olangua, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: La Moción del Partido Popular dice en el segundo punto: “Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie Ekarpenei buruzko Lege barriaren negoziaketan bizkaitarren interesak modu bereizgarrian defendidu eta babestu daizala, edozein akordu gure lurraldeak Euskadin daukan pisu espezfikora egokitu daiten”. Lehenengo eta behin, Fernández andrea, eretxia onartuko deusut, baina uste dot badala sasoiá gaztelaniaz lengoia sexista hori aldatzeko eta lengoia barnertzaileagoa erabilteko, mozinoetan bertan be bai.

En cualquier caso, nosotros/as no compartimos ese punto de vista cerrado que he mencionado anteriormente, en este caso, ese provincialismo. Por eso hemos presentado esta enmienda. Bizkaiko Batzar Nagusiek hiru foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzeari eskatzen deusie Ekarpenei buruzko Lege barria adostu daiela, legearen gaur eguneko desorekak zuzentzeko eta, holan, ekarpenen kalkuluan hiru lurralde historikoetako bakar bati be kalterik ez egiteko. Hain zuzen be, apirilaren 21ean aurkeztu barri daben mozinoan Araban daukazuezan kideek emon daben idazketa berbera da.

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a las tres diputaciones forales y al Gobierno Vasco a consensuar una nueva Ley de Aportaciones que corrija los actuales desajustes de la ley, con el objetivo de evitar perjuicios para ninguno de los tres territorios históricos en el cálculo de sus aportaciones. Lamentablemente, a pesar de que actualmente de momento aún nos resulta imposible mantener el equilibrio entre los siete territorios, para Euskal Herria Bildu resulta importante mantener el de los tres territorios, al menos. Ahora, el inicio de la negociación de la nueva Ley de Aportaciones no puede ser cuánto aporta Bizkaia, cuánto

percibimos ahora en Bizkaia. Lo dicho, la situación ha cambiado, el reparto de competencias es distinto y, por lo tanto, deberá haber, haber cambios. Por ello, trabajemos un consenso amplio, logremos un nuevo equilibrio, pero desde un punto de vista nuevo, al menos, que aunque no sea el de toda Euskal Herria, sí lo sea el de una parte. Respecto a la consecución de ese amplio consenso, compartimos lo que se plantea en el último punto de la moción del Partido Popular. Que los planteamientos que se defiendan en la negociación de la nueva Ley de Aportaciones se debatan y consensúen previamente en esta Cámara de representación de la ciudadanía de Bizkaia.

Urquieta andrea, Ekarpenei buruzko indarreko Legea ondo badoa, zertarako lege barri bat? Talde tekniko baten lanak oso aurreratuta dagoz, eta, Azpiazu jaunaren esanetan, urtearen amaierarako, seguruenik, lege barria eukiko dogu. Zetan geratzen gara, indarrekoa ondo doa edo ez doa ondo?

Nos parece que el retraso es injustificable. Al principio, la excusa fue la nueva negociación del cupo; después, el estudio que requería la Ley de Entidades Locales. Sin embargo, el acuerdo sobre el cupo se alcanzó en el mes de mayo de 2017, y, en mayo de 2018, ya se había realizado el Informe LILE o ETEL. Por tanto, ¿por qué no se ha hecho nada desde 2018? ¿O se ha hecho poco? ¿Podía ser porque no disponían de suficiente consenso en el Parlamento, porque no tenían mayoría absoluta en la legislatura anterior? Puede ser. La pregunta, no sé. Consenso. Durante esos años, en el Gobierno Vasco, como digo, no tenían mayoría absoluta, y pudiera ser que ahora tampoco se aprobara la nueva ley. Sin embargo, lo que nosotros/as pedimos es que se alcance el consenso más amplio posible. Creemos que ese es el reto, y Euskal Herria Bildu, al menos, está dispuesto a afrontar ese reto, así como a trabajar esos acuerdos, a pesar de las dificultades.

Por último, nos parece que lo que se debe conseguir es el equilibrio. El objetivo es disponer de una financiación suficiente para dar una respuesta adecuada a las necesidades de la ciudadanía. Nos da lo mismo que se trate de las diputaciones forales, de los ayuntamientos o del Gobierno Vasco. Lo que debemos conseguir es que la ciudadanía de la Comunidad Autónoma de Euskadi tenga el mismo acceso a los servicios públicos, independientemente que sea de Bizkaia, de Araba, de Gipuzkoa, de Barakaldo, de Lekeitio. Es complicado, lo sabemos, somos conscientes, somos muy conscientes, es complicado, pero ese es el reto, que no exista discriminación entre la ciudadanía de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Además, nos parece que, no lo ha dicho, pero el Partido Popular no va a aceptar nuestra enmienda, por lo que solicitaríamos que el segundo punto se votara por separado. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Ildia Olangua. A continuación, señora Urquieta Zuzaeta, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Muchas gracias, de nuevo. Ganbera honetan ordeztutako talde politiko bakoitxak puntu honetatik egunkarietan atera gura dauzan izenburuak errespetata, gure taldearen eretxiz ezin dogu jorratzen gagozanaren perspektibea galdu. Oso garrantzitsua da guk argi eukitea nondik gatozan eta norantz goazan. Nondik gatoz? Lege batetik, eta egia da 2007. urtekoa dana, urtero EUSTATen datuen arabera eguneratu dana eta egia be bada maila instituzional guztietan joan dana ondo. Zer da nahikotasun finantzarioa? Zuok badakizue zer dan Kontzertu Ekonomikoa? Zelakoa dan bere jardunbidea? Ez ete dakizue arrisku partekatuko sisteman bizi garana? Inork lagunduko ez deuskuna eta ezer oparituko ez deuskuna? Baliabideak banatzeko eskakizunak Lurralde Historikoei buruzko Legean dagoz zehaztuta. Zorrotzak izan gaitezcan eta ez gaitezcan zarabandearen politikearen atzaparretan jausi.

Eredua ondo doa, ondo doa, instituzino erkideen, foru-mailakoen eta udal-mailakoen arteko adostasun bateratuaz, Iardia andrea, nahi-ta kostata autortzen dozun. 3 mailatako administrazioak, aurrekontuak eta euren herritarrentzako kalidadeko zerbitzuak daukiezanak. Norantz goaz, ostera? Fiskalidadeari jagokonez, zerga-sistema osoaren preminen eta helburuen azterketa sakonerantz goaz, geure zerga-sistema osoan GJH erespideak bultzatuta. Bi, etorkizun hurbilean, Ekarpenei buruzko Legearen onarpenerantz. Konplexutasun teknikoa dauka, Eusko Legebiltzarrean onartuko da eta, bertan, talde politikoen ordezkartzea daukagu danok.

Badakigu zein diran autonomia-erkidegoko udalen eskumenak, eskumenak eta premina finantzarioak, zein diran hiru foru-aldundien eskumenak. Horrezaz ganera, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak zein diran be badakigu: segurtasuneko eskumenak, osasun-arloko eskumenak, hezkuntzakoak, bardintasunekoak, etxebizitzakoak, gizarte-prestazioetakoak eta abar luze bat. Bizkaian be betearazoten dira, eta emoten dau gaur gurata itxi gura izan dirala albo batera edo txikiagotu gura izan dirala, behintzat. Amaitzear nago. Ekarpenei buruzko Lege barriaren onarpenaren atalondoan, baliabide erabilgarrien ekidadezko banaketaren alde egiten dogu, era bateko eta besteko maila instituzionalek betearazotako eskumenen arabera. Gure eretziz, ezin leiteke beste era batera izan, eta, funtzionau dauan eta ondo funtzionau dauan legea dana autortzen jakin arren, inplikautako instituzinoei eskatzen deutsegu lege barria adosteko, legearen beraren hobekuntzarako alderdietan sakontzeko, betibe, arrisku partekatua eta zerga-ahaleginaren printzipioak errespetata. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urquieta Zuzaeta. Por último, para concluir el debate, señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Gai batzuetan bat gatoz zeugaz, Fernández andrea. Desorekak dagozala, legea eguneratu barik dagoala? Bat gatoz zeugaz. Zuzendu egin behar dirala? Be bai. Bat gatoz udalen egoera be, batzuen, zehatz-mehatz, oso txarra dala eta egunez egunekoari aurre egiteko ezin gatzagoa dala esaten danean. Horretan be bat gatoz zeugaz. Ganbera honetan eztabaidatu beharra dagoala? Horretan be bat gatoz zeugaz.

Gaur zuk bertan esan dozuna kontuan hartuta, hainbat gaigaz gatoz bat, baina beste batzuek ezin gara ados egon. Gure eretziz, herritarrentzat Eusko Jaurlaritzak eskumenak ez betetea, behar dan moduko osasuna ez daukagulako, baizen garrantzitsua eta kaltegarria da Aldundiak eskumenak ez betetea, edadeko batentzako egoitza-plazarik ez dagoalako, eta udal batek ez betetea, etxez etxeko laguntzarako zerbitzua edadeko baten etxera ailegetan ez dalako. Uste dot ondorioa larria eta garrantzitsua dala kasu guztietan. Ganera, uste dot garrantzitsua dala, Ekarpenei buruzko Legeari buruz berba egiten dogunean, guretzat, gure taldearentzat, Elkarrekin Bizkaiarentzat oso garrantzitsua dala lurraldeen arteko alkartasun-printzipioa kontuan hartzea. Gure eretziz, printzipio horrek eskubide-bardintasuna, aukera-bardintasuna, azkenean, danon babes-bardintasuna bermatzen dauz, personak edonon bizi dirala be.

Euzko Alderdi Jeltzaleagaz, ostera, ez gatoz bat, eta hainbatetan azaldu dogu, arrisku partekatua printzipioan. Ez gatoz bat, oso ondo doalako onaldietan, baina ezin txarrago doalako krisaldi ekonomikoetan. Ganera, ondorio ikaragarriak daukaz herritarrentzat eta nahikoa garestiak herritarrakandik hurren dagozan maila instituzionaletan, eta uste dogu barriro pentsau behar dan elementua dala hori. Zerga-eraldaketa ona egin behar dala uste dogu guk. Horrezaz ganera, uste dot eztabaida biak aldi berean emon behar dirala, eta, modu berean, uste dot emon be egin behar dan beste eztabaida bat dagoala, era bateko eta besteko gobernuen gastu eta inbersino arloko lehentasunak be jarten doguzalako kolokan. Hiru elementu dirala uste

dot: Ekarpenei buruzko Legea, zerga-eraldaketea eta gastu-arloko lehentasunak. Pausu berean joan behar dira, eta batak ezin dau bestea albo batera itxi.

Oso garrantzitsuak diran aldeak dagozala, baina Ekarpenei buruzko Lege hau oso garrantzitsua da. Uste dot gaur ez geunkeala bertotik urten behar, Ekarpenei buruzko Legeari buruzko eztabaida hori Ganbera honetan egitea onartu barik eta, zelan edo halan, oposizionoko taldeoi ahaldun nagusiak gai horreei buruzko erabagiak hartu ahal izango diran organuari eroango deutzan, igorriko deutzan horretan ekarpena egiteko aukerea emon barik. Nik neuk bertotik botaten deutsuet balorazino hori egiteko eta pentsetako aukerea.

Fernández andreak proponiduten dauzan ekimenari eta proposamenari jagokenez, kasu honetan eskatu egingo neuskizu, ahal dala, 1. eta 3. puntuak batera bozkatzeko; eta 2. puntua, aparte. Gure aldetik, besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Tanto el grupo Elkarrekin Bizkaia como el grupo Euskal Herria Bildu han solicitado una votación especial. Eso se contempla en el artículo 84 de nuestro Reglamento, donde dice que, si el/la proponente lo acepta, sí se puede realizar una votación especial. Señora Fernández Angulo, ¿acepta la votación especial? Me ha dicho que sí. Por tanto, deberemos realizar dos votaciones. En primer lugar, someteremos a votación el primer y el tercer apartado. Por tanto, ¿votos a favor de estos apartados? ¿Votos en contra? El resultado es el siguiente: se han emitido 49 votos en total. Ha habido 18 votos a favor y 31 votos en contra. Por tanto, no se han aprobado el primer y el tercer apartado.

A continuación, votaremos el segundo apartado. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado es: se han emitido 49 votos en total. Ha habido 2 votos a favor y 47 votos en contra. Por tanto, no se ha aprobado el segundo apartado, y, por tanto, no se ha aprobado la moción. Dicho lo cual, una vez agotado el Orden del Día, se levanta esta Sesión Plenaria. Que todos/as tengan un buen día.

Batzarra 16:47an amaitu da.

Se levanta la sesión 16:47 horas.